

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1667

24/2016 DEKRETUA, otsailaren 16koa, Urkiola (ES2130009) kontserbazio bereziko eremu izendatzen duena.

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako erabakien bidez, hegaztientzako babes bereziko sei eremu (BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren garrantzizko leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren. Horien artean, Urkiola (ES2130009) kontserbazio bereziko eremua (KBE) dago, Atlantikoko eskualde biogeografikoan.

Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak habitat naturalak eta flora eta fauna basatiak nola kontserbatu arautzen du, eta, zehazki, 4. artikulua bitartez, eta natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45. artikuluen bitartez, xedatuta geratu da autonomia-erkidegoek BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu izendatu behar dituztela eta eremuok behar bezala kontserbatzeko neurri guztiak ezarri behar dituztela, lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen arabera. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, alde batetik, kudeaketako planak eta tresnak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Urkiolako gunean egiaztatu da Batasunaren intereseko hamasei habitat daudela, 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean bildutakoak, eta habitat horietako hiruk lehentasunezko izaera dutela. Halaber, leku horretan 92/43/EEE Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan biltzen diren espezieetako hogeita zazpi espezie daude gutxienez, baita 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean biltzen diren hegazti-espezieetako hamalau espezie ere (gutxienez). Historian zehar gertatutako giza jarduera biziak Urkiolako paisaia itxuratu du, eta egungo espazioaren banaketa bertatik eratorri da, hein handi batean. Urkiola harkaitzekin lotutako habitat batzuen kontserbaziorako eremu gakoa da, baita pagadi azidofiloen kontserbaziorako ere. Nabarmentzekoa da populazioa finkatuta duten honako hegazti errupikola hauen presentzia: sai arreak (*Gyps fulvus*), belatz handiak (*Falco peregrinus*) eta sai zuriak (*Neophron percnopterus*). Harkaitz-zozo gorrien (*Monticola saxatilis*) eta harkaitz-zozo urdinen (*Monticola solitarius*) finkatutako populazioak ere badaude. Flora interesgarriari dagokionez, hainbat espezieren presentzia nabarmentzekoa da, esaterako, *Narcissus asturiensis* eta *Narcissus pseudonarcissus* ssp. *nobilis*. Urkiolak biltzen dituen kasuistika bereziak eta parke natural bat izateak, komenigarria egiten dute dekretu-proiektu bat berariaz lantzea, mendi-eremu horretarako.

Gune berean naturagune babestuen tipologia bikoitza biltzen da: parke naturala da eta Natura 2000 Sareko gunea da. Horrenbestez, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraikiz, eremu hori antolatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplikatu daitezkeen erregimen desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute. Bi tipologietarako dokumentu bakarraren legegintza desideratuma ezin da lortu parke naturalen kasuan, tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren (NBAP) bidez (NKLTBaren 20. artikulua) eta Parke Naturalak Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailearen (EKPZ) bidez (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar bai-

tira. Beraz, horrelako kasuetan, bi dokumentu egon beharko dira: bata parke naturalerako izaera bikoitza duen BNAPa eta KBERako helburu eta erregulazioak jasotzeko; eta, bestea, izaera bikoitza duen EKPZa eta kudeaketa neurriak jasotzeko.

Gainera, kontuan izan behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organoek dituzten eskumen konkurrenteak direla-eta, koordinazio-ahalegin berezia behar dela: naturagune babestuaren bi tipologia horien deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio azken batean (NKLTBaren 19.1 artikulua); parke naturalei dagokienez, NBAPa izapidetzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); eta aldiz, EKPZ prozedura bifasikoaren bidez izapidetu eta onartzen da, hots, lehenik, foru-organoek izapidetzen dute parke naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak onartzeko, eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak izapidetzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29. artikulua). Bestalde, KBEEi dagokienez, helburuak eta arauak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren lehen paragrafoko 22.5 artikulua) eta neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren bigarren paragrafoko 22.5 artikulua). Nolanahi ere, tresna desberdin horiek guztiak beti EHAAAn argitaratu behar dira.

Dekretu honen helburua da Urkiola Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremu izendatzea eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren kontserbazio-neurriak onestea, zeinak izendapen honekin batera eman behar diren. Ondoren, eta Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiek dekretu honekin batera izapidetu den Parke Naturalak Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea (EKPZ) bidali ondoren, Eusko Jaurlaritzak plan horren arau-partea onetsiko du, eta tresna osoa EHAAAn argitara dadin aginduko. EKPZ horrek Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 18. artikulua eskatzen duen helburu bikoitzari erantzungo dio: hau da, parke naturalaren EKPZ izatea, eta kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa-jarraibide izatea, 22.5. artikulua bigarren idatzi-zatiaren arabera. Horrekin guztiarekin, eremu hau guztiz araututa geratuko da, eta 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikulua osorik beteko da.

Horretarako, bi eranskinekin batera osatuko da hemen onesten den dekretua. Lehenengoak, kontserbazio bereziko eremuaren kartografia jasotzen du; bigarrenak, berriz, Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22. artikuluko aginduak betetzen ditu, zeinak kontserbazio bereziko eremuari soilik dagozkion eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren.

Urkiola KBEEa kontserbatzeko bitartekoak Europako Batzordeak ezarritako printzipioei jarraikiz landu dira, 92/43/EEE Zuzentarauan jasotako eta eremuan topatutako habitat eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzuna emateko asmoz. Horrela, dagoeneko izendatuta dauden Natura 2000 Sareko gainontzeko eremuen antolamendu berdina izango du.

92/43/EEE Zuzentarauak kontserbazio bereziko eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, Urkiola sakon aztertu da, eta eskala egokian adierazi da Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen kokalekua; horrekin batera, haien kontserbazio-egoera ere ebaluatu da. Horretaz gain, guneko horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Horrela, Urkiola KBEEa kontserbatzeko bitartekoak lantzeko lan teknikoetan zehar, egokitzen jo da naturagune babestuaren eremua zabaltzea, Indusiko Balzola-Karst ingurunea sartzeko. Balzola haitzuloa funtsezko gunea da Habitaten Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako kiropteroen espezie mehatxatu batzuentzat, hala nola *Rhinolophus euryale*, *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposidero* eta *Miniopterus schreibersii*. Espezie horien populazioak gutxitzen ari dira, haitzuloak duen kirol eta aisiarako erabilerarengatik, erraz iristen baita bertara. Gainera, zabaltzen den eremuan, Abaro Jentilzubi sistema nabarmentzen da, duen interes hidrogeologikoarengatik, baita kareharrizko harkaitzak (8210), artadi kantauriarra (9340) eta txilardi kaltzikolak (4090) ere.

Indusiko karsta Interes Geologikoa duten Inguruen inbentarioan dago jasota. Guztiz eraginkorra izateko, KBEa zabaltzeak Europako Batzordearen erabaki bidezko alde aurretiko balidazioa eskatzen du; beraz, eremuaren mugaketaren kartografiak eremu hori mugatzeko bi lerroak jasotzen ditu. Horrela, mugaketa berriaren eraginkortasuna eta zabalduetako eremua kontserbatzeko neurrien ezarpena dekretu honen azken xedapenetatik lehenengoan jasotako baldintzapean daude. Era berean, beharrezkotzat jo da dekretu honen i. eranskinean jaso den babeserako eremu periferikoa mugatzea, eremuaren balioetarako prebentzio-araubide nahikoa eta egokia ezartzeko.

Horretaz gain, xehetasun-lanei esker lortu diren habitat moten azalerari buruzko datuak, zenbait kasutan, ez datoz bat Europako Batzordera –Euskal Autonomia Erkidegoko tokien zerrendaren proposamenarekin batera– igorri eta jakinarazitako datuekin. Alde horiek habitatak identifikatzeko metodologiaren aplikazioan izandako aurrerapenen ondorio dira, baita hasierako proposamena egiteko unean erabili zen lan-eskalaren ondorio ere. Xehetasun-azterketari esker habitat jakin batzuen interpretazioa zuzentzeko aukera izan da. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, eremu batzuetan, formularioan adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela.

Dekretu honen azken xedapen batean jasotzen denez, arau hau argitaratu ondoren, II. eranskin hau jasoko duen Urkiola parke naturalaren NBAParen aldaketari ekin beharko zaio, aipatutako dokumentu bakarra –Eusko Jaurlaritzaren eskumen dena– egiteko, betiere NKLTBaren 7. artikuluan aurreikusitako prozedura luze eta konplexua konfiguratzeko duten izapide prozesalak beteta, baina Europarekiko betebeharrak ere beteta.

Kontserbazio bereziko eremu izendatzeko prozeduran, ondo bete da parte-hartze sozialaren prozesua, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interes ordezkariek diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, publiko interesdunari komunikazioak helarazita ingurumen-organismoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen web-orriaren bitartez: <http://www.euskadi.eus/natura2000>; guneari buruzko informazioa eguneratuta egongo da beti webgune horretan.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22.5. artikuluan eta, bestetik, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betez, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2016ko otsailaren 16an egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Urkiola kontserbazio bereziko eremu (ES2130001) izendatzen da, Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetan.

2.– Kontserbazio bereziko eremuaren (hemendik aurrera, KBE) mugak dekretu honen I. eranskinean jasotako kartografian agertzen direnak dira eta, eskala-doikuntzak egin ostean, bat datoz Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian bildutako Batasunaren garrantzizko lekuen mugekin. Era berean, eranskin horrek guneari buruzko babeserako eremu periferikoa jasotzen du, Euskal

Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 19.2 artikuluekin bat.

3.– Aurreko idatzi-zatian aurreikusitako mugaketa zabaldu egingo da I. eranskinean jasotako mugetara arte, Europako Batzordeak onetsi ondoren.

4.– Onartu egiten dira KBEa kontserbatzeko II. eranskineko neurriak. Horiek bat datoz dekretu honen 3. artikulua ezarritako edukiarekin.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea honako hau da: kontserbazio bereziko eremuan (KBE) bermatzea Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gura iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– Kontserbazio bereziko eremuan, honako hauek ezarritako araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaruak eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Babesteko Legearen testu bateginaren 22.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, II. eranskinek KBEaren izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak, kontserbazio-erregulazioak eta jarraipen-programa bat jasotzen ditu.

2.– KBEaren kudeaketa-jarraibideak eta -neurriak Urkiolako Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko Gida Planean gehituko dira.

4. artikulua.– Berrikusketa edo aldaketa ez-funtsezkoa.

II. eranskinaren berrikusketa edo aldaketa, zeina ez baita funtsezkoa, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentaruaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa beteta. Izan ere, helburua baita kontserbazio eta kudeaketa moldaeraz, etengabe eta malgu baterantz joatea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ezarritakoari jarraikiz; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.– Arau-hausteen eta zehapenen erregimena.

Dekretu honen aplikazio-eremuaren eraginpeko gune babestuetan honako zehapen-erregimen hau aplikatu behar da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Herriko Natura Babesteko Legearen testu bateginean eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumenaren alorreko sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuko Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Atlantikoko eskualde biogeografikoko BGLen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian jasotako mugei dagokienez, Europako Batzordeak KBEa eskala-doitzeengatik zabaltzeko erabakia hartu izanaren berri ematen duen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren Agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Orduan izango dira eraginkorrak dekretu honetan eremu horretarako aurreikusitako kontserbazio-neurriak. Ordura arte, eremu horretan, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.3 eta 6.4 artikuluek ezarritako prebentzio-araubidea aplikatuko da, baita Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluan 4., 5. eta 6. atalek ezarritakoa ere.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau onartzen denean, parke naturalaren eta KBEaren mugak bat etortzeko prozedurari ekingo zaio, eta parke naturalaren NBAPa naturagune babestuen bi tipologia horiek arautuko dituen dokumentu bakarra bihurtzeko prozedura ere abiaraziko da, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Babesteko Legearen testu bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

OTSAILAREN 16KO 24/2016 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

MUGAKETA-MAPA

http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_24_2016/urkiola.json&lang=eu

OTSAILAREN 16KO 24/2016 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

URKIOLA KBE-ARI DAGOZKION INFORMAZIO EKOLOGIKOA, KONTSERBAZIO-HELBURUAK,
KONTSERBAZIO-ARAUAK ETA JARRAIPEN-PROGRAMA**1.- SARRERA**

Urkiola EAeko mendigune nagusienetakoa da. Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroan dago, Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoen artean. Aramotzeko mendilerroa, Durangaldeko mendiak eta Arangioko mendilerroak osatzen dute Urkiola espazioa.

Mendi horien topografia aldapatsua da Mugarra, Aramotz eta bereziki Anbotoko mendilerroko kareharrizko harkaitzen berezitasunarengatik. Harkaitz horiek inguruko haranetan daude eta edertasun handiko eremu ikusgarria osatzen dute. Zalantzarik gabe, Urkiolako paisaia bere aktibo garrantzitsuenetakoa da.

Mendien ondoan arras karstifikatutako gunek daude eta bertan hainbat leize, arrail, dolina eta amildegi sortu dira. Testuinguru horretan, harkaitzei lotutako flora eta fauna interes handikoak dira; amildegi eta hartxingadietan Urkiolako landare-espezie berezi gehienak kontzentratzen dira, eta harrapari errupikolek enklabe horiek erabiltzen dituzte, hala nola sai zuriak, belatz handiak eta sai arreak. Gainera, baso-masek eta leizeek kiropteroak egotea laguntzen dute.

Zuhaitz-guneek eremuaren azaleraren erdia baino zertxobait gehiago hartzen dute, eta baso naturaletan eta baso-landaketetan banatzen dira, bakoitzak ia erdibana hartuz. Baso naturalei dagokienez, pagadi azidofiloak, larre-pagadi kaltzikolak eta artadi kantauriarrak dira nagusi, duten hedadurarengatik.

Historian zehar gertatutako giza jarduera biziak Urkiolako paisaia itxuratu du, eta egungo espazioaren banaketa bertatik eratorri da, hein handi batean. Antzinako larratze estentsiboa bertako biztanle askoren bizibidearen oinarria izan da. Jarduera horrek baso-soiltze handia eragin du, baita beste helburuetarako zuhaitzen mozketak ere (eraikuntzarako, ikatzetarako, egur-bilketarako, etab.)

Mendi hauetatik kareharria erauzten zen, eta ospe handia lortu zuen bere kalitate onarengatik. Erauzte-jarduera garrantzitsua izan zen Urkiolan, eta bertako eremuan hainbat harrobi ustiatu izan dira. Naturgunearen barruan dauden harrobi handienak honakoak dira: Altxartekoak (denboraldi luze batetik hona geldirik eta lehengoratzeko daudenak) eta Zallobentakoak (segurtasuna bermatzeko, bertan behera uzteko eta lehengoratzeko fasean daudenak). Markomin Goikoa eta Mutxateko harrobiak naturagune babestitutik kanpo daude, baina Inguruko Babesgunearen barruan.

Urkiolak erabilera publiko handia eta bisitari ugari ditu, bereziki Urkiolako mendatearen eremuan, bertan baitago San Antonioko Santutegia, erromesaldien lekua. Puntu hori mendi-ibilbide askoren hasiera-puntua da, Urkiola EAEn mendi-kirolen praktikarako toki erreferenteetako bat baita. Atxarte edo Baltzolan eskalada-jarduera asko egin ohi da.

Urkiolan balio natural garrantzitsuak daude, bertan 92/43/EEE Habitat Zuzentzaurren I. eranskinean dauden Batasunaren intereseko 16 habitat daudelako (horietatik hiru lehentasunezkoak). Gainera, Urkiola harkaitzekin lotutako habitat batzuen kontserbaziorako eremu gakoa da, habitat horien hedapenarengatik eta/edo berezitasunarengatik. Pagadi azidofiloen kontserbaziorako ere eremu gakoa da.

Urkiolan 92/43/EEE Habitat Zuzentzaurren II. eranskineko gutxienez 11 espezie eta IV. eranskineko 16 espezie bizi dira, baita basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko 79/409/CEE Zuzentzaurren I. eranskineko 12 hegazti ere. Azken horiei dagokienez, nabarmentzekoak dira finkatutako populazioak dituzten honako hegazti errupikolak: sai arrea (*Gyps fulvus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta sai zuria (*Neophron percnopterus*); azken hori azpimarratzekoa da, EAEn eta estatuan desagertzen ari delako. Arrano beltzak (*Aquila chrysaetos*) eta ugatzak (*Gypaetus barbatus*) gune hau bisitatu ohi dute, ustekabeen edo haien ehiza-gune bihurtu dutelako, baina ugalketarik azaldu gabe. Harkaitz-zozo gorrien (*Monticola saxatilis*) eta harkaitz-zozo urdinen (*Monticola solitarius*) finkatutako populazioak ere badaude.

Hori guztiaren ondorioz, eta Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduan hartutako Erabakiaren bidez, Urkiola, haren balio ekologikoen arabera, Natura 2000ko lekua izateko hautaketa-prozesuaren aurreko faserako hautatu zen eta EAEn Batasunaren garrantzizko leku (BGL) izateko proposamenaren gehitu zen. Ondoren, Europako Batzordeak batasunaren garrantzizko lekuen zerrendan gehitu zuen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/CE Erabakiaren bitartez, zeinaren bidez Atlantikoko zona biogeografikoan Batasunaren intereseko lekuen zerrenda onartu zen.

Urkiolak dagoeneko bazuen parke naturalaren izendapena. Urkiola EAEn izendatutako lehen parke naturala izan zen. Abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren bidez izendatu zen eta Natura Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) eta Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailea (EKPE) zituen. Urkiolako Parke Naturaleko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana ekainaren 18ko 147/2002 Dekretuaren bidez onartu zen, eta duela gutxi aldatu egin zen ekainaren 3ko 91/2014 Dekretuaren bidez, zeinak Urkiolako Parke Naturaleko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzen duen.

Urkiolako Parke Naturalak 5.958,3 ha-ko azalera du. Natura Baliabideen Antolamendurako Planak «Inguruko Babesguneak» hartutako 800 ha gehitu zizkion azalera horri. Gehitze hori parke naturalaren inguruan dagoen 100 m-ko banda perimetral bat da, herriguneak eta industriaguneak kenduta.

92/43/EEE Habitat Zuzentzaurren 4. artikulua eta abenduaren 13ko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen 44-45 artikuluek honakoa ezartzen dute: autonomia-erkidegoek, publikoari informazioa eskaini ondoren, beren lurralde-eremuetako BGLak kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatu beharko dituzte, baita hegaztientzako babes bereziko eremu (BBE) ere. Horretarako beharrezko kontserbazio-neurriak ezarri beharko dituzte, eremu horietako espezieen eta habitat naturalen behar ekologikoei erantzuna emango dizkietenak.

Hortaz, dokumentu honen helburua Urkiola ES2130009 babesgunea kontserbazio bereziko eremu izendatzeko oinarritzko informazio teknikoa eskaintzea da.

KBEren mugaketak ez du zehazki bat egiten parke naturalaren mugaketarekin, ez eta Batasunaren garrantzizko lekuaren (BGL) jatorritzko mugaketarekin ere, hari Indusiko karst-gunearen zati bat —Diman— gehitu zaiolako. Parke naturalaren azalera 5.958,3

ha-koa zen, eta KBErena zertxobait handiagoa da, zehazki 6.020,53 ha-koa. KBEri gehitutako azalera berria urgondarreko kareharrien gainean oso karstifikatutako gunea da eta tunel, galeria, fosil, leize, iturburu eta hobi-zuloen adibide bikainak ditu. Gehitutako habitatek kareharrizko harkaitz, artadi kantauriar eta txilardi kaltzikola bikainak dituzte. Bertan dago Baltzolako leizea; espezie horren Kudeaketa-plana eratzeko dokumentu teknikoaren proposamenaren arabera, leize hori ferra-saguzar mediterraneo berreskuratzeko lehentasunezko babeslekutzat hartzen da.

Eremu hau iraganean BGL izendatzeko kontuan hartu ziren balio natural eta ekologikoez gain, Urkiola EAeko paisaia-erreferentzia garrantzitsua da. Herriak oso barneratuta duen eremua da, hainbat eta hainbat mito eta kondaira baitaude leku honekin lotuak, hala nola lamien, iratxoen eta jentilen istorioak. Hala ere, horietatik zabalduena Mari, Anbotoko Damaren kondaira da. Bizileku asko ditu Urkiolan, gogokoena Anbotoko pareta bertikaleko leizea.

2.- INFORMAZIO OROKORRA

2.1.- KOKAPENA ETA MUGAKETA

Urkiolako KBE Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoen artean dago, baina haren zati handiena (azaleraren % 85,8) Bizkaian dago.

Indusiko eremua sartzearen ondorioz, dokumentu honetan proposatutako KBE egokitzeko eta zabaltzeko neurrien ostean, hauexek dira Urkiolako naturagune babestuko oinarritzko parametroak:

2.1. taula: Urkiolako KBEren identifikazioa eta kokapena	
KODEA	ES21300009
Izena	Urkiola
KBE bezala proposatu zen data	12/1997
KBE bezala konfirmatu zen data	12/2004
Erdiko puntuko koordenadak	W2° 40' 29"/N 43° 7' 30"
Azalera (ha)	6.020
Gehienezko altitudea (m)	1.320
Gutxieneko altitudea (m)	220
Batezbesteko altitudea (m)	693
Administrazio eskualdea	Bizkaiko LH (%86), Arabako LH (%14))
Biogeografia eskualdea	Atlantikoa

Babestutako eremuan zortzi udalerrietako lursailak daude, horietako zazpi Bizkaian (Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza eta Mañaria) eta bat Araban (Aramaioko udalerrria).

2.2. taula. Urkiolako KBEren banaketa udalerrien arabera				
LURRALDEA	IZENA	Azalera guztira (ha)	Azalera KBEen (ha)	Udalerrri bakoitzako zenbatekoa KBEen (%)
ARABA	Aramaio	7.882	855,2	14,2
BIZKAIA	Abadiño	3.602	1.457,3	24,2
	Amorebieta-Etxano	5.877	104,3	1,7
	Atxondo	2.335	614,7	10,2
	Dima	6.233	1.574,4	26,2
	Durango	1.072	113,4	1,9
	Izurtza	436	40,3	0,7
	Mañaria	1757	1.260,9	20,9

Iturria: Udalplan 2013. Bertan egina.

Urkiolako eremuan lursail gehien duten udalerrriak Dima (KBEren % 26,2), Abadiño (% 24,2) eta Mañaria (% 20,9) dira. Kontrakoz, Durango eta Izurtzako udalerrietako lursailak txikiak dira (% 1,9 eta % 0,7, hurrenez hurren).

Mañariko udalerrriaren azaleraren % 72,7 babestutako eremuaren barnean dago; jarraian Abadiñoko udalerrria dago, haren azaleraren % 40,5 baitago Urkiolan.


KBEren kokapena eta mugaketa dokumentu honekin batera datorren ***kokapen-mapan eta ortofotoan*** dator.

2.2.– JABETZA ERREGIMENA

Urkiolako naturgunean jabetza publiko eta pribatu desberdinak daude: hainbat udaletako erabilera publikoko mendiak, toki erakundeen jabetzako erabilera askeko mendiak, lursail pribatuak (banakakoak edo taldekakoak), saroiak eta, amaitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak duela gutxi erositako mendiak.

Azaleraren % 35 titulartasun publikokoa da, eta gainerako % 62,5 titulartasun pribatukoa. Erabilera Publikoko Mendien azalera 2.134,35 ha-koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, EPMen eta ondare-mendien araubide juridikoa 3/1994 Foru Arauak arautzen du, Mendiei eta Babespeko Naturguneen administrazioari buruzkoa, martxoaren 20ko 3/2007k Foru Arauak aldatu zuena. Arabako Lurralde Historikoan Mendien 11/2007 Foru Arauak arautzen du.



Urkiolako mendi publikoen mugaketa.

KBEko ibai-ibilbideei dagokienez, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiak (JPHA, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuak aldatua) definitzen ditu jabari publiko hidraulikoa (JPH) osatzen duten ondasunak eta haren babes-helburuak. Jabari publiko horretan daude, beste ondasunez gain, ur kontinentalak —lurrazaleko zein lurrazpiko berriztagarriak, berriztatzeko denborarekiko menpe ez direnak— eta korronte naturalen ibilguak, jarraiak ala ez jarraiak. Arau horren arabera, «Korronte jarraia ala ez jarraia ohiko uhaldi maximoetan estalitako *lursaila da*».

Horretaz gain, ibilgu publikoen mugakide diren lursailen ertzek, beren luzera guztian, erabilera publikorako bost metroko zabalerako zortasun-gune bat izango dute, baita ehun metroko zabalerako polizia-gune bat ere, non lurraren eta bertan egingo diren jarduerak mugatuko diren.

Hauexek dira gunek horiek erregulatzearen helburuak: jabari publiko hidraulikoaren egoera mantentzea, ur-ekosistemen andeatzeak ekiditea, horiek hobetuz, eta uraldietan korronteen erregimena babestea, hala ibilguen ondoko lursailek ibilguak eta garraiatu-rikoko karga solidoa laminatzeko duten funtzioa hobetuz.

2.3.– BESTE BABES FIGURA BATZUK

Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana

EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planak (uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez onartua eta 2011ko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez aldatua) EAEko Hezeguneen Inbentarioa sortzea ezartzen du, non «Urkiolako zingirak» bertan gehituko liritekeen. 16 zingira dira, B1B7_01etik B1B7_16ra arteko kodeak dituztenak, eta denak Bizkaiko LHN eta KBEko muga barruan daude.

Hezegune horiek aipatutako LAPeko I. taldean daude. Bertan jasotzen dira naturagune babestuen edo Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren izendapenak eragindako hezeguneak. Ereku horien antolamendua ez da Lurraldearen Arloko Planean sartzen, baizik eta eremu bakoitzaren araudi zehatza jarraituz egingo da. EAEko hezegune garrantzitsuenen babesa bermatzeko asmoz EAEko Hezeguneen Katalogoa sortu zen, non I. eta II. taldeetako hezeguneak sartzen diren.

Espezie Mehatxatuen Kudeaketa Planak

- Ekainaren 19ko Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoan Bisoi Europarraren *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onesten duena, galzorian dagoen eta babeserako neurri bereziak behar dituen espeziea denez gero. Bisoi europarrantzat interes bereziko eremu gisa planak Ibaizabalgo goi-ibarrak sartzen ditu, KBEren barruan daudenak.
- 322/2003 Foru Agindua, azaroaren 7koa, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoan bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Plana onartzen den. Santa Engrazia edo Urkiolako erreka «interes bereziko eremu» gisa definitzen du.
- 880/2004 Foru Agindua, azaroaren 7koa, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoan Igarabaren (*Lutra*) (Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzen den. KBE ez da interes bereziko eremu kontsideratzen. Hala ere, kudeaketa-planaren aplikazio-eremua Arabako sare hidrografiko guztia da.
- 351 Foru Agindua, 2002ko ekainaren 12koa, Araban Ibai Kabuxaren (*Salaria fluviatis*) Kudeaketa Plana onartzen duena, galzorian dagoen eta babeserako neurri bereziak behar dituen espeziea denez gero. Urkiolako KBE «Banaketa potentzialeko eremuan» dago.

- 612/2001 Foru Agindua, irailaren 28koa, Araban «Bonelli arranoa» (*Hieraaetus fasciatus*) izeneko hegaztiaren Kudeaketa Plana onartzen duena. Kudeaketa Planaren zehaztapenak Arabako Lurralde Historiko osoan ezarriko dira.

Plan Hidrologikoek Babestutako Eremuen Erregistroa (BEE) (Kantauri ekialdeko eta Ebroko Mugaketa Hidrografikoa):

Kantauri Ekialdeko Mugaketa Hidrografikoaren Espainiako aldeko Plangintza Hidrologikoa, KBEren Kantauriko isurialdean dagoena, ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bidez onartu zen, eta Mugaketa Hidrografikoaren Espainiako aldeko Plangintza Hidrologikoa, aldiz, otsailaren 28ko 129/2014 Errege Dekretuaren bidez.

Plan Hidrologikoek Babestutako Eremuen Erregistroa ezartzen dute, eta bertan sartzen dira ingurune hidrikoarekin lotutako Batasunaren intereseko elementuak (habitat eta/edo espezieak) dituzten Natura 2000 Sareko espazioak eta barrunbe karstikoak dituzten BGLak. Urkiolako KBE bere osotasunean sartzen da Erregistro horretan, baita aurretik aipatutako hezeguneen LAPean dauden Urkiolako zingirak ere. Urkiolan eta aipatutako Erregistroan dauden beste elementuak honakoak dira: giza hornidurarako harguneak eta Urkiola edo Santa Engrazi ibaia. Azken horrek KBEen zehar egiten duen ibilbidea «ingurumenaren intereserako tarte»-tzat hartzen da.

2.4.- NATURA 2000 SAREKO BESTE LEKUEKIN HARREMANA

«Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarean» Urkiolako eremua gunee-espazioa eta eskualdeko korridorea da, Korridore Ekologikoen Sareko egiturazko elementuak, alegia. Gune horiek kontserbazio-intereseko habitaten eta espezieen erreserbatzat hartzen dira. Urkiola EAEko beste gunee-eremuekin loturik dago, hala nola Zadorra Sistemako Urtegiak KBE (ES2110011), Gorbeia (ES2110009), Aizkorri-Aratz (ES2120002) eta Urdaibaiko Ibai-sarea (ES 2130006).

KBEk lotura zuzena du Zadorrako urtegiekin Urkiola ibaia eta Oleta erreka bitartez. Ur-ibilbide horiek Urrunagako urtegian isurtzen dute.

Modu ez hain zuzenean, Urkiola aipatutako beste KBEkin loturik dago. Gorbeia eta Urkiola guneeak elkartzeko helburuarekin, Korridore Ekologikoen Sareak aintzakotzat hartzen du Gorbeia-Urkiola R5 eskualde-korridorea. Korridore horrek Indusi (Kantauriko isurialdea), Undabe eta Iraurgi (Mediterraneoko isurialdea) ibaietako konektibitate handiko tarteak zeharkatzen ditu. Lotura horien barruan ere sartzen da Olaetako erreka, Santa Engrazia ibaira doana. Aipatutako tarte guztiak lotura-interes bereziko ibai-tarteak kontsideratzen dira. Gune horietan ere lotura-eremuak sartzen dira, hala nola Albinagoiako pagadiko lotura-eremua, Urkiolako sektoreak Gorbeia-Aizkorri-Aratz korridorearekin lotzen dituena; eta Motxotegi eta Albinako basoak, Aratz-Aizkorri-Urkiola korridorean. R6 eskualde-korridoreak Urkiola Gorbeiarekin eta Aizkorri Aratzeko guneekin lotzen ditu. Olaeta ibaiaren lotura-tartea interesgarria da kasu honetan.

Bestetik, lotura-elementu desberdinen bidez (bereziki lotura-gune eta -korridoreak) Urkiolako eta Urdaibaiko guneak lotzen dira, R7 deituriko korridorearen bidez, alegia. Hala ere hainbat herrigunek, industriagunek eta komunikazio-azpiegiturak lotura hori oztopatzen dute, horregatik Oiz mendia proposatu zen lotura-gune gisa. Lotura horretako zabalera txikieneko eremuan, urbanizazio-maila handiko harana zeharkatzen duen Ibaizabal ibaiaren bi urertzetan, ibaien honako azpi-arro txikiek duten loturaren garrantzia ikus daiteke: Orobio, Oiz mendiko hego-ekialdeko aldean; eta Betzuengo erreka, Aramotz mendilerroko iparraldeko hegalean, Urkiolako KBEren barruan.

Urkiolako KBEk ere lotura du Aizkorri-Izarraitzekin, R10 korridorearen eta Udalaitzeko lotura-gunearen bitartez. Lotura-intereseko ibai-elementurik ez egoteak lotura hori oztopatzen du.

3.- INFORMAZIO EKOLOGIKOA

Atal honetan Europar Batasunean eta eskualdean interesekoak diren habitatei eta basa-flora eta basa-faunari buruzko informazioa jasotzen da. Kontserbatzeko elementuei buruzko ezagutza betetzen den heinean informazio hori handitu eta eguneratu egingo da Euskadiko Naturai buruzko informazio sisteman www.euskadi.eus/natura.

3.1.- HABITAT NATURALAK ETA ERDI-NATURALAK

Urkiolan identifikatutako Batasunaren intereseko 16 habitatek 3.098,8 ha-ko azalera hartzen dute, honek naturagune babestu osoaren %51,5 suposatzen duelarik. Eskualde mailako interesa duten habitatak kontuan hartuta, emaitza 3.824 ha-koa da (azalera osoaren %63,5).

Aurkitzen diren Batasunaren intereseko habitat guztiak kontserbatzeko elementuak dira. Hauetaz gain, hala ere, beste habitat mota batzuk ere kontserbatzeko elementuen artean aintzat hartzeko beharra ikusi da. Habitat hauek eskualde mailako intereseko (EI) habitat bezala deituko ditugu, KBEan garrantzizkoak baitira.

Hurrengo taulan zehazten dira Urkiolako KBEan kartografiatutako habitat bakoitzaren azalera, estaldura (KBE, EAEko N2000S, EAE), adierazgarritasuna, tokiaren balorazio orokorra bai KBEan eta baita EAEn ere, betiere eguneratutako mugaketaren arabera.

Zenbakikuntza Habitat Zuzentarauaren I. eranskinak eta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, Ondare Naturala eta Biodibertsitateari buruzkoak, ezartzen dituzten kodeei dagokie. Izartxoak (*) Lehentasunezko Habitata dela adierazten du. Batasunaren intereseko habitata ez denean, EUNIS izendapena eta kodea erabili dira.

Urkiolako naturagune babestuan «turismoak ustiatu gabeko kobak» (8310 EB KOD.) Batasunaren intereseko habitataren barnean sailkatutako 323 leize zenbatu dira eta beste 44 babes eremu periferikoan.

Leizeen kokapenaren koordenatuen datua baino ez daukagu, habitat hauek har dezaketen azaleraren estimaziorik ez dagoelarik. Leize hauetako batzuek azalera oso txikia daukatenez irudikapen kartografikoa zaila gertatzen da, leize-ahoetara mugatuko bailirateke. Beraz, arrazoi praktikoak direla eta, habitat hau ez kartografiatzea erabaki da, erlazionatutako beste habitaten barnean geratzen delarik, hala nola, malda harritsu karedunei dagokiona (8210 EB KOD.).

Habitat ezberdinen azaleko banaketa oso desberdina da. Batasunaren intereseko artean bere azalera dela eta bereizten dira 8210 habitata (malda harritsu karedunak), Urkiolan 688 ha hartzen dituena (azalera osoaren %11,44) eta 9120 habitata (pagadi azidofiloak), 513 ha hartzen dituena (%8,52).

Adierazgarritasun handiko beste habitat batzuk dira: 6170 (larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak), 9349 (*Quercus ilex*-eko basoak), 4090 (txilardi oromediterraniarra) eta 6230* (*Nardus*-dun belardiak), lehentasunezkoa azken hau, eta Urkiolako azalera osoaren %6,8, %6,61, %5,37 eta %4,67 hartzen dutenak hurrenez hurren.

Hauetaz gain, azpimarratu behar da pagadi basofilo edo neutroen azalera nabarmeba, Batasunaren intereseko habitat ez izan arren, Urkiolan ezinbesteko garrantzia dutenak. Osotasunean pagadiak dira Urkiolako baso mota adierazgarriena, guztira 1.188 ha-ko azalerarekin.

Kontserbazio egoeraren zehaztapena, adituen irizpidean oinarrituta dago, egindako landa-lanaren eta hainbat iturri bibliografikoei kontsulta egin ondoren. Erreferentzia hauek dokumentu honi erantsita datozen KBEaren elementu bereizgarri bakoitzaren kontserbazio egoerari buruzko fitxetan kontsultatu daiteke.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

3.1 taula: Urkiolako KBEan azaltzen diren intereseko habitaten azalera									
HZ/EUNIS kodea	Izendapena	Azalera KBEan (ha)	% KBEan	% EAEko N2000San ¹	% EAEn ²	Adierazgarritasuna	Tokiaren balorazio orokorra (SDF)	Kontserbazio egoera KBEn	Kontserbazio egoera EAEn
4030	Txilardi lehor europarrak	197,23	3,28	3,03	1,04	B	B	Aldekoa	Aldekoa
4090	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskadunak	323,42	5,37	4,06	1,74	A	B	Aldekoa	Aldekoa
6170	Larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak	411,02	6,83	10,52	7,65	A	B	Aldekoa	Aldekoa
6210	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastrakafaziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	131,35	2,18	6,85	1,54	B	B	Aldekoa	Desegokia
6230*	<i>Nardus</i> -dun formazio belarkarak, espezie ugariak, eremu menditarreko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditarretako) silize-substratuetan	281,15	4,67	4,58	3,51	A	A	Aldekoa	Aldekoa
6430	Lautadako orletako eta pisu menditar eta alpetarretako megaforbio eutrofo hidrofiloak	0,63	0,01	13,78	13,78	C	A	Desegokia	Desegokia

¹ Habitataren azalera Urkiolan EAEko Natura 2000 Sarean hartzen duen azaleraren aldean, Geoeuskadiko honako informazio iturriak dioenaren arabera kalkulatu (2014/10/07):
 CT_LUC_ZEC_25000_ETRS89.shp; ZEPA_ES21_25000_ETRS89.shp; HAB_INT_COMUNIT_2012_10000_ETRS89.shp;

² Habitataren azalera Urkiolan EAEn hartzen duenaren aldean, Geoeuskadiko honako informazio iturriak dioenaren arabera kalkulatu (2014/10/07):
 CT_LUC_ZEC_25000_ETRS89.shp; ZEPA_ES21_25000_ETRS89.shp; HAB_INT_COMUNIT_2012_10000_ETRS89.shp; CB_CAPV_5000_ETRS89.shp (limite de la CAPV).

2016ko apirilaren 21a, osteguna

3.1 taula: Urkiolako KBEan azaltzen diren intereseko habitaten azalera									
HZ/EUNIS kodea	Izendapena	Azalera KBEan (ha)	% KBEan	% EAEko N2000San ¹	% EAEko EAEn ²	Adierazgarritasuna	Tokiaren balorazio orokorra (SDF)	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
6510	Altitude baxuetako segalarre txiroak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	20,08	0,33	1,10	0,04	D			Desegokia
7140	Zohikaiztegi azidofiloak/esfagnodiak	5,06	0,08	4,13	3,42	B	A	Desegokia	Desegokia
8130	Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak	98,13	1,63	46,61	42,84	B	A	Aldekoa	Aldekoa
8210	Landaredia kasmofitikodun malda arrokatsu kaltzikolak	688,46	11,44	22,06	18,53	A	A	Aldekoa	Desegokia
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	-	-	-	-	A	A	Aldekoa	Desegokia
9120	Pagadi azidofilo atlantiarrak, <i>Ilex</i> oihanpedunak, eta batzuetan <i>Taxus</i> -dunak (<i>Quercion robori-petraeae</i> o <i>Ilici-Fagenion</i>)	512,95	8,52	3,56	2,16	A	A	Desegokia	Txarra
9180*	Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (<i>Tilio-Acerion</i>)	20,54	0,34	4,82	3,28	C	C	Aldekoa	Aldekoa
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> -eko ibar basoak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	22,11	0,37	1,84	0,50	B	B	Txarra	Txarra
9230	Harizti galaikoportugesak, <i>Quercus robur</i> eta	0,52	0,01	0,01	0,01	D			Desegokia

2016ko apirilaren 21a, osteguna

3.1 taula: Urkiolako KBEan azaltzen diren intereseko habitaten azalera									
HZ/EUNIS kodea	Izendapena	Azalera KBEan (ha)	% KBEan	% EAEko N2000San ¹	% EAEn ²	Adierazgarritasuna	Tokiaren balorazio orokorra (SDF)	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
9340	<i>Quercus pyrenaica</i> -rekin								
	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> -ko basoak	386,15	6,41	3,88	1,61	B	C	Desegokia	Txarra
Batasunaren intereseko habitatak guztira		3.098,79	%51,47	%5,05	%1,78				
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa	674,77	11,21	4,34	3,23				
G1.86	<i>Quercus robur</i> nagusitzen deneko baso azidofiloa	37,86	0,63	4,35	1,47				
G1.91	Urkidia	13,29	0,22	9,52	2,84				
Batasunaren zein eskualde mailako interesa duten habitatak guztira		3.824,72	%63,53	%2,62	%0,53				

(*) Lehenetsunezko habitata.

3.2.– FLORA

Urkiolako esparruan mehatxupeko, endemiko edo galzorian dauden landaredi espezie ezberdinak aurkitzen dira, Europa edota eskualde mailako interesa dutenak.

Urkiola ES2130009 BIL aukeratzeko egindako datuen inprimaki normalizatuak, eta haren berrikuspenak eta eguneratzeak, azaltzen du naturagune honetan 92/43/EEE Habitat Zuzentarauren II. eranskineko flora-espezie bat badagoela: *Narcissus pseudonarcissus* gr. *nobilis*. Inprimakiaren ondorengo eguneratzeetan aipatutako Zuzentarauren II. eranskinean sartutako beste hiru espezie ere gehitu dira: *Narcissus asturiensis*, *Woodwardia radicans* eta *Trichomanes speciosum*. *Woodwardia radicans* eta *Trichomanes speciosum* ez dira Urkiolan aurkitu, Belatxikietatik datozen hurbileko errekaetara badagoen arren, KBEren mugetatik kanpo.

Narcissus pseudonarcissus gr. *nobilis*. «Bakana» kategorian sailkatuta dago Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK). Eskuragarri dagoen informazioaren arabera espezie honek orderkaritza nabarmena dauka Urkiolan.

Narcissus asturiensis

Urkiolako KBEen Leungane eta Aramotzen azaltzen da. Bizkaiako kareharrizko mendietan espezie nahiko ugaria da: Orduña, Gorobel mendilerroa, Trianoko mendiak, Pagasarri, Itxina, Arraba, Gorosteta. Ez dirudi kontserbazio arazo garrantzitsurik duenik. EMEKean «Interes Berezikoa» kategorian sailkatuta dago.

Narcissus pseudonarcissus gr *nobilis*-*varduliensis*

Talde honek *N. nobilis*; *N. varduliensis* eta *N. pallidiflorus* barneratzen ditu, 3 espezieak EAEn aurkitzen direlarik. *N. nobilis* eta *N. varduliensis* Iberiar Penintsularen iparraldeko endemismoak dira eta bere kokapen taxonomikoa ez dago garbi botaniko ezberdinek mikroespezie, azpi-espezie edo barietatetzat jotzen baitituzte.

Narcissus nobilis EAEko mendebaldeko erdian bizi da, Gorbeia mendiak ezartzen duelarik bere ekialdeko muga. Silizikola bezala jokatzen du eta baso azidofilo, mendixilardi, mendiko erreken ertzetan eta istingetan hazten da.

N. varduliensis EAEko ekialdeko erdian bizi da, Gorbeiatik Aralar eta Entzia-Urbasaraino, banaketa eremuko hegoaldeko muga Izkizen kokatzen delarik. Humus ugariko erlaitzetan eta karstaren pitzaduretan, ur-ibilguen ondoko alubioi lurzoruetan edo pagadi eta harizti batzuetako lurzoru freskoetan hazten da.

Bestalde, *N. pallidiflorus* Europako eremu atlantiarreko endemismoa da, Asturiasetik Britainiaraino hedatzen delarik. Populazio ugariak Euskadin azaltzen dira eta honen iparraldeko erdian nahiko ohikoa da larre-heze, zohikaiztegi eta ur-ibilguetan.

Urkiolan *N. varduliensis* Anboto, Asuntze, Saibigain, Leungane, Mugarra eta Zabalandin aurkitu da. *N. varduliensis* espezieko populazioen hurbileko eremu silizikoetan *N. varduliensis* eta *N. pallidiflorus* taxonen bitarteko ezaugarriak dauzkaten landareak agertzen dira.

Mehatxu nagusia landareak biltzea da, lilipen lore ikusgarriengatik. Kasu zehatz batzuetan, mendi-bideak irekitzeak edo basogintza lanek eragina izan dezakete. Urkiolan pagoak landatu dira lilipa hauen populazio baten gainean.

Habitat Zuzentarauaren II. eranskineko espezieez gain, Urkiolako esparruan eskualde mailako edo tokiko interesa duten landare espezie asko aurkitzen dira, endemikoak direlako zein mehatxupehan daudelako. Espezie gehienak KBEko harkaiztietan hazten dira, Anboton batez ere. Espezie hauei eragin diezaieketen arazoak gehiegizko abeltzaintza, gehienbat toki helezinetara iristeko gai diren ahuntzak direla eta, eta mendizaleek eragiten dituzten zapaltze edota bilketak, batez ere *Aster* edo *Narcissus* bezalako espezie ikusgarrien kasuan.

Dryopteris submontana

Altzania, Aizkorri, Aralar eta Urkiolako mendilerroetan baino ez da aurkitzen. Bizkaian Anboton kokatutako populazioa ezagutzen da soilik.

Behar ekologiko oso zorrotzak dituen espezie bat da: inguru heze eta freskoak dauzkan tokietan hazten da beti. Gune gehienak irisgarritasun oso urriko eta giza-asaldatze zuzenetik salbu dauden lekuetan agertzen dira: kareharrizko harkaiztien pitzadurak, leizeen sarrerak, dolinen hondoetan, etab.

Gypsophila repens

EAEn Urkiolako KBEren barnean azaltzen da, Anboto mendiko kareharrizko gailurrean, populazio nahiko ugaria osatuz.

Aipamenak daude Kantabria eta Kodes mendilerroetan. Lehenengoan ez da azkenaldian topatu. Bigarrenean mendi-bide baten eraikuntza zela eta aurkitu zen duela urte batzuk. Litekeena da haziak Nafarroako populazio oso hurbileko batetik etortzea.

Ophioglossum vulgatum

Urkiolako KBEen Belatxikietan topatu da. Beste populazio batzuk ere ezagutzen dira KBEtik kanpo honen mugatik gertu.

Espezie honek EAEn banaketa sakabanatua eta bakana dauka, populazioak hiru lurralde historikoetan agertzen direlarik. Belardi hezeetan hazten da: iturburuak, ihidiak, haltzadiak, haran-hondoak, etab. Kontserbaziorako arrisku nagusia, hain zuzen, espeziea aurkitzen den habitaten hauskortasunean datza.

Tozzia alpina

Europako mendi garaieneko landarea da, estai azpi-alpetar eta alpetarrean hazten dena. EAEn oso bakana da eta bere presentzia egungoa baino klima hotzagoko iragan-aroetako testigantza bizitzat hartzen da.

Ordunte, Gorbeia, Aizkorri-Aratz eta, Urkiolako KBEen, Anboton aurkitu izan da, nahiz eta Sestaoko Natur Zientzien Elkarteak egindako azken azterketan, 2007an, EMEKeko landareen Bizkaiko populazioen kartografia lanaren barnean, ez den bere presentzia egiaztatu. Gerta daiteke irisgarritasun urriko megaforbioetan aurkitzea. Toki helezinetan bizi denez, ez dirudi mehatxu zuzen garbirik duenik.

Allium victorialis

Espezie hau Urkiolako KBen Anboton aipatua izan da, gailurretik gertu, 1.100 m-ko altitudetan. Hala ere, Sestaoko Natur Zientzien Elkarteak egindako EMEKeko landareen Bizkaiko populazioen berrikuste eta 1:5.000 eskalako kartografia lanetan (2005., 2006. eta 2007. urteetan), ez da espezie hau topatu. Dena dela, lan honen egileek ez dute espeziearen presentzia baztertzen eta Anbotoko ipar-aurrea –hemen izan zen aipatua lehenago- aztertzeko zailtasunak eta landa-lana eginiko garaia eta landarearen loraldia ez zetozeela bat adierazten dute.

Berberis vulgaris

KBen Mugarra, Anboto eta Untzilaitxen azaltzen da. Hain zuzen, Untzilaitxeko hego-aurrean daude esparruko populazio hoberenak. Aziendak populazio hauek kimatzen ditu etengabe eta nahiz eta ez dirudien hauek akatzeko arriskua dagoenik, bere hedapena nabarmen oztopatu dezake.

EAEn banaketa sakabanatua dauka eta inguru ezberdinetan garatzen da. Alde batetik Durangaldeko eta Gorbeia mendietan kareharrietan hazten da; bestetik, Ebro ibaiaren terrazetan legar eta hondar gainean hazten da.

Armeria pubinervis

Atlantiar endemismo menditarra, Bizkaiko Golkoan bildua, bere populazio gehienak EAEn kokatzen dira.

Urkiolan Anbotoko gailur osoan azaltzen da, ipar-aurreko pareta helezinetan eta baita hego-aurreko batzuetan ere. Beste toki batzuetara heda litezkeen ale bakanak inguruan bazkatzen diren ardiak eta batez ere ahuntzen eraginpean geratuko lirateke.

Ez dirudi arrisku nabaririk eragiten diotenik, gehiegizko abeltzaintzarekin erlazionatutakoak kenduta.

Aster alpinus

Europako mendi garaienetatik hedatzen den landare eurosiberiarra da. Urkiolako KBen *Aster alpinus* Mugarra eta Anboton aurkitu da, azken honetan, Zabalandiko mendilepoan. Mendizaleak asko ibiltzen dira bere habitatean barna eta hau dela eta, lore ikusgarria ematen duenez, bilketa mehatxuetako bat da. Azienda, ahuntzak batik bat, populazio hauengan eragina izan dezakete ere bai.

Pinguicula lusitanica

Atlantiar banaketa duen eta klima heze eta ez oso hotzei lotutako espezia da, zohikaiztegi, iturburu eta ura darion lurzoru silizeoetan hazten dena. Leku hauen lehortzea eta aziendak eragindako zapalketa dira espeziaren mehatxu nagusiak.

Nahiz eta EAEn populazio kopuru handia zenbatzen diren, tamaina txikikoak dira, beraz espezie honen benetako okupazio eremua nahiko mugatua da.

Veratrum album

Urkiolako KBEn Anboton baino ez da topatzen. Aziendarentzako pozoitsua denez eta begetatiboki ugaltzeko gai denez, ez dirudi espezie hau arriskupean dagoenik.

Huperzia selago

Anboton topatua lehenago, aipatutako Sestaoko Natur Zientzien Elkarteko lanean ez da espeziea aurkitu. Lan honetan adierazten denez, esparru honetan azaltzekotan oso landare bitxia izango litzateke kareharrizko mendia baita.

EAE mailan ez dago populazioen kopuru edo tamainaren murriztapenei buruzko daturik. Aitzitik, habitat potentzialen laginketek espezie hau uste baino hedatuago dagoela azalerratu dute.

Ilex aquifolium

Zuhaitz hau oso hedatua dago EAeko iparraldeko erdian, urriagoa izanik hegoaldean. KBEn espezie ugaria da: Asuntze, Anboto, Alluitz, Urkiolamendi...

Taxus baccata

Espezie honen baso-habitategen lurraldearen zati handi batean jasan duten narriadura bada ere, haginaren hainbat populazio mantentzen dira oraindik, baina gehienetan ale gutxi eta barreiatuetaz osatuak dauden. EAEn, lurraldeko mendilerro ia guztietan sakabanatuta hedatzen da, nahiz eta, salbuespenak kenduta, ez dituen populazio ugariak osatzen.

Ondoko taulan Urkiolan azaltzen diren Batasunaren zein eskualde mailako interesa duten landare espezieak jasotzen dira. Taulan espezieak Habitat Zuzentzaurean eranskin ezberdinetan sartuta dauden, Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoan (CEEA) eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan (EMEK) sailkatuta dauden, espeziearentzako Kudeaketa Plana badagoen eta, azkenik, kontserbazio egoeraren balorazioa isladatzen dira.

3.2. taula: Urkiolako KBEn azaltzen diren intereseko landare espezieak							
HZ/IPNI kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	HZ eranskina	LESRPE /CEEA	EMEK	Kudeaketa Plana EAEn	Kontserbazio egoera KBEn
1865	Lilipa txikia	<i>Narcissus asturiensis</i>	II	*	IB	-	Aldekoa
1857	Lilipa	<i>Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis</i>	II	*	B	-	Aldekoa
13130		<i>Dryopteris submontana</i>			K	-	Ezezaguna
11390		<i>Gypsophila repens</i>			K	-	Txarra
12380		<i>Tozzia alpina</i>			K	-	Ezezaguna
10667		<i>Ophioglossum</i>			B	-	Txarra

3.2. taula: Urkiolako KBEn azaltzen diren intereseko landare espezieak

HZ/IPNI kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	HZ eranskina	LESRPE /CEEA	EMEK	Kudeaketa Plana EAEn	Kontserbazio egoera KBEn
		<i>vulgatum</i>					
12730		<i>Allium victorialis</i>			B	-	Ezezaguna
11098	Isuski-garratza	<i>Berberis vulgaris</i>			B	-	Desegokia
16656		<i>Armeria pubinervis</i>			B	-	Desegokia
10809		<i>Aster alpinus</i>			B	-	Txarra
11985		<i>Pinguicula lusitanica</i>			B	-	Txarra
10788	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>			IB	-	Aldekoa
10717	Hagina	<i>Taxus baccata</i>			IB	-	Desegokia
12715		<i>Veratrum album</i>			IB	-	Ezezaguna

Habitat Zuzentarauaren (HZ) kodea adierazten da II. eranskinean sartuta dauden espezieen kasuan. Gainontzekoetan IPNI kodea erabili da.

HZ: Habitat Zuzentaraua;
 IPNI: International Plant Names Index, LSID
 LESRPE: Listado Español de Especies en Régimen de Protección Especial;
 CEEA: Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoa (Catálogo Español de Especies Amenazadas);
 EMEK: Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa;
 GA: Galtzeko Arriskuan;
 K: Kaltebera;
 B: Bakana;
 IB: Interes Berezikoa.
 Kudeaketa Planak: A: Araba; B: Bizkaia; G: Gipuzkoa

3.3.- FAUNA

Jarraian Urkiolan dauden Batasunaren zein eskualde mailako interesa duten animalia espezieak zerrendatzen dira. Espezie hauek kontuan hartzen dituzten eranskinak eta zerrenda eta katalogo ezberdinetan daukaten sailkapena adierazten da.

Fauna-espezieen kontserbazio-egoera jakiteko hainbat datu-iturrietan oinarritu gara eta horiek kontserbazio-egoerako fitxetan kontsulta daitezke. Urkiolako naturagune babestuan agerpen adierazgarria duen elementu bereizgarri bakoitzak fitxa bat du.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

3.3. taula: Urkiolako KBen azaltzen diren intereseko animalia espezieak

HZ/HeZ kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eranskina	HeZ eranskina	LESRPE (*) / CEEA	EMEK	Kudeaketa-plana EAEn	Kontserbazio egoera KBen
UGAZTUNAK									
1355	Igaraba	<i>Lutra lutra</i>		II-IV		*	GA	A	(1)
2616	Muxar grisa	<i>Glis glis</i>					K	-	Ezezaguna
1357	Lepahoria	<i>Martes martes</i>		V			B	-	(1)
1358	Ipurtatsa	<i>Mustela putorius</i>		V			IB	-	Ezezaguna
2632	Erbinude zuria	<i>Mustela erminea</i>				*	IB	-	(1)
5560	Mendebaldeko ur-arratoia	<i>Arvicola sapidus</i>						-	Txarra
6110	Basakatua	<i>Felis silvestris</i>		IV		*	IB	-	(1)
5603	Elur-lursagua	<i>Chionomys nivalis</i>					B		(1)
1303	Ferra-saguzar txilia	<i>Rhinolophus hipposideros</i>		II-IV		*	IB	-	Ezezaguna
1321	Geoffroy saguzarra	<i>Myotis emarginatus</i>		II-IV		K	K	-	Ezezaguna
1309	Pipistrello txikia	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>		IV		*	IB	-	Ezezaguna
2016	Kuhl pipistrelloa	<i>Pipistrellus kuhlii</i>		IV		*	IB	-	Ezezaguna
5817	Ferra-saguzar handia	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>		II-IV		K	K	-	Ezezaguna
6098	Baratze-saguzarra	<i>Eptesicus serotinus</i>		IV		*	IB	-	Ezezaguna
1310	Scheibers saguzarra	<i>Miniopterus schreibersii</i>		II-IV		K	K	-	Ezezaguna
HEGAZTIAK (I. eranskina)									
A072	Zapelaiz liztorjalea	<i>Pernis apivorus</i>	R		I	*	B	-	Desegokia
A073	Miru beltza	<i>Milvus migrans</i>	nm		I	*		-	Desegokia
A076	Ugatza	<i>Gypaetus barbatus</i>	A		I	GA	GA	-	(1)
A077	Saizuria	<i>Neophron percnopterus</i>	N		I	K	K	-	Desegokia
A078	Sai arrea	<i>Gyps fulvus</i>	R		I	*	IB	-	Desegokia
A080	Arrano sugezalea	<i>Circaetus gallicus</i>	nm		I	*	B	-	Txarra
A082	Mirotz zuria	<i>Circus cyaneus</i>	mi		I	*	IB	-	Ezezaguna
A092	Arrano txikia	<i>Hieraaetus pennatus</i>	nm		I	*	B	-	Desegokia
A099	Zuhaitz-belatza	<i>Falco subbuteo</i>	m			*	B	-	Desegokia
A103	Belatz handia	<i>Falco peregrinus</i>	R		I	*	B	-	Ezezaguna
A155	Oilagorra	<i>Scolopax rusticola</i>	mi		II/III			-	Ezezaguna

2016ko apirilaren 21a, osteguna

3.3. taula: Urkiolako KBen azaltzen diren intereseko animalia espezieak

HZ/HeZ kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eranskina	HeZ eranskina	LESRPE (*) / CEEA	EMEK	Kudeaketa-plana EAEn	Kontserbazio egoera KBen
A212	Kukua	<i>Cuculus canorus</i>	Nm					-	Aldekoa
A224	Zata arrunta	<i>Caprimulgus europaeus</i>	nm		I	*	IB	-	Ezezaguna
A226	Sorbeltz arrunta	<i>Apus apus</i>	Nm					-	Desegokia
A229	Martin arrantzalea	<i>Alcedo atthis</i>	MI		I	*	IB	-	Ezezaguna
A233	Lepitzulia	<i>Jynx torquilla</i>	Nm			*	IB	-	Desegokia
A251	Enara arrunta	<i>Hirundo rustica</i>	Nm			*		-	Desegokia
A253	Enara azpizuria	<i>Delichon urbicum</i>	Nm			*		-	Desegokia
A256	Uda-bxirta	<i>Anthus trivialis</i>	N			*		-	Aldekoa
A257	Negu-bxirta	<i>Anthus pratensis</i>	MI			*		-	Aldekoa
A277	Ipurzuri arrunta	<i>Oenanthe oenanthe</i>	NM			*		-	Aldekoa
A284	Durdula	<i>Turdus pilaris</i>	mi		II/2			-	Ezezaguna
A286	Birigarro hegogoria	<i>Turdus iliacus</i>	MI		II/2			-	Ezezaguna
A300	Sasixori arrunta	<i>Hippolais polyglotta</i>	N			*		-	Desegokia
A302	Ota-bxinboa	<i>Sylvia undata</i>	r		I	*		-	Ezezaguna
A309	Sasi-bxinboa	<i>Sylvia communis</i>	N					-	Ezezaguna
A310	Baso-bxinboa	<i>Sylvia borin</i>	NM			*		-	Aldekoa
A319	Euli-bxori grisa	<i>Muscicapa striata</i>	M			*		-	Desegokia
A322	Euli-bxori arrunta	<i>Ficedula hypoleuca</i>	M			*	B	-	Ezezaguna
A338	Antzandobi arrunta	<i>Lanius collurio</i>	nm		I	*		-	Txarra
A346	Belatxina mokogoria	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	R		I	*	IB	-	Ezezaguna
A358	Elur-txonta	<i>Montifringilla nivalis</i>	i			*		-	Ezezaguna
A365	Tarina	<i>Spinus spinus</i>	rI			*	IB	-	Ezezaguna
A373	Mokolodia	<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	mi			*	IB	-	Ezezaguna
ANFIBIO ETA NARRASTIAK									
2353	Uhandre alpetarra	<i>Ichthyosaura alpestris</i>				K	K	-	Ezezaguna
1174	Uhandre marmolairea	<i>Triturus marmoratus</i>		IV		*		-	Desegokia
1209	Baso-igel jauzkaria	<i>Rana dalmatina</i>		IV		K	K	-	(2)
1016	Baso-igel iberiarra	<i>Rana iberica</i>		IV		*	IB	-	Ezezaguna

2016ko apirilaren 21a, osteguna

3.3. taula: Urkiolako KBen azaltzen diren intereseko animalia espezieak

HZ/HeZ kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eranskina	HeZ eranskina	LESRPE (*) / CEEA	EMEK	Kudeaketa-plana EAEn	Kontserbazio egoera KBen
1259	Scheiber muskerra	<i>Lacerta schreiberi</i>		II-IV		*	IB	-	(2)
5179	Musker berdea	<i>Lacerta bilineata</i>		IV		*		-	Ezezaguna
5910	Sugandila bizierrulea	<i>Zootoca vivipara</i>				*		-	Ezezaguna
2428	Sugandila arrea	<i>Podarcis liolepis</i>						-	Ezezaguna
1256	Horma-sugandila	<i>Podarcis muralis</i>		IV		*		-	Ezezaguna
2432	Zirauna	<i>Anguis fragilis</i>				*		-	Ezezaguna
1283	Iparraldeko suge leuna	<i>Coronella austriaca</i>		IV		*		-	Ezezaguna
2467	Suge biperakara	<i>Natrix maura</i>				*		-	Ezezaguna
2469	Suge gorbataiduna	<i>Natrix natrix</i>				*		-	Ezezaguna
1297	Seoane sugegoria	<i>Vipera seoanei</i>		IV				-	Ezezaguna
ARRAINAK									
5292	Loina	<i>Parachondrostoma miegii</i>		II		GA		-	(2)
ORNOGABEAK									
1007	Quimper barraskiloa	<i>Elona quimperiana</i>		II-IV		*		-	Aldekoa
1065	Zingira-dontzeila	<i>Euphydrys aurinia</i>		II		*		-	Ezezaguna
1083	Arkanbelea	<i>Lucanus cervus</i>		II		*	IB	-	Ezezaguna
1087	Kakalardo adarluze alpetarra	<i>Rosalia alpina</i>		II-IV		*	IB	-	Ezezaguna
1092	Ibai-karramarroa	<i>Austropotamobius italicus</i> **		II,V		K	GA	-	Txarra

Oharra: (1) KBen aipatu ohi izan diren espezieak, azken urteetan hauen presentzia baieztatu gabe dagoena.
(2) KBen noizbehinka agertzen diren edo adierazgarriak ez diren espezieak.

HZ: Habitat Zuzentaraua; HeZ: Hegaztien Zuzentaraua

A: arriskuan; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezikoa;

Kudeaketa Planak: A: Araba; B: Bizkaia; G: Gipuzkoa

A: arriskuan; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezikoa;

*: Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrenda.

**zerrenda desberdinetan bere katalogazioak *Austropotamobius pallipes*-i egiten dio erreferentzia

Eredu-legenda	
B	Bertako arrunta edo moderatua
b	Bertako bakana edo bitxia
H	Habiagile arrunta edo moderatua
h	Habiagile bakana edo bitxia
M	Migratzaile arrunta edo moderatua
m	Migratzaile bakana edo bitxia
N	Negutar arrunta edo moderatua
n	Negutar bakana edo bitxia eta/edo ezohikoa
U	Ustekabekoa
I	Ihes-egite edo askatzeetatik edota basa-populazioak dituzten espezieetatik etorria
(*)	Dagokion Bitxitasun Batzordeak homologatzeko zain dagoen edo Batzordeari bidali gabeko bitxitasuna
h?	Habia egitea zalantzazkoa edo berretsi gabea
n?	Berretsi gabeko balizko negu-pasa

Urkiola, mendi-ingurua EAEn hobekien mantendutako multzoetako bat da eta baita inguru hauen adierazgarrietakoa ere, basoko eta harkaiztietako hegaztien komunitate ondo egituratuarekin.

Azpimarragarriena, dudarik gabe, harrapari harkaiztarren komunitatea da, sai arrearen (*Gyps fulvus*), belatz handiaren (*Falco peregrinus*) eta saizuriaren (*Neophron percnopterus*) populazio finkatuekin; aipatzekoa da azken honen bakantasuna bai EAEn eta baita estatu mailan ere. Arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) eta ugatza (*Gypaetus barbatus*) esparrutik dabilta, erratiko moduan edo erregulariki bere bizi-eremuan sartuz, baina ugalketa frogarik gabe. Aldi berean, harkaitz-zozo gorriaren (*Monticola saxatilis*) eta harkaitz-zozo urdinaren (*Monticola solitarius*) populazio finkatuak ere badaude.

Gainera, baso-harraparien komunitate ondo egituratua badago, honako espezie hauen umatze-populazioak azaltzen direlarik: zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*), zuhaitz-belatza (*Falco subbuteo*), gabirai arrunta (*Accipiter nisus*), aztorea (*Accipiter gentilis*), miru beltza (*Milvus migrans*), arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) eta arrano sugejalea (*Circaetus gallicus*).

Larre eta mendi-baxuko inguru irekietan, gailurretako larreak eta trantsizio faseak (otadi, txilardi, iratzediak...) barne, ota-txinboa (*Sylvia undata*), mirotz zuria (*Circus cyaneus*) eta zata arruntaren (*Caprimulgus europaeus*) umatze- populazioak daudelarik. Belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*) eta mokogorriak (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) harkaiztietan egiten dute habia eta mendi-larreetan elikatzen dira, errobiak (*Corvus corax*) bezala. EAEn duen banaketa murriztua dela eta, aipagarria da mendi-soilguneetako paseriformeen komunitatea: mendi-tuntuna (*Prunella collaris*), ipurzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), mendi-txirta (*Anthus spinoletta*), pitxartxar nabarra (*Saxicola rubetra*) eta zozo paparzuriaren (*Turdus torquatus*) populazio finkatuak badaude. Elur-txonta (*Montifringilla nivalis*) eta elur-berdantza (*Plectrophenax nivalis*) neguko bisitariak dira.

Zenbait taldetako eskuragarri dagoen informazioa osatugabea dago, beraz populazio batzuen egoera eta joera ezezagunak dira KBEn, batez ere saguzar, anfibio, narrasti eta ornogabeei (ibai-karramarroa salbu) dagokionez. Hau dela eta, ezin daiteke hauen kontserbazio egoera baloratu.

Saguzarrak alde batera utzita, Urkiolako ugaztun gehienak EAEn banaketa zabala duten espezieak dira. Urkiolan aipatu diren beste espezie batzuk lepahoria, bisoi europarra, igaraba, basa-katua eta Scheiber muskerra dira; azkenaldian ez da espezie hauen presentzia baieztatu Urkiolan.

4.- KBEko ELEMENTU GAKOAK

Atal honetan kontserbazio-lehentasanak ezartzen dira, hau da, kontserbazio- eta kudeaketa-neurri aktiboak hartzeko beharra duten habitat eta/edo espezie garrantzitsuenen hautaketa egin da.

Lehenespen horiek egin ahal izateko «elementu gakoak» identifikatu behar izan dira, beste modu batera esanez, kudeatuko diren kontserbazioaren xede diren taldeak. Talde horiek egoera onean mantentzen badira, kontserbazioaren xede diren elementu guztien egoera ona bermatuko da.

4.1.- KBEko ELEMENTU GAKOAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen eremuaren kudeaketarako elementu gakoak hautatzeko irizpideak:

- Eskualde, estatu eta Batasun mailan Natura 2000 Sarean oso garrantzitsuak diren habitat edo espezieak, eta horien kontserbazio-egoera kaltetuak kudeaketa-neurri aktiboak behar izatea.
- Neurriak ez hartuz gero, kaltetuta daudela edo egon daitezkeela erakusten duen informazio tekniko edo zientifikoa duten habitat edo espezieak.
- Gizakien eraginaren menpe dauden habitat edo espezieak, eta kontserbazio-egoera egoki bat lortzeko edo mantentzeko arautu edo bultzatu behar direnak.
- Taxonomia-taldeen eta ekosistemen osasunaren adierazle diren eta /edo biodibertsitatean dauden presioak detektatzeko erabilgarriak diren habitat edo espezieak eta, ondorioz, monitorizazio-esfortzu zehatza eskatzen dutenak.
- Maneiatuz gero, beste habitat edo basa-espezieengan edota eremuaren osotasun ekologikoarengan ondorio positiboak izango dituzten habitat edo espezieak.

Elementu gako bakoitzarentzat kontserbazio-xede zehatzak proposatu dira, eta xede horiek lortzeko erregulazio batzuk dakartzate.

Dokumentu honetan, «erregulazio» kontserbazio-helburuak lortzeko behar diren betekizun, debeku, baldintza eta irizpiden bilduma da.

4.2.- URKIOLAKO ELEMENTU GAKOAK

Irizpide horiek jarraituz, Urkiolako KBEko honako elementu gakoak definitu dira:

1. LEIZEAK, HARKAIZTIAK ETA HAUEI LOTUTAKO HABITAT ETA ESPEZIEAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- Landaredia kasmofitikodun malda arrokatu kaltzikolak: 8210 EB KOD.
- Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak: 8130 EB KOD.
- Larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak: 6170 EB KOD.
- Lautadako orletako eta pisu menditar eta alpetarretako megaforbio eutrofo hidrofiloak: 6430 EB KOD.
- Turismoak ustiatu gabeko kobak: 8310 EB KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Hegazti harkaiztarrak: saizuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*) y belatz handia (*Falco peregrinus*).
- Saguzarrak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros* y *Miniopterus schreibersii*.

Arrazoiak

- Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) I. eranskineko Batasunaren intereseko habitatak. Urkiola honako habitat hauen kontserbaziorako funtsezko lekutzat hartzen da: «Mendiko megaforbioak» (6430 EB KOD.), «Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak» (8130 EB KOD.), «Kareharrizko harkaiztiak» (8210 EB KOD.) y «Turismoak ustiatu gabeko kobak» (8310 EB KOD.).
- Urkiola, mendi-ingurua EAEn hobekien mantendutako multzoetako bat da eta baita inguru hauen adierazgarrietakoa ere, basoko eta harkaiztietako hegaztien komunitate ondo egituratuarekin. Anboto eta Mugarako harkaiztiak dira aipagarrienak, bertan Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartutako hainbat flora eta fauna espezie ezberdin aurkitzen direlako. Urkiola bereizten duten habitatak dira eta izaera paregabe eta nabarmena ematen diote.
- Harkaiztiari lotutako habitat multzoak (leizeak kontuan hartu gabe, hauen azaleraren daturik ez bait dago) 1.198 ha hartzen dituzte, naturagune babestuen %19,77.
- Harkaiztiak bereziki garrantzitsuak dira hegazti harkaiztarrentzat, besteak beste sai arrea (*Gyps fulvus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta saizuriarentzat (*Neophron percnopterus*). Hauek guztiak naturagunean egiten dute habia eta Hegaztien Zuzentarauaren (2009/147/CE) I. eranskinean sartuta daude.
- Urkiola, Hegazti Nekrofagoentzako interes bereziko eremua eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen elikadurarako babes eremu izendatu da EAeko Hegazti Nekrofagoen Kudeaketa Plan Bateratuan, gaur egun izapidetze prozesuan dagoena.
- Urkiolako harkaiztietan endemikoak edo bakanak diren flora espezieak identifikatu dira, hala nola, *Aster alpinus*, *Dryopteris submontana*, *Armeria pubinervis*, *Berberis vulgaris*, *Gypsophila repens*, *Taxus baccata* edo *Veratrum album*, guztiak Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sailkatuak.

- Hartxingadiak habitat oso ezegonkorak dira eta labarretatik erortzen diren blokeen metaketa grabitazionalaren mende daude, labarrak maila oso ezberdinean zatikatu eta birrintzen direlarik. Landaredi estaldura oso urria da baina flora oso espezializatua da, inguru dinamiko horretara egokitutakoa.
- Mendiko megaforbioen (6430 EB KOD.) banaketa oso murriztua da eta habitat honetan balio ekologiko handiko eta banaketa mugatuko landare espezieak hazten dira. Hauetako landare espezie asko Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartuta daude.
- Urkiolako naturagune babestuan 323 leize zerrendatu dira, «turismoak ustiatu gabeko kobak» (8310 EB KOD.) habitata bezala sailkatuak. Gainera babes eremu periferikoan 44 leize daude, Anboto, Aramotz eta Mugarra eta Eskuagatz mendiguneen artean banatuak.
- Habitat hau garrantzi handikoa da esparruan agertzen diren saguzarrentzako (hauen artean aipatzekoak dira *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros* eta *Miniopterus schreibersii*, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan eta EAeko Katalogoan sartuak), hala nola, ornogabe troglobioentzako; talde honi buruz ez jakite handia dago.
- Baltzolako koba ferra-saguzar mediterraniarrak (*Rhinolophus euryale*) birkolonizatzeko leku garrantzitsua da.

2. BASO NATURAL ETA ERDINATURALAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- Pagadi azidofilo atlantiarrak, *Ilex* oihanpedunak, eta batzuetan *Taxus*-dunak (*Quercion robripetraeae* o *Illici-Fagenion*): 9120 EB KOD.
- Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*): 9180* EB KOD.
- *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*-ko basoak: 9340 EB KOD.

Eskualde mailako interesa duten habitatak:

- Pagadi basofilo edo neutroa: G1.64 EUNIS KOD.
- *Quercus robur* nagusitzen deneko baso azidofiloa: G1.86 EUNIS KOD.
- Urkidia: G1.91 EUNIS KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Saguzarrak: *Eptesicus serotinus*, *Myotis emarginatus*.
- Baso-hegaztiak: arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) eta zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*).
- Ornogabeak: koleoptero saproxilikoak (*Lucanus cervus*, *Rosalia alpina*), tximeletak (*Euphydryas aurinia*), Quimper barraskiloa (*Elona quimperiana*).

Arrazoiak

- Baso hauetako batzuk Batasuneko intereseko habitatak dira, Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) I. eranskinean sartuak: pagadi azidofiloak, amilburupeko basoak eta artadiak.
- Urkiolan Batasuneko intereseko basoen azalera 920 ha-koa da gutxi gora-behera, honek naturagune babestuen azaleraren %15 suposatzen du. Baso hauei, Urkiolan funtsezkotzat jo diren gainontzekoak gehituz gero, basoek estalitako azalera 1.646 ha-koa da guztira, esparruaren %27.

- Urkiola «pagadi azidofilo atlantiarrak» (9120 EB KOD.) habitataren kontserbaziorako funtsezko eremua da. Pagadi hauek ordezkari zabala daukate Urkiolan, 513 ha hartzen dituztelarik. Bestalde, pagadi basofiloek estalitako azalera 674,77 ha-koa da, guztira Urkiolako azalera osoaren %20a suposatzen du. Aipatzekoak dira Saibiko pagadiak, Arangioko mendizerran, Urkiolagirreko magalekoak eta Eskuagatx mendigunekoak.
- Pagadi karetsuek mosaikoa osatzen dute funtsezko elementutzat ere hartzen diren Batasuneko intereseko habitatekin: kareharrizko harkaiztiak (8210 EB KOD.), hartxingadiak (8130 EB KOD.) eta larre harritarak (6170 EB KOD.). Lursail oso irregularetan garatzen dira, sarri egur-ustiaketa zaila gertatzen den lurzoru karstifikatuetan. Honek zur hilaren zenbateko handiagoa egotea ahalbidetzen du, zur hila mehatxupeko hainbat animalia espezieren (baso-saguzarrak, koleptero saproxilikoak) interes handikoa izanik.
- Pagadietan aurki daitezkeen mehatxupeko espezie garrantzitsuen artean azpimarratzekoak dira *Narcissus pseudonarcissus*, *Ilex aquifolium* eta *Taxus baccata*.
- Artadi kantaularrek lurzoru karbonatutako eremu harritsuak estaltzen dituzte. Urkiolan azalera handia hartzen dute, hedadurari dagokionez bigarren baso naturala izanik, pagadi basofilo eta azidofiloen ondoren. Mugarrako artadiak, Artaungo goialdekoak, Albixkarrekoa eta, bereziki, Eskuagatxekoa dira aiparri.
- Amilburupeko baso mistoak (9180* EB KOD.) lehentasuneko habitat bezala hartzen dira. Malda handiko eremuetara eta kareharrizko irtenguneetara moldatutako zuhaitz eta zuhaixka ezberdinek osatzen dute eta honek baso egitura lausoa eta espezie zurkaren aniztasuna baldintzatzen du. Baso mota honen azalera beti izaten da eskasa. Urkiolan habitat honen ordezkari hoberena Aramotz eta Pagozelaiko goialdeetan eta Eskuagatxeko ekialdeko hegalean aurkitzen da. Anboto-Alluitzeko gailurreriarren inguruan ere zuhaitzi bat badago.
- Bertako espezieen baso-masak ingurumen-zerbitzu anitzak hornitzen dituzte: lurzoruen babes eta sorkuntza, CO₂-a xurgatzea, uren atxikitzea eta arazketa.
- Basoak umatze, aterpe eta elikatze-habitata dira animalia espezie askorentzat, batzuetan mehatxatuak. Hauen artean nabarmendu daitezke: baso-hegaztien komunitatea, baso-saguzarrak, anfibioak edo ornogabe saproxilikoak.
- Pago eta haritz motzen lagin interesgarriak eta arboladi zaharrak daude, hainbat briofito, liken eta baso-ornogabeen -hauetako zenbait oso mehatxatuak-kontserbaziorako garrantzi handikoak.
- Hariztiak oso zatikatuta daude eta azalera oso murriztua daukate, estai muinotarreko baso-landaketen ondorioz ordezkatuak izan baitira. Hau dela eta, babestu beharreko azalera eskaseko orbanetan agertu ohi dira.
- Pagadi, artadi eta hariztiak lotura funtzio garrantzitsua daukate naturagune babestuaren hurbilean kokatutako eta eskualde mailako korridore ekologiko nagusien zati diren basoekin. Interes nabarmenekoak dira basoko saguzarren komunitateari dagokionez, baita baso-hegazti, anfibio edo ornogabe saproxilikoek dagokionez ere, guztiak naturagunearen funtsezko elementutzat hartuak.
- Basoko harraparien komunitate ondo egituratua dago, honako espezie hauen umatze-populazioekin: zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*), zuhaitz-belatza (*Falco subbuteo*), gabirai arrunta (*Accipiter nisus*), aztorea (*Accipiter gentilis*), miru beltza (*Milvus migrans*), arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) eta arrano sugejalea (*Circaetus gallicus*).
- Hosto erorkorreko basoetako lekune hezeak ere funtsezkoak dira baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) edo uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*) bezalako, Habitat Zuzentarauaren IV. eranskinean sartutako mehatxupeko anfibio espezieentzat.

- Koleoptero sproxilikoaren taldea basoetako fauna talde mehatxatuetako bat da. Basoaren heterogeneitate eta heldutasunaren adierazle dira eta baso helduen baldintzen aldeko kudeaketa beharrezkoa dute. Urkiolan intsektu sproxiliko espezie bi daude: *Lucanus cervus*, Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean sartutakoa eta *Rosalia alpina*, II. eta IV. eranskinetan sartutakoa.
- Azkenik, Urkiolan *Elona quimperiana* barraskiloa ere aurkitzen da, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan sartuta dagoena.

3. SASTRAKADIAK ETA LARREAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- Txilardi lehor europarrak: 4030 EB KOD.
- Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskadunak: 4090 EB KOD.
- Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*): 6210 EB KOD.
- *Nardus*-dun formazio belarkarak, espezie ugariak, eremu menditarreko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditarretako) silize-substratuetan: 6230* EB KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Goimendiko eta landazabaleko hegaztiak: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) eta antzandobi arrunta (*Lanius collurio*).

Arrazoiak

- Txilardi-larre mosaikoak Urkiolako azaleraren %15 inguru hartzen du (953 ha).
- Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) I. eranskinean sartutako Batasuneko intereseko habitatak dira.
- Urkiola «Substratu karetsueta ko larre bizi mesofitiko eta xeromesofitikoak» (6210 EB KOD.) eta «Mendi eremuetako substratu silizeoetako *Nardus*-dun formazio belarkarak» (6230* EB KOD.) habitaten kontserbaziorako funtsezko eremua da.
- Naturaltasun handia daukate eta urrakortasun txikia izan ere gizakiek eragindako asaldatzeengandik urrun dauden mendi-eremuetan garatzen baitira. Balio ekologiko handiko flora eta fauna espezieak biltzen ditu eta inguru hauei lotutako faunari aterpea eta elikadura eskaintzen dizkio.
- Hegazti harrapari eta eremu irekiei lotutako sarraskijaleen larratze-gune garrantzitsuak dira, eta baita babes-lekua ere beste hegazti espezie eta narrasti bereizgarrientzako.
- Abeltzaintza estensiboa mantentzearen ondorioz sorturiko habitatak dira eta hauen kontserbazioa, egun gainbeheran dauden larratzeko modu tradizionalak mantentzearen mende dago.
- Larre eta mendi-baxuko eremu irekietan, zein trantsizio faseetan (otadi, txilardi, iratzedi), mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*) eta zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*) bezalako espezieak ugaltu eta elikatzen dira.
- Habitat hauetan *Narcissus pseudonarcissus gr. nobilis* eta *Narcissus asturiensis* espeziek hazten dira, biak Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean sartuak. Lehengoa «Bakana» kategorian sailkatuta dago Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan, eta bigarrena, «Interes Berezikoa» kategorian.
- Beste ingurune batzuk ere badaude hala nola putzu txikiak, istingak edo heskaiak, agertzen diren mikrohabitaten aniztasunari gehitzen zaizkionak eta hainbat espeziaren presentziaren aldekoak direnak.

4. TRANTSIZIO ZOHIKAIZTEGIAKBatasunaren Intereseko Habitatak:

- Trantsizio zohikaiztegiak: 7140 EB KOD.

Arrazoiak

- Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) I. eranskinean sartutako Batasuneko intereseko habitata dira
- Habitat mota honek EAEn duen berezitasuna dela eta, beharrezkoa da estatu edo egoera guztiak babestea. Ekosistema reliktikoa da, Iberiar Penintsulan gainbeheran dagoena.
- Urkiolako KBE, landaredi turfofiloetako komunitate hidrofiloen presentzia duten gunee nagusietakoa da EAEn.
- Interes botaniko handiko espezieak hazten dira bere baitan: *Sphagnum spp.*, *Drosera rotundifolia*, *Carum verticillatum* eta *Pinguicula lusitanica*
- Mehatxupeko fauna espeziak ere egon litezke, sugandila bizierrulea (*Zootoca vivipara*) esaterako.
- Habitat hauek oso sentikorak dira sistema hidrokologikoan eta baldintza fisiko-kimikoetan eragindako aldaketan aurrean.
- Urkiolako KBEko esfnadiak EAEko Hezeguneen Inbentarioan sartuta daude (I. taldea).

5. IBAI-SISTEMA: ERREKAK, ERREKASTOAK ETA HAUEI LOTITAKO HABITAT NATURALAKBatasunaren Intereseko Habitatak:

- *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko ibar basoak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*): 91E0* EB KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Anfibioak: baso-igel iberiarra (*Rana iberica*), uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris*).
- Ornogabeak: ibai-karramarroa (*Austropotamobius italicus*).

Arrazoiak

- Korridore ekologikoaren funtzioa bermatzen du, ibai-sistemen oinarritzko ezaugarria denez. Kasu honetan, ondoko ekosistemekin bai luzetarako bai zeharkako loturak ahalbidetzeko agertokia izateaz gain, Natura 2000 Sareko beste gunee lotzeko elementua da eta Zadorrako Sistemako Urtegiak/Embalses del Sistema del Zadorra KBEekin lotura zuzena dauka.
- Urkiola edo Santa Engrazi ibaia, Urkiolako esparrua zeharkatzen duen tartean ingurugiroaren aldetik interesa duen ibai-tartetzat hartzen da eta Ebroko Barruti Hidrografikoko Babestutako Gunee Erregistroan sartuta dago.
- *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko alubioi-basoak Batasuneko intereseko habitata da (91E0* EB KOD.), Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) I. eranskinean sartuta dagoena eta lehentasunezkoztat jotzen dena.
- Gainera, ibarretako landarediak ibilguari itzala eta ornogabeei elikadura ematen die eta hauek halaber, arrainen elikadura dira. Uraren kalitatea ere hobetzen du izan ere ibilgura sustantzia kutsakorak eta esekidurazko solidoak iristea eragozten du. Aldi berean, martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) bezalako intereseko hegazti espezieentzako atsedene-leku, elikadura-gune eta lekualdatze bidea da. Aipatu espezie hau ibai-inguruaren adierazle bikaina da.

- Urkiolako KBEren kasuan, ibai-sistema haranen paisaia egitutatu eta dibertsifikatzen duen garrantzizko elementua da.
- Urkiolako anfibioren komunitatea mehatxupeko zenbait espezieek osatzen dute, hauetako batzuk Habitat Zuzentarauan edota Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sailkatuta daude.
- Ibai-karramarro autoktonoaren, *Austropotamobius italicus*, presentzia azpimarragarria da. Espezie hau Habitat Zuzentarauaren II. eta V. eranskinetan sartuta dago, Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoan «Kaltebera» kategorian sailkatuta dago eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan «Galtzeko Arriskuan» kategorian.

Elementu gakoan artean ez dira, KBEen tradizionalki aipatu izan diren beste espezie baliotsuak kontuan hartu, azken urteetan ezin izan baita bere presentzia Urkiolan baieztatu. Espezie hauek honakoak dira: ugatza, lepahoria, bisoi europarra, igaraba, basa-katua eta Schreiber muskerra. Dudarik gabe, espezie hauek esparrua birkolonizatzea habitaten kontserbazio egoerak hobera egin duelaren adierazle izango da.

5.- ELEMENTU GAKOEN KONTSERBAZIO EGOERA. PRESIO ETA MEHATXU NAGUSIAK

Habitat Zuzentarauaren arabera, «habitat baten kontserbazio egoera» habitat natural horrengan eta bertan finkatutako espezieengan eragiten duten indarren multzoa da, indar hauek epe luzean bere banaketa natural, egitura eta funtzioei eta baita bere espezie ohikoenen bizirauteari eragin diezaiekete larrik.

Habitat natural baten «kontserbazio egoera» «aldekoa» dela esan daiteke habitat horren banaketa naturala eta esparru horren barneko azalerak egonkorak edo handitzeko joera badaukate eta epe luzean mantentzeko funtzio zehatzak existitzen badira eta aurreikusteko moduko etorkizun batean existitzen jarrai badezakete, eta bere espezie ohikoenen kontserbazio egoera aldekoa bada.

Era berean, «espezie baten kontserbazio egoera» espezie horrengan eragiten duten eta epe luzean bere populazioen banaketa eta garrantziarengan eragin dezaketen indarren multzoa da. Espezie baten kontserbazio egoera «aldekoa» dela esan daiteke beren populazioen datuek adierazten badute bere presentzia dagokion habitatean ez dagoela epe luzean arriskupean eta horretarako hedadura nahikoa izango duela, bere banaketa naturaleko eremua murriztuko ez delarik ezta aurreikusteko moduko etorkizun batean ere.

Aldeko kontserbazio egoera, Batasuneko intereseko habitat eta espezie guztiek lortu beharreko azken helburua da, egoera bat non habitat mota bakoitzak eta espezie bakoitzak aurrera egin dezaketen bai kalitatean eta baita hedaduran ere eta etorkizunean aurrera egiten jarraitzeko aukera onak badauden. Helburu hau luzatzen zaio Urkiolako esparru honetan kontserbatzekotzat jo diren elementu guztiei.

Posible izan den guztietan, Habitat Zuzentaraua aplikatzeko txostena nola egin azaltzen duen agiriak gomendatutako parametro kuantitatiboak (17. artikulua) erabili dira. Honekin saiatu da informazio estandarizatu eta alderagarriaren igorpena erraztea, ondorengo txostenak idazteko erabili eta estatu mailako oinarrizko legedia eta Europar Batasunaren mailakoa betetzea ahalbidetzeko. Horretarako, kontserbazio egoeraren testu-deskribapenez gain, eranskinen elementu gaketat aukeratutako espezie eta habitat natural guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxak atxikitzen dira. Testu-deskribapenean azaltzen diren laukiak fitxen laburpena dira.

Presio eta mehatxuak ere adierazten dira, hau da, gunearen kontserbazioan eta kudeaketan positiboki edo negatiboki eragin dezaketen giza ekintza eta prozesu natural guztiak. Hauek zehazteko gunearen datu-inprimaki normalizatuko presioen zerrenda eta kodeak erabili dira.

Azkenik baldintzatzaileak adierazten dira, kontserbazio egoera egokia edo ezarritako kontserbazio helburuak baldintzatu, hobetu edo bete ditzaketen eragile ekologiko, gizarte, ekonomiko edo kulturalak alegia.

5.1.- ELEMENTU GAKOEN KONTSERBAZIO EGOERA

Aurreko atalean identifikatutako Urkiolako KBEn elementuak hautatu ondoren, atal honetan horien «kontserbazio-egoerak» zehazten dira, baita elementuen kontserbazio-egoera baldintzatzaren duten faktoreak ere.

Atal hau eremuko elementu gakoak diren habitat eta/edo espezieen arabera egituratu da, eta bakoitzarentzat ondorengo alderdiak deskribatzen dira:

- Kontserbazio-egoera orokorra
- Presio eta mehatxu nagusiak
- Beste alderdiak edo baldintzatzaileak

1. LEIZEAK, HARKAIZTIAK ETA HAUEI LOTUTAKO HABITAT ETA ESPEZIEAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- Landaredia kasmofitikodun malda arrokatu kaltzikolak: 8210 EB KOD.
- Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak: 8130 EB KOD.
- Larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak: 6170 EB KOD.
- Lautadako orletako eta pisu menditar eta alpetarretako megaforbio eutrofo hidrofiloak: 6430 EB KOD.
- Turismoak ustiatu gabeko kobak: 8310 EB KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Hegazti harkaiztarrak: saizuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*) y belatz handia (*Falco peregrinus*).
- Saguzarrak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros* y *Miniopterus schreibersii*.

Kontserbazio egoera

Harkaiztiari lotutako habitatek 1.198 ha hartzen dituzte, naturagune babestuaren %19,77. Batuketa honi funtsean 2 habitatek gehitzen diote: 8210 (Landaredia kasmofitikodun malda arrokatu kaltzikolak) eta 6170 (Larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak), 688 eta 411 ha inguruko azalarekin hurrenez hurren.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Urkiolan bi habitat hauek mosaikoa osatzen agertzen dira. Larre harridak harkaiztiaren erlaitzetan baino ez dira aurkitzen. Zaila da larre harritarrek harkaiztian hartzen duten estalduraren zenbatekoa kalkulatzeko (habitat honi fitosoziologikoki atxikitu ezin zaizkion eta harkaiztietan ere agertzen diren beste komunitate belarkarengandik ezberdinduta), habitat honen helezintasuna dela eta kartografia eta ortoargazkiaren interpretazioaren bitartez kalkulatuak azalera (oinplanoan) ez datozelako bat malda handiko eremu hauetako benetako azalarekin. Hala eta guztiz ere, habitat hauen (malda harritsuak eta larre alpetar eta azpialpetarrak) kudeaketa estu-estu datos bata bestearenarekin, kontserbazio neurriak bientzako aplikagarri direlarik.

Landaredia kasmofitikodun malda arrokatsu kaltzikolak: 8210 EB KOD.

Harkaiztia eta honi lotutako habitatak dira Urkiolari bereizgarritasuna ematen dioten elementuak, izan ere eremua Anboto, Alluitz, Aitz Txiki, Untzillatz eta Mugarrako kareharrizko haitz ikaragarriek esker babestu baitzen hasiera batean.

Habitat mota honen izaerak helezina bihurtzen du kasu gehienetan, honek bere kontserbazioaren alde egiten duelarik.

Urkiolako KBEn harkaiztietan espezie endemikoak edo bitxiak identifikatu dira, Aster alpinus, Armeria pubinervis, Gypsophila repens, edo Veratrum album esaterako, guztiak Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartuak. Habitat honetan, hain zuzen, biltzen dira Urkiolako landare espezie berezienak.

Malda arrokatsuak (8120)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzioak	X			
Etorkizunerako igurikapenak		X		
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Habitataren balorazioari dagokionez, bere azalera egonkorra da eta egitura eta funtzioak egokiak. Eragile hauei mehatxupeko flora espezieen eta harkaiztetako hegaztien komunitate aberats eta berezi baten presentzia gehitzen zaizkie. Hau dela eta aldeko kontserbazio egoera daukala esan daiteke.

Larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak: 6170 EB KOD.

Larre hauek harkaiztiari zuzenean lotuta daude, honen erlaitzetan garatzen direlarik, landaredi estaldura urriarekin. Urkiolako kareharrietan ondo ordezkaturak azaltzen da, batez ere Untzillatz, Mugarra eta Anboton.

Habitat hauek biodibertsitate erreserbatzat hartzen dira, bertan bizi baitira espezie endemiko, bitxi eta balio biogeografiko altuko ugari; *Narcissus asturiensis* eta *N. pseudonarcissus gr.nobilis*-en kasua da.

Aziendaren presentzia habitat honetan kontrolatzea beharrezkoa da, gutxi bazkatzen den arren, asko zapaltzen baitu. Abere taldeen sarrera urtean behin bakarrik gertatu behar luke, uda hasiera partean (inoiz ez udazkenean) eta presio ez oso biziak. Urte batetik bestera, larretze aldia geroratu eta lekuak txandakatu behar lirateke landareen hazi-bankua berriztatu ahal dadin. Aziendaren presentzia arin eta denboran mugatu honek higadura arriskua murriztea ahalbidetzen du. Edonola ere, abere-kargak ez du inoiz habitat honen bazka-potentzialtasun txikia gaingaitu behar.

Larre alpetar eta azpi-alpetarrak (6170)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzioak		X		
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Kontserbazio egoerari dagokionez, aurreko habitataren aldean, honen kokapena, harkaiztiaren eremu lauenetan, aziendari irisgarriago geratzen zaio, beraz, bere bilakaera aziendaren kudeaketaren mende egongo da hein handi batean.

Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak: 8130 EB KOD.

Hartxingadi eta harrizetan, urriki, estaldura oso txikiaz hazten diren landare komunitateak kontuan hartzen dira habitat honen barnean. Urkiolan guztira 98,13 ha-ko azalera dauka, Mugarrako, Atxarteko haizpitarteko bi aldeetako eta Alluitzeko hartxingadiak aipagarri direlarik.

Habitat hau bere ezengokortasunagatik bereizten da eta blokeen erorketen eta noizbehinkako mugimenduen eraginpean dago, bereziki legar fineko hartxingadien kasuan. Denborarekin, eta gai berrien ekarpenarik jasotzen ez badute, egonkortzen joaten dira oreka mekaniko batera heltzen diren ahala.

Lur-jausi mediterranearrak (8130)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzioak	X			
Etorkizunerako igurikapenak	X			
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Substratuaren ezengokortasuna eta landarediaren estaldura urria dela eta, aziendak bazkatzeko eremu erosoagoak eta batez ere emankorragoak nahiago izaten dituzte.

Mendiko megaforbioak: 6430 EB KOD.

Mendiko megaforbioak dauden 11 toki aurkitu dira, Alluitz, Anboto, Eskuagatx eta Mugarrako harkaiztietako erlaitz, ubide estu eta ur-jarioa duten paretetan, 650 eta 1200 m bitarteko altitudetan. Kokaleku hauetan hazten diren espezieak dira: *Aconitum lycoctonum*, *Lilium pyrenaicum*, *Daphne laureola*, *Asplenium scolopendrium*, *Polystichum setiferum* eta *Polypodium sp.*

Mendiko megaforbioen komunitate gehienak IM-I-IEra begira dauden harkaiztietan agertzen dira. M eta Era begitratzen dutenak ubide estuetan azaltzen dira. Kartografiatutako azalera 840 m²-takoa da eta gutxieneko azaleratza jo beharko litzateke, orokorrean modu oso mugatuan agertzen baitira eta, kasu askotan eremua elkarbanatzen duten beste habitaten barne geratzen dira, hala nola, harkaiztiei (8210), pagadiei (9120 eta G1.64) eta mendiko baso-mistoei (9180*) loturikoen barne, honek kartografikoki irudikatzea zailtzen duelarik. Honi gehitu behar zaio leku helezin batzuen prospekzioa ezinezkoa suertatu ohi dela.

Harrien luiziak eta hegaletako lur-jausiek megaforbioen komunitateengan eragin negatiboa izan lezakete, banaketa mugatuz. Eragile hauek balioztatzen zailak dira eta eragin handiena behar bada ubide estuen azpian gertatuko da, lur-jausiak ikusi izan direlarik hauetak batzuetan.

Mendiko megaforbioen banaketa-eremu potentziala egungoa baino handiagoa da seguruenik. Ardiak eta ahuntzak erraz iris daitezkeen tokietan ez da megaforbioen komunitaterik topatu, nahiz eta gainontzekoingurumen-baldintzak egokiak izan antza. Hau dela eta, esan daiteke azienda honen presentzia faktore mugatzaileetako bat dela.

Habitat honen kudeaketarako beharrezkoa da populazioak topatzeko eta hauen jarraipenerako azterketa lanak egitea, eta baita identifikatutako tokietan aziendaren kontrola eramatea.

Megaforbioak (6430)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera				x
Egitura eta funtzioak		X		
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Turismoak kudeatu gabeko kobak: 8310 EB KOD.

Esparruaren zati handienaren jatorri karstikoak saguzarrentzako eta ornogabe troglobioentzako habitat bitxi eta oso garrantzitsua diren leize ugari eratzea ahalbidetu du. Hezetasun, argi, presio atmosferiko eta temperatura oso egonkorak izateagatik bereizten diren eremu hauen hauskortasunak kanpoko asaldaduren aurkako babesa izatera behartzen du.

Kobak (8310)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzioak				X
Etorkizunerako igurikapenak	X			
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Urkiolako leize gehienek kontserbazio egoera aldekoa da, habitat mota honek daukan helezintasun maila dela eta. Bisitari asko etortzearen ondorioz eragin gehien jasaten dituen koba Baltzolakoa da. Leize honetan kirol eta aisialdi erabilera handia ematen da. Eskalatzea leizean egin izan den kirola da, nazioarteko mailan erreferentzia leku izatera iritsi arte. Inguru honetara jendetza handia etortzeak koba honetan finkatutako saguzar koloniaren murrizpena erakarri du. *Rhinolopus euryale*, *Rhinolophus hipposideros* eta *Miniopterus schreibersii* Balzolako kobatik desagertu dira; *Rhinolophus ferrumequinum*, *Plecotus auritus* eta *Myotis nattereri* espezieen koloniek, osatzen dituzten aleen zenbakietan beherakada handia nozitu dute. Hain zuzen ere, Urkiolako KBEren mugaketa zabaltzeko eragileetako bat leize honetan erabilerak arautzea izan da, koba-saguzarren koloniak babeste aldera.

Harkaitzetako fauna

Nabarmena da Urkiolako harraparien komunitatea, sai arrea (*Gyps fulvus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta saizuriaren (*Neophron percnopterus*) populazio finkatuak dituelarik; azpimarratzekoa da saizuriarena, izan ere EAE osoan bakana da. Arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) eta ugatza (*Gypaetus barbatus*) eremuan bisitariak dira, erratiko moduan edo erregulariki bere bizi-eremuan sartuz, baina ugalketa frogarik gabe.

Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen EAEko Kudeaketa Plan Bateratua idazteko oinarrien dokumentu teknikoan, Urkiola, hegazti nekrofagoentzako interes bereziko eremua (IBE) eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen elikadurarako babes eremua (EBE) izendatua izan da.

Anboto, Untzillaitz, Alluitz, Mugarra, Eskuagatx, Dima-Otxandioko Harriak, Aramotz-Belatxikietako karsta eta Arangioko Harrietako harkaitziak, harkaitzietako harraparietako garrantzi handikoak dira. Populazio nabarmenak daude espezie hauen kasuetan: sai arrea (40-50 bikote), belatz handia (8 bikote) eta saizuria (6-8 bikote); gainera, arrano beltzaren behaketa ugari zenbatu dira, apur bat gutxiago ugatzaren kasuan.

Sai arrea

Sai arrea ugaltze-espezie bezala Bizkaiatik desagertu zen larogeiko hamarkadaren zati handi batera arte. 1989ko kontaketa sai arreen kumateka leku bakarra aurkitu zen Bizkaian, Mugarran, 6 bikote zituen. Data hartatik hona, bikote kopuruak gora egin du egindako ondorengo kontaketen arabera. Urkiolan azpipopulazio garrantzistuena bizi da (69 bikote), hau da, Bizkaiko populazioaren %70,4 eta EAEko %8,5. Testuinguru honetan, Mugarrako kolonia nabarmentzeko da oraindik ere, Bizkaiko trinkoen baita.

Sai arrea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa	x			
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

1999-2009 hamarkadan populazioaren tamainaren bilakaera positiboa izan da argi eta garbi. Populazioaren eta hedapenaren hazkundeak espeziearen banaketa eremuan aldaketak eragin ditu, kolonia txikien (bikote gutxi osatutakoa) sorkuntza handien aldean faboretuz. Osasun-arau murriztaileak indarrean sartzearen ondorioz mandotegiak ixteak baliabide trofiko garrantzitsu baten desagertzea ezarri zuen. Politika hauen berrikuspena, gaur egun mandotegiak berriro irekitzeko joera duena, egungo populazioaren mantenua funtsezkoa izango da seguruenik.

Saizuria

Euskadiko saizuriaren populazioa 45-48 bikoteetan ezarri zen 2008an, honek 0,65 bikote/100 km²-ko dentsitatea ematen duelarik. Bizkaia da espeziearen dentsitate handieneko probintzia (0,90 bikote/100 km²); Gipuzkoak 0,47 bikote/100 km²-ko batezbestekoa du eta Araban dentsitatea bitartekoa da, autonomi erkidegokoaren antzekoa (0,60 bikote/100 km²). Saizuria lurralde osoko mendilerroetatik banatzen da, kontzentrazio nagusiak Bizkaiko eta Arabako mendebaldeetan gertatzen direlarik. Bizkaiko Enkarterrietako eskualdea eta Gorobel mendilerroa (Araba-Bizkaia) dira aipagarrienak.

Bizkaian saizuriaren populazioak 21 bizi-eremu hartzen zituen 2008an. Bizi-eremu gehienak mendebaldean, Enkarterrietan aurkitzen dira; hemen, habiak mendi eta baso trinkoetan izkutatuta dauden paretak txikietan egiten dituzte. Beste 7 bizi-eremu, ordea, Urkiola (sei) eta Gorbeia (bat) parke naturalerako mendigune karstikoetan kokatzen dira; gainera, bi bikotek Gorobel mendilerroko paretak handietako Bizkaiko aldean egoten dute habia.

Saizuria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Belatz handia

Bizkaian aurkitutako belatz handia espezieko bikoteen %38k itsas-labarrak okupatzen ditu, gainontzekoak aldiz, mendigunetako harkaitzetan, Gorbeia Parke Naturala (2-3 bikote), Urkiolako Parke Naturala (4), Karrantza-Turtzioz (4), Urduña (2), edo harrobi eta harridietan, Bilbo Handia (6), Galdames (1) eta Zeberio (1), aurkitzen dira.

Belatz handia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzako habitata		x		
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

6 bikote harrobietan gehi beste bat eraikin batean topatzeak populazioa apur bat hazi dela erakusten du, honekin eskuragarri dagoen eremu ia osoa okupatuko bailitzateke. Izan ere, Bizkaian barnealdeko gabezia batzuek, habia egin ahal izateko paretak edo harrobi faltan dute jatorria; lurralderik gabeko banakoak eremuetara agertzen baitira. Bizkaiko mendietako kareharrizko paretak ia guztiz okupatuta daude, irisgarritasun errazeko kasu batzuetan izan ezik. Are gehiago, hirien inguruko eremuetako harrobien okupazioa gertatu da, hauetako batzuk oraindik ere ustiaketan jarraitzen dutelarik.

Populazioaren tamainaren azken hamarkadetako bilakaera orokorrak egonkortasunerako joera dauka, lurralde historikoen arteko ezberdintasun aipagarriekin: hazkunde nabariak probintzia batzuetan eta beherakadak besteetan. EAEn emaitzak ezberdinak dira: Araba eta Gipuzkoako egonkortasuna alde batetik, Bizkaiko beherakada beste aldetik.

Saguzarrak

Habitat Zuzentarauak IV. eranskinean sartzen ditu mikro- eta mega-kiroptero espezie guztiak, beraz denak dira lehentasunezko babes behar duten Batasunaren intereseko espezieak.

Urkiolan aipatutako saguzar espezieen artean, lau Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean ere sartuta daude: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*, *Miniopterus schreibersii* eta *Myotis emarginatus*. Hauetatik lehenengo hiruak batez ere haitzulotarrak dira.

Urkiolako naturagune babestuko esparruan ez da animalia talde honen berriazko azterketarik egin. Eskuragarri dagoen honi buruzko bibliografian adierazten da 1997an Urkiolan bazeudela *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*, *Miniopterus schreibersi* eta *Rhinolophus euryale*, azken hau Baltzolako koban soilik. Koba hau Urkiola inguruko babesleku garrantzitsuena zen ugazten talde honentzat; inguru honetara jendetza handia etortzeak koba honetan finkatutako saguzar koloniaren murrizpena erakarri du. *Rhinolophus euryale*, *Rhinolophus hipposideros* eta *Miniopterus schreibersii* Baltzolako kobatik desagertu dira eta Urkiolako gainontzeko kobetan duten egoera ezezaguna da.

*Miniopterus schreibersi*ren kasuan, bere kontserbazio egoera ondo ezaguna ez den arren, populazioaren beherakada nabaria antzeman da, batez ere Europako iparraldean. Gaur egun gutzienez 2.500 bikoteko ugai-populazioa ezagutzen da EAEn, bi babesleketan bilduak, eta udaberriko populazio beretsua 7 leizeetan banatua. Negu gairaiari buruzko daturik ez dago. Aurretiazko datuen gabezia dela eta, ezin daiteke EAeko populazioen joerarik ondorioztatu.

Saguzarren komunitatea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera				Ezezaguna

Presio eta mehatxuak

Meha-ustiategiak (C01.04.01), zeru-irekian egindako harri erauzketa batez ere, harkaitziei gehien eragindako erabilerak izan dira. Naturagune honetan kokatutako harrobi handienak Atxarte (jarduerarik gabe orain dela urte dexentetik hona eta berreskuratzeko dagoena) eta Zallobentakoa (segurtasunean ipintzeko, bertan behera uzteko eta berreskuratzeko fasean). Markomin Goikoa eta Mutxateko harrobiak naturagune babestutik at daude baina babes eremu periferikoaren barnean.

Ahuntzak (A04.02.04), nahiz eta ugariak ez izan, Urkiolako harkaitzietan ohikoak dira eta habitat hauetako espezie bakanetako batzuen bizirautea arriskuan jar ditzakete edo bere hedapena oztopatu. Mendiko megaforbioen komunitateen mehatxu nagusia ardi eta ahuntzak, dira, batez ere azken hauek ardiak iristen ez diren tokietara heltzeko gai direlako.

Alpinismoa eta eskalada (G01.04.01) detektatutako arazo garrantzitsuenetakoa dira, harkaitziei eragin eta harkaitzetako hegaztiei eragozpenak sortzen baitizkiete, habia egitea galarazi edo portaera aldatzerainokoak. Parke Naturalaren Kudeaketa Organoak Eskaladaren Erabilera Publikoko Plana eta Arautzeko Plana garatu ditu, helburu nagusien artean jarduera honen eragina txikiagotzea dagoelarik.

Hegazti harraparien (saizuria, adibidez) ugalketa eremuetan espezie hauen sentiberatasun handieneko garaiak aintzat hartu behar dira, sarbideak, eskalada edota xendazaletasuna mugatu beharko direlarik habiagintza garaian eta dagokion kolektibo informazio aproposa luzatu.

Harkaitzietako hegaztientzako beste mehatxu batzuk izan daitezke: abeltzaintza-sistemak bertan behera uztea edo abeltzaintza-eza (A04.03) hegazti nekrofagoei bereziki eragiten dietenak, tranpa eta pozoi bidezko harrapaketa eta isileko ehiza (F03.02.03), nahiz eta ez den uste azken hauek Urkiolan gehiegi gertatuko direnik.

Zenbait eremutan asaldurak, garai kritikoetan habietatik gertu egindako basogintza lanek eraginak izaten dira (B02.02).

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Anbotoko gailurreria mendizaleek eta publikoak orokorrean gehien bisitatutako (G01.02) bidea da, henengo mendizaletasuna dela eta alde batetik eta Anbotoren oinara heltzeko erreztasuna dela eta bestetik. Anbotoren oinara Santutegitik abiatzen den eta Urkiolamendi inguratzen duen mendi-bidetik hel daiteke eta bide honetatik, ibilbide erraz batekin harkaitzaren oinera iris daiteke. Eredu honetako giza presio handiaren ondorioz, babestutako flora espezieak jasotzen dira eta faunari eragozpenak eragiten zaizkio.

Irisgarritasun handieneko leizeetan gertatzen den kontrolgabeko erabilera publikoa (G01.04.03) eta espeleologia (G01.04.02) gainontzeko leizeetan, ingurune honen mehatxu nagusia da. Publikoaren bisitaldiak, arautuak egon arren, ezin dira erraz kontrolatu eta saguzarren kolonietan eragozpenak eragin ditzakete, eta baita ekositeman orokorrean zapaltzea, paretak ukitzea, inskripzioak, zaborrak, estalakitak eta estalagmitak haustea, etab. dela eta.

Urkiolako KBEko saguzarren komunitatearen kontserbazioan eragin negatiboa izan dezaketen presio eta mehatxuak, EAEko kiropteroen komuniteari orokorrean eragin ohi diotenak dira: neguleku eta umatze babesleketan eragozpenak edota itxiturak (G01.02, G05.08), bandalismoa eta banakoen hilketa (G05.04), nekazal eta basogintzako insektiziden erabilpen masiboa (B04, A07), habitat naturalaren galera eta ehizatzeo habitataren narriadura, elikadura baliabideen aldetik (J03.01), bertako hostozabal erorkorren basoen galera eta zatikatzea (B07) eta baso-masen eta zuhaitz zaharren desagertzea (B03).

Presio hauek Urkiolan duten tamainari buruzko daturik ez dago, Balzolako koba kenduta, zeinetan giza presioak (eskalada, xendazaletasuna, etab.) saguzar espezieen desagertzea bultzatu duen.

Mehatxupeko florari eragin diezaieketen arazoak honakoak dira: gehiegizko larratzea (A04.02), ahuntzei dagokionez bereziki (A04.02.04), leku helezinetara iristeko gai baitira, eta mendizaleek egindako zapaltzea edo, *Aster alpinus* edo *Narcissus* bezalako espezie ikusgarrienen hilketa (F04.01).

Beste eragile eta baldintzatzaileak

Urkiolako Parke Naturaleko NBAPak harkaitziak babes bereziko eremutzat zonakatzen ditu. Eredu honek landaredi, fauna, geomorfologia edota paisai-ezaugarriak direla eta, eta gehiegi eraldatu gabeko ekosistemen presentzia dela eta kontserbatzeko interes handia duten eremuak biltzen ditu. Oro har, aldapa handiko leku malkartsuak izaten dira.

Bi sektore barneratzen ditu: lehengoak, Untzillaitz-Anboto-Zabalandi-Arangioko kareharrizko gailurreria, mendi-adar malkartsuenak eta Parkearen hego-ekialde osoa (hemen aipatzekoak dira Durangaldeko gailurrak, paisaiaren aldetik oso garrantzitsuak eta fauna eta flora berezia daukatenak, eta pagadi-masa zabalak) hartzen ditu.

Bigarrena Neberazarra eta Errelletabasoko hegaletatik hedatzen da, hegoaldetik Iturriozeraino jeitsi eta ipar-mendebaldeko muturreko eremu karstikoaren hurbilera iristen da Mugarrako gaina barnean hartuz. Aipatzekoak dira intereseko landaredi formazio batzuk eta baita Mugarran finkatutako hegaztiaren garrantzia eta inguru osoko balio paisajistiko nabarmena.

Ekainaren 3ko 91/2014 Dekretuak Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana aldatzen du naturagune babestuan baimendutako industria- eta erauzketa-jarduerak arautzeko helburuarekin.

Araudi honen arabera, meatze-aztarnategien eta gainerako baliabide geologikoen edozein aprobetxamendu egitea debekatu egiten da bertako edozein sekziotan. Era berean ezingo da aztarnategi eta baliabide horietarako ustiapen- edo ikerketa-baimenik eman. Markomin Goikoa eta Mutxate harrobien kasuan, indarrean diren ustiaketa-proiektuen mugen barruan dauden baliabideak agortu ondoren, ezingo da beste baimenik eman ez parke naturalaren barruan, ez Inguruko Babesgunean. Ustiaketa-baimenik ez daukaten harrobiak -Zallobenta, Atxarte eta Atxa-Txiki- leheneratu egin beharko dira. Leheneratze-proiektuen helburu bakarra gunea babesteko xedeak erdiesten laguntzea izango da.

Parkeko Organo Kudeatzaileak berriaz baimendu beharko ditu leheneratze-proiektuak, eta aurretik Patronatuko Osokoak proiektuei buruzko txostena egin beharko du.

Eskalada egiten den paretak hainbat flora eta fauna espezieren habitata dira eta hau dela eta, kirol honen praktika arautu behar izan da, izan ere, kontrolgabe eginez gero espezieetako batzuk eragin negatiboak jasan ditzakete, batez ere harkaitzietako hegaztiak hala nola saizura, sai arrea, belatz handia eta belatxingak. Espezie hauek eta beren habitatak kontserbatzeko helburuarekin, Urkiolako Parke Naturaleko organo kudeatzaileak Eskalada Aurutzeko Plan bat garatu du.

Babestutako fauna eta floraren biziraupena bermatzeko, ugal-garaiak eta babesleku moduan erabiltzen dituzten lekuak aintzat hartu dira. Ondorioz, erabilpena mugatuta duten eremu batzuk ezarri dira.

Urkiolako Parke Naturala eta eremu mugakideetan Eskalada Aurautzeko Planak hiru eremu ezartzen ditu:

- A eremuak. Eskalada debekatua urte osoan zehar. Gandarias (Lemoa), Garamendi (Igorre), Mugarra (H), Eskuagatx (I-IM), Deaburu (Eskuagatx), Aurrekoatxa (IE) y Untzillatxeko paretei dagokio.
- B eremuak. Eskalada aldi baterako debekatua (orokorrean, urtarrietik abuztura; zenbait sektoretan epe hau aldatzen delarik). Eremu hauek dira: Bentatxuri I, Bentatxuri H, Kobagorri (Axbisker), Mugarra-hegalkina, Mugarra-Koabe, Eskuagatx, Untzillatx (M), Atxurtuko Orratzak (Astxiki), Sagastako koba (Astxiki), Alluitz (HM), Anboto-Kurutzeta (I, IE eta E), Erlango Atxak-pareta handia, Erlango Atxak-hegalkina, Izpizte (I eta HE) y Arangioko Mendizerra (E).
- C eremuak. Eskalada urte osoan zehar baimendua.

«EAEko Hegazti Nekrofagoen Kudeaketa Plan Bateratua»ren onespina, izapidetzan dagoena momentuz, saizuriaren eta sai arrearen kontserbaziorako baliabide garrantzitsua izango da.

Bestalde, «EAEko kobazuloetako edo eraikinetan bizi diren Kiropteroen Kudeaketa Plan Bateratua», Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek berriki onartua, espezie horiek babesteko baliabide garrantzitsua izango da.

Aztarna arkeologikoak dituzten leizeen kasuan, Euskal Ondare Kulturalaren 7/1990 Legeak araubide juridikoa ezartzen du, hiru tipologia ezberdinen arabera sailkapena eginez:

- Ondasun kalifikatuak, babes-maila altuenarekin.
- Zerrendatutako ondasunak.
- Balizko Arkeologia Guneak, hauen gain eman da 234/1996 Dekretua, urriaren 8koa, balizko arkeologia guneak finkatzeko araudia ezartzen duena.

GEMA Espeleologia Taldeak Urkiolako mendiguneko zulo zikinen« inbentarioa egin du eta honetan zaborrak bota diren leizeak zerrendatzen dira. Talde honek urtero antolatzen du koba bateko garbiketa eta dioenez, jendearen pentsamoldean aldaketa nabaria gertatu da zentzu honetan, kobetan jasotako zabor gehiena zaharra baita. Aipatu taldeak lehentasunezko zat dauka Atxarteko harrobi zaharretako zuloak garbitzea, bertan hidrokarburoen hondarrek betetako bidoiak utzi baitzituzten. Talde honek ere egin zuen Aramotz eta Anbotoko mendiguneko koben inbentarioa.

2. BASO NATURAL ETA ERDINATURALAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- Pagadi azidofilo atlantiarrak, *Ilex* oihanpedunak, eta batzuetan *Taxus*-dunak (*Quercion robripetraeae* o *Illici-Fagenion*): 9120 EB KOD.
- Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*): 9180* EB KOD.
- *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*-ko basoak: 9340 EB KOD.

Eskualde mailako interesa duten habitatak:

- Pagadi basofilo edo neutroa: G1.64 EUNIS KOD.
- *Quercus robur* nagusitzen deneko baso azidofiloa: G1.86 EUNIS KOD.
- Urkidia: G1.91 EUNIS KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Saguzarrak: *Eptesicus serotinus*, *Myotis emarginatus*.
- Baso-hegaztiak: arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) eta zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*).
- Ornogabeak: koleoptero saproxilikoak (*Lucanus cervus*, *Rosalia alpina*), tximeletak (*Euphydryas aurinia*), Quimper barraskiloa (*Elonga quimperiana*).

Kontserbazio egoera

Urkiola basogintza baliabideei dagokionez tradizionaki ustiatua izan den eremua da eta koniferoen landaketek (insignis pinua eta Lawson altzifrea batez ere, beste konifero espezie batzuk ere aurki daitezkeelarik: alertzea, larizio pinua, pinu gorria, eta haritz amerikarra bezalako hostozabalak ere bai) lurraldearen zati handi bat estaltzen dute. Hala eta guztiz ere, bertako espezieetako basoek (pagadia batez ere eta ondoren artadia) eremu honetan hartutako azalera adierazgarria da.

Elementu gako honen barnean hartutako basoen berezitasunez gain, badaude guztietan hobekuntzarako eskakizun amankomunak. Horrela, egitura-dibertsitate diametrikoa, espezie-dibertistatea (bai zuhaitzena eta baita zuhaixkena ere) eta zur hilaren presentzia (tamaina eta deskonposizio egoera ezberdinekin, lurrean zein zutik) sustatu behar dira; aldiz, lurzorua harrotzea eragotzi beharko litzateke, bai mendi-bideak egiterakoan eta baita basogintza-lanetarako makineriaren erabilerari dagokionean ere; ildo beretik, existitzen diren unaden zatikatzea ekidin behar da posible den heinean.

Pagadi azidofiloa: 9120 EB KOD.

Habitat honek Urkiolan hartzen duen azalera 513 ha-koa da, hau da, naturagunearen azalera osoaren %8,5. Zifra honi pagadi basofiloak (G1.64) estalitako azalera, 675 ha-koa, gehituz gero esan dezakegu baso honek Urkiolako azalaren %20a hartzera iristen dela ia, eremu honen baso-habitat nagusia gertatuz.

Urkiolako KBeko pagadien azalera potentziala basogintza-landaketek, sastrakadi eta larreek estaltzen dute. Pagadi adierazgarriak dira Saibiko hegoalde, Urkiolamendi, Aramaio eta Eskuagatxeak. Baso hauek erlazio estua mantentzen dute urkidiekin, zeinak naturagune babestuari izena ematen diotenak izan arren, puntualki agertzen diren (urkidiek guztira hartzen duten azalera 13,29 ha-koa da).

Pagadi basofiloak, azidofiloaren aldean, zuhaixken geruza eta batez ere belarrena garatuago daukate, ondorioz baso hauen dibertistatea handiagoa da. Salbuespen bezala, badaude pagadi azidofilo batzuk, Txupitastekoa esaterako, dibertsitate handia dutenak, harizti azidofiloaren sail mesohezearekin kontaktuan kokatzeagatik basoko landare espezie kopurua aberasten baitu.

Kareharria azaleratzen den tokietan pagadi karstikoa ezartzen da: morfologia berezia hartzen duten pagadi basofiloak, harkaitzean hazten diren tamaina txikiko zuhaitz bakanduekin, erdi-zuhaixkak ia, eta Urkiolan paisaiaren aldetik balio handia hartzen dutenak. Pagadi hauek harkaitzen pitzaduretan garatzen den lurzorua eskasa babesteko funtzio garrantzitsua betetzen dute.

Kasu berezi bat pago-motzena da, euskal mendien paisaia osatu eta balio kultural, estetiko eta biologiko handia daukatenak, izan ere, basoko saguzarrak, gaueko harrapariak eta okilak bezalako fauna espezieentzako habitat aproposa baitira.

Pagadi hauetan basogintza lanak uztearen ondorioz adarrak gehiegi hazten dira zuhaitza desorekatu eta haize gogorrek ale batzuk botaraziz.

Baso hauek ustiaketa intentsiboa jasan dute Urkiolan. Zura eta ikatza ateratzeko oso ustiatua izan da aurreko mendeetan, gainontzeko euskal mendiak bezala, beraz egungo egoera bere egoera naturaletik nahiko urrun dago. Gaur egun giza presioak behera egin duenez, bilakatzen doaz, egur mozketara gero eta urriagoekin; hala ere, aziendak eragiten duen gehiegizko presioak pagadiaren birsortzea eta hedapena oztopatu dezake, pagoen kimuak jaten baitituzte.

Urkiolako pagadi gehienak gazteak dira, 100 urtetik beherakoak, eta egitura ez da egokia: hauetako asko sustrai-pujetatik datoz, adin-egitura oso sinplifikatua dago zenbait-masatan, zuhaitz hilak oso eskasak dira eta sustraietatik birsortzeko gaitasunari buruz zalantzak daude, zenbait sektore oso bakantuta eta birsortze eskasa edo ezako baitaude. Mazel malkartsuen eta helezinetan basoaren egitura hobea da.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Baso hauen kontserbazio arazo nagusia egitura-heldutasunean datza, gehienbat birsortzeari eta, baso-fauna espezie batzuk behar dituzten zuhaitz zaharren eta zur hilaren gabeziari dagokionez. Pago-motzak dauden tokietan, mantentze-lanik ez egitea egitura hau kontserbatzeko arazo nagusia da.

Narcissus pseudonarcissus subsp. *nobilis* Batasunaren intereseko espeziea Urkiolako zenbait tokitan aipatu da (Mugarrako pagadi basofiloak, Asuntze eta Anbotoko pagadi azidofiloak, Saibigaineko basoak). Unada txikietan banatu ohi denez, azienda egoteak eta basogintza-landaketek eragiten diete.

Pagadi azidofilo eta basofiloa (9120 EB KOD., G1.64)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzioak		X		
Etorkizunerako igurikapenak		X		
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Artadi kantauriarrak: 9340 EB KOD.

Urkiolan artadiak 386 ha estaltzen dituzte, naturagunearen %6, bigarren baso naturala izanik azalerari dagokionez, pagadi basofilo eta azidofiloen atzetik. Mugarrako artadiak dira aipagarri, Artaungo goialdekoak, Albixkarrekoa eta, bereziki, Eskuagatxekoa. Baso hauek orientazio eguzkitsuari lotuta daude, lurzoru meheen lehortasuna areagotu eta maldak zenbait erabilera mugatzen dituen tokietan.

Artadien erabilera nagusia ikatza eta zura ateratzea izan da. Basogintza praktika baso-soilketa edo erabateko mozketa izaten zen: zuhaitzak oso behetik moztu eta zenbait urteen buruan prozesua errepikatuz. Hau dela eta, gaur egungo zuhaitzak oso azpitik adarkatuta daude eta ondorioz mendi-baxuaren egitura sinplifikatua dago, tamaina txikiko zuhaitzekin.

Beraz, Urkiolako KBEn artadi kantauriarraren egitura desegokizat jotzen da. Sustrai-pujetatik datozen zuhaitz gazte ugari basoa da, hazi bidezko birsortze eskasarekin, ahuntzek honetan zerikusia badutelarik.

Artadiaren segizioaren espezie tipikoekin bat (*Arbutus unedo*, *Laurus nobilis*, *Ligustrum vulgare*, *Rhamnus alaternus*, *Phillyrea latifolia*, *Smilax aspera*, etab.), Urkiolako artadietan EAEn banaketa mugatua daukaten zenbait espezie aipatu dira, hau da *Epipactis parviflora*, *E. microphila* y *Limodorum arbustivum*, *Cephalanthera damasonium* eta *C. longifolia* orkideen kasua.

Artadia (9340 EB KOD.)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzioak		X		
Etorkizunerako igurikapenak		X		
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*): 9180* EB KOD.

Baso hauek naturagune babestuaren azalera txikia estaltzen dute, hau da, azalera osoaren %0,34 (20,54 ha); azalera hau gutxi gora-beherakotzat hartu behar da baso hauek pagadi eta hariztiekin kontaktuan agertzen baitira zenbait kasutan eta baso mota baten eta bestearen artean desberdintzea zaila gertatzen da.

Habitat honen bakantasanak kontserbaziorako balio handia ematen dio. Aramotz eta Pagozelaiako goialdeko guneetan eta Eskuagatxeko ekialdeko hegalean kokatzen da. Anboto-Alluitzeko gailurrerriaren inguruan ere arboladitxo bat badago. Batzuetan baso mota hau artadiarekin kontaktuan agertzen denez Urkiolan, artadiaren orlako espezieak izaten ditu.

Malda handiko eremuetara eta kareharrizko irtenguneetara moldatutako zuhaitz eta zuhaixka ezberdinek osatzen dute eta honek baso egitura lausoa eta espezie zurkaren aniztasuna (lizarrak, astigarrak, gurbeak, haginak, urritzak, ezkiak, etab.) baldintzatzen du.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Lur malkartsu eta helezinetan hazten direnez, baso hauek ustiapen txikia jasan dute; soilik ahuntzak dabilta eremu hauetan. Hue dela eta, bere egitura eta funtzia eta etorkizunerako igurikapenak aldekotzat hartzen dira.

Amilburupeko baso mistoa (9180* EB KOD.)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera				X
Egitura eta funtzioak	X			
Etorkizunerako igurikapenak	X			
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Quercus robur nagusitzen deneko baso azidofiloa: G1.86 EUNIS KOD.

Urkiolan gaur egun haritz kandundunaren (G1.86) azalera txiki eta maila ezberdinetan eraldatuak mantentzen dira.

Orokorrean, giza jatorriko atzerakada fenomeno baten ondorioz azalera murriztua eta zatikatua daukaten orbanak dira. Bere kokapena, lurzoru sakon eta emankorreko ibar eta harana-hondoetan, baso-masa huetako askoren galera ekarri du, larre eta laborantza atlantikoek eta baso-landaketek ordezkaturia izan baita.

Urkiolak hariztiak, baso-landaketen arteko azalera txiki eta zatikatuetara mugatita daude. Harizti garbiak oso urriak dira eta diametro txikietako, sustrai-pujetatik sortutako baso-masak dira nagusi. Masa hauen joera da, zur-ustiaketarik gabe, formazio helduagoetarantz egingo dutela; dena dela, aziendaren eraginak birsortze naturala eta oihanpearen garapena mugatzen ditu, beraz, baso hauen kontserbazio egoera aldekoa izatetik nahiko urrun daude oraindik.

Hariztiak G1.86	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera			X	
Egitura eta funtzioak			X	
Etorkizunerako igurikapenak		X		
Kontserbazio egoera			Txarra	

Ingurune hauei lotutako intereseko flora

Narcissus pseudonarcissus gr nobilis-varduliensis.

Narcissus pseudonarcissus subsp. *nobilis* Batasunaren intereseko espeziea, EAEn zabaldua dagoena, Urkiolako zenbait tokitan aipatua izan da (Mugarrako pagadi basofiloak, Asuntze eta Anbotoko pagadi azidofiloak, Saibigaineko basoak).

Urkiolan espezie bakana da, nahiz eta han eta hemen ugaria izan.

<i>Narcissus gr pseudonarcissus</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak	x			
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Ingurune hauei lotutako intereseko fauna

Basoko hegaztiak: *Pernis apivorus* (zapelaitz liztorjalea) y *Hieraaetus pennatus* (arrano txikia).

Pagadi eta harizti helduak nahiago dituzten arren, baina koniferoen landaketa basoak eta baita landak eta belardiak tartekatzen dituzten basoak ere elikadura-eremu bezala erabiltzen dituzte. Nolabaiteko lasaitasuna eta asaldurarik gabeko baldintzak behar dituzte.

Arrano txikia basoko harraparia da baina zuhaitzi zabalak saihesten ditu, nahiago baititu landa eta basoen arteko txandatzak. Bere harrapakin nagusiak tamaina txikiko txoriak dira eta ugaztun txikietaz (satorrak, urtxintzak) ere elikatzen da.

Arrano txikia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzako habitata		x		
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Zapelaitz liztorjalea liztorren arrautza, larba eta helduetaz elikatzen da bereziki. Batez ere haritz eta pagoen basoetan bizi da.

Zapelaiz liztorjalea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzako habitata		x		
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Saguzarren komunitatea

Urkiolan aipatutako espezieen artean, basoarekin lotura handiena duten espezieak *Eptesicus serotinus*, *Myotis emarginatus*, *Pipistrellus pipistrellus* eta *Pipistrellus kuhlii* dira; ez dira ahaztu behar leizeetako saguzarrek ere habitat hauek elikatzeko erabiltzen dituztela.

Urkiolako kiropteroen komunitareari buruz ezjakintasun handia dago eta fauna talde honen barruan, basoko espezieen banaketa, populazioa eta joerari buruzko informazio gabezia are handiagoa da.

Kiropteroak	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera				Ezezaguna

Ornogabeak

Urkiolako baso-masak, batez ere helduagoak direnak eta zuhaitz zaharren eta zur hilaren zenbateko handiagoa dutenak, fauna ornogabearen komunitate anitza daukate. Aipagarriak dira Habitat Zuzentaruaren II. eranskinean sartutako ornogabeak: *Rosalia alpina* eta *Lucanus cervus* koleopteroak, *Euphydryas aurinia* tximeleta eta *Elona quimperiana* barraskiloa.

Rosalia alpina, gehienbat estai menditarreko eta zuhaitz zaharrak dituzten ondo kontserbatutako pagadi azidofiloei lotutako espezie xilofagoa da, baina bestelako zuhaitzetan ere aipatua izan da, betiere pagoaren inguruan. Urkiolako naturagunean aipatua ez izan arren, esparruan egon badagoela uste da.

Lucanus cervus kakalardo saproxiliko eta xilofagoa da eta bere garapen larbarioak zur hileko edo oso deskonposatutako zati handiak eta zuhaitz zaharren enborrak behar ditu *Quercus* generoko baso heldu eta ondo kontserbatutakoetan. EAEn nahiko ugaria da, batez ere, altitude ez altuegietako *Quercus* spp. espezieetako zabalera handietan, baina baita bestelako zuhaitz zaharrak mantentzen diren edozein tokietan ere. Koleoptero honen egoera ezezuguna da Urkiolako naturagune babestuan baina bere presentzia ziurtatuta dago honen hurbilean, Aramaion, Ibaratik Etxaguenerako errepidean eta Abadiñoako Mendiola auzoan, esaterako, beraz litekeena da naturagune babestuaren barruan aurkitzea.

Hostozabalen ale zaharrak eta eroriak mantentzeak berebiziko garrantzia dauka ornogabeen fauna aberats eta anitzaren sostengurako; basogintza teknika berriek fauna talde hau baztertu egiten dute, zuhaitz zaharren eta landaketetan jaregiten den egur kopurua murrizten baitute.

Elona quimperiana gasteropodoa formazio karstikoei eta, orokorrean, lurzoru kareduneko eremuei lotuta dago. Espeziea kobazuloetara sartu ohi da, hemen garatzen duelarik bere bizi-ziklo osoa. Pagadietako orbelean eta deskonposizioan dagoen haritz eta pagoen zur hilan ere aurki daiteke. EAeko kantauriar isurialde osoan ugaria da eta uren banalerroko mendien hego-isurialdean ere agertzen da.

Euphydryas aurinia tximeleta, Europan hedatutako lepidopteroa da eta Iberiar Penintsularen iparraldean bereziki ugaria. Baso ingurune es oso trinkoei lotzen zaio, baina eremu irekiagoetan, zuhaitzi eta larre mosaikoan eta erreken inguruetan ere aurki daiteke.

Ornogabe hauei buruzko informazioa Urkiolan (eta EAE osoan orokorrean) urria da, jarraipen espezifikorik egin ez da eta; ondorioz, haun populazioen zenbaki eta kontserbazio egoerari buruzko daturik ez dago.

Koleoptero saproxilikoak	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa eremua				x
Populazioa				x
Espeziearen habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera				Ezezaguna

<i>Euphydryas aurinia</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa eremua				x
Populazioa				x
Espeziearen habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera				Ezezaguna

<i>Elona quimperiana</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa eremua				x
Populazioa				x
Espeziearen habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera				Ezezaguna

Presio eta mehatxuak

Basoetan, multzoan, honako presio hauek identifikatu dira:

- Kanpoko espezieekin (B01.02.02) edo bertakoekin (B01.02.01) egindako landaketak, jabetza publiko zein pribatuko lursailetan, presio hau lursail pribatuetan handiago den arren.
- Oihanpearen (B02.03) eta zuhaitz zaharren edo hondatutakoen (B02.04) desagerpena. Hamarkadetan zehar egin izan den baso-masen ustiapen intentsiboak (ikatzgintza, bakanketak, egur-loteak) behera egin du azken urteetan, beraz presio hau murriztu egin da.
- Basoetan larratzeak (B06) biodibertistatearen aldetik egokia den zuhaixka eta belar-geruza bat mantentzea oztopatzen du. Aziendaren gehiegizko presioak pagadiaren birsorkuntza eta hedapena galaraz dezake, abereek pagoen kimuak jaten baitituzte.
- Ahuntzek (A04.02.04) artadien hazi-bidezko birsorkuntzari eta mehatxupeko flora populazioei kalte handia eragiten diete.
- Baso-orbanen zatikatze maila (B07) altua da.
- Pago-motzen basoetan basogintza lanak uztearen ondorioz adarrak gehiegi hazten dira zuhaitza desorekatu eta haize gogorrek ale batzuk botaraziz.

Narcissus espezieen mehatxu nagusia landareen bilketan (F04.01) datza, hauek botatzen dituzten lore ikusgarriengatik. Kasu zehatz batzuetan mendi-bideak irekitzeak edo baso-landaketek (B02) eragina izan dezakete eta baita azienda egoteak (A04.02) ere.

Basoetako hegaztientzako eragile mugatzaile bezala aipatu behar dira: habia egiteko zuhaitz egokien disponibilitate eza eta zuhaitz zaharren desagerpena (B02.04), bakanketa, mozketak eta egur-loteak bezalako basogintza esku-hartzeak (B02.04, B02.06) edota birlandaketarik edo birsortze naturalik gabeko baso-ustiaketa (B03). Habien espoliazioa (F03.02), ehiza (F03.01) edo aire-zabaleko kirolak (G01.02) eta aisialdiak (F04.02.02) eragindako asaldura (bezalako ekintza antropikoei ere kaltebera dira.

Basoko saguzarren kasuan, hautemandako kotserbazio arazo nagusiak, babesteko baso-masen (B01.02) eta zuhaitz zaharren (B02.04) desagerpena eta fitosanitarioen erabilpena (B04, A07) dira, bi eragile hauek txanda laburreko baso-landaketen nagusitasunarekin lotuak daudelarik. Beste mehatxu batzuk dira: hibernazio zein umatze babesleketan eragozpenak (G01.02), bandalismoa eta banakoen hilketak (G05.04), habitat naturalaren galera eta ehizatzeo habitataren narriadura, elikadura baliabideen aldetik (J03.01).

Koleoptero saproxilikoei dagokienez, presio eta mehatxuek lotura zuzena daukate baso-eremuen kasuan arestian aipatutakoekin, izan ere, ugalketarako zur hila eskuragarri edukitzea beharrezkoa dutenez, hariztien (*Lucanusen* kasuan) eta, neurri txikiagoan, pagadien (*Rosaliaren* kasuan) mozketak historikoaren ondorioz gertatutako habitat galeraren eragina nabaritu baitute. Eragile garrantzitsu da halaber: zuhaitz hilak edo hondatuak kentzea (B02.04) eta basogintza-praktika tradizionalak uztea, pago-motzak adibidez, espezie hauentzako bereziki onuragarriak baitira.

Beste eragile eta baldintzatzaileak

Basoei lotutako arazo nagusia bere azalera potentzialaren murrizpena da, basogintzarako landaketen aldean. Habitat hauen kontserbazioan modu esanguratsuan eragiten duten beste arazoak, masen zatikatzea eta egituraren sinplifikatzea da.

Horrela, Urkiolako pagadi gehienak gazteak dira, sustrai-pujetatik datoz, adin-egitura oso sinplifikatua dago zenbait-masatan, zuhaitz hilak oso eskasak dira eta badaude zenbait sektore non basoa oso bakantuta dagoen eta birsortze eskasa edo eza sufritzen duen. Artadiak ere egiturarekin lotutako arazoak dituzte, hau oso sinplifikatua baitago, sustrai-pujetatik datozen eta oinetik gehiegi adarkatuta dauden zuhaitz gazte ugarirekin.

Guztietan egitura-dibertsitate diametrikoa, espezie-dibertistatea (bai zuhaitzena eta baita zuhaixkena ere) eta zur hilaren presentzia (tamaina eta deskonposizio egoera ezberdinekin, lurrean zein zutik) sustatu behar dira; aldiz, lurzorua harrotzea eragotzi beharko litzateke, bai mendi-bideak egiterakoan eta baita basogintza-lanetarako makineriaren erabilerari dagokionean ere; ildo beretik, existitzen diren unaden zatikatzea ekidin behar da posible den heinean.

Urkiolako KBEan egiten den basogintza jarduera, insignis pinuaren baso-soilketan oinarritzen da gehien bat. Pinu honek estalitako azalera 1.068 ha-tik 825 ha-ra igaro da eta pinudi heldu edo tantai-basoa 827 ha-tik 465 ha-ra jeitsi da 2011n.

Baso-masen garrantziak parke naturalaren kudeaketa organoak jartzen dion arreta zuritzen du. Koniferoen soilketatik eta mendi publikoetako otadi, txilardi eta iratzedien erabateko mozketatik datozen azalera garbiak berreskuratu dira pagoa, eta honekin batera urkia, astigarra, hostazuria, hagina, etab. landatuz. Toki fresko edo hezeetan lizarra eta haltza erabili dira. 600 m-tik behera, estai muinotarrean, haritza landatu da, urkia, gartzainondoa, lizarra eta haltzarekin nahasita.

Urkiola parke natural izendatzea, eremu honetako hostozabaletako basoen kontserbaziorako bultzada erabakiorra izan zen. Urkiolako PNeko Natur Baliabideak Antolatzeako Planak basoaren erabilerak antolatzeako helburuak ezartzen ditu, honako hauek:

- Urkiolan zuhaitzek gaur egun betetzen duten azalerari eustea, basoko masa horien mota guztietako onurak eskuratzeko.
- Bertako masak hobetzea eta zainketa sustatzea, bere eratze zuzena, oparotasuna eta iraunkortasuna ziurtatuz.
- Kokapenagatik eta beste erabileretara egokitzeko aukera ez dagoen tokietan gomendatzen diren eremuen landaretza klimatikorantz eboluzio mailakatua sustatzea. Bestalde, degradatutako zonen zaharberitzea sustatzea.
- Parkearen egoera fitosanitario egoki baten alde lan egitea. Basoko izurrite eta gaixotasunak kontrolatzea, pertsona edo ingurunean ondorio kaltegarririk ez duten tratamendu egokien bidez.
- Koniferoen produkzio-birpopulaketak, jarduera hori burutzeko nahiko gaitasuna duten eta jarduera horrek eragin garrantzitsuak izango ez dituen zonetara mugatzea. Edozein kasutan, baliabide naturalei nahikoa babesa bermatuko dieten metodoak eta teknikak erabili, batez ere higadura-prozesuak saihestuz.
- Landaketa berriak egin baino, aurreko baldintzak betetzen dituzten produkzio-birpopulaketen errentagarritasuna areagotzea sustatzea.
- Baso-suteak prebenitu, antzeman eta aurre egiteko behar diren neurriak hartzea.

Eremuko azaleraren jabetza pribatua %64,5ekoa izanik, araudia aplikatzeak Parkearen barneko lursailetan egin daitezkeen erabilera eta aprobetxamenduetan zenbait muga dakartzanez eta basoetako jabe eta onuradunei sor dakizkiekeen kalte ekonomikoak saihesteko eta, bidenabar, horiek Parkearen funtzionamenduan txertatzeko, KAPE diru konpentsazioak bideratzeko jardunbide ezberdinak ezartzen ditu, lehentasunez aplikatuko direnak erabilera gehien murriztutako eremuetan. Errenta-galera eta espezieak aldatzeagatik, inpaktu txikiko teknikak erabiltzeagatik eta mozketak aldia luzatzeagatik konpentsatzeko bideak ezartzen dira.

Lursailak erosteko politikari esker, mendi publikoen azalera osoa 2.060 ha-tik 2.134 ha-ra hazi da, dagoeneko naturagune babestuaren %35,5ra iristen delarik. Azalera hau Herri Onurako 13 mendi katalogatuen eta herri ondareko 17 mendien artean banatzen da, azken horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak eta oraindik katalogatu gabeak.

Landa Garapen Iraunkorreko Programak (LGIP) kontserbaziora eta baso-inguruneetan Natura 2000 Sarearen garapenera zuzendutako laguntza-ildoak ezartzen ditu, honako ekintzak diruz laguntzen direlarik: bertako zuhaitzak dituzten eta ezaugarri ekologiko bereziak dituzten basotxoak zaindu eta birsortzea, hazkunde ertain-moteleko espezieak sustatzea eta mendiak kudeatu eta aprobetxatzeko eragin txikia duten teknikak erabiltzea.

Natura 2000 eremuak lehentasunezko toki-irizpidetzat hartzen ditu nekazaritza eta ingurumeneko laguntza hauek ematerako orduan. Gainera, Natura 2000 Sarearen barnean kokatutako lursailen laguntzaren intesitate handitzea planteatzen du.

Bizkaiko LHn indarrean dago 169/2010 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko basoak artatu, hobetu eta garatzeko sustapen-neurrien araubidea ezartzen duena. 2013-2014 kanpainarako, 83/2013 Foru Dekretua, ekainaren 11koa, aurrekoa aldatu eta osatzen duena. Diru-laguntzak 6 ildotan biltzen dira:

- 1. lerroa: Basoen balio ekonomikoa handitzeko laguntzak.
- 2. lerroa: Azpiegiturak hobetzeko eta garatzeko laguntzak.
- 3. lerroa: Baso-ingurunearen aldeko laguntzak.
- 4.1. lerroa: Kaltetutako basoen potentziala berreskuratzeko laguntzak.
- 4.1.1. lerroa: Intsignis pinudi (*Pinus radiata*) zaharretako arrisku fitosanitarioen aurkako laguntzak.
- 4.1.2. lerroa: Haizeteek, baso-suteek eta beste hondamendi natural batzuek kalteturiko basoen potentziala berreskuratzeko laguntzak.
- 4.1.3. lerroa: Gaixotasunak eta izurriteak eraz daitezten jarduera-programetarako laguntza-neurriak.
- 4.2. lerroa: Prebentzioko basogintzarako laguntzak baso-sutearen kontrako borrokan.
- 5. lerroa: Basoetako inbertsio ez produktiboetarako laguntzak.
- 6-A lerroa: Lurralde-laguntzak: baso-berritzeak.
- 6-B lerroa: Lurralde-laguntzak: basoko makineria autopropulsatua.

Arabari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak 112/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa basogintzarako laguntza plana onartzen duena argitaratu zuen, 2009, 2010 eta 2012. urteetan aldaketak onetsiz. Araudi honen babespean urtero basogintzarako diru-laguntzak iragartzen dira, titulartasun publiko zein pribatuko mendietarako. Planteatzen diren laguntza hauen helburuen artean azpimarratzekoa da «*Natura 2000 sarearen bidez ingurumena eta biodibertsitatearen garapen positiboa*»ri dagokiona. Kasu askotan laguntzaren kopuruaren zenbatekoa handitu egiten da jarduketa Natura 2000 Sareko eremuetan kokatzen bada. Honen harira, nabarmentzekoak dira baso ingurunearen aldeko neurriak, «*habitatak eta EAEn Natura 2000 sarea osatzen duten espezieak mantendu eta lehengoratzea*» bezalako jarduketak kontuan hartzen dituztenak, hala nola:

- Bertako zuhaitzak dituzten eta ezaugarri ekologiko bereziak dituzten basotxoak zaindu eta birsortzea.
- Basogintza mugatzea espezie zehatz batzuekin.
- Mendiak kudeatu eta aprobetxatzeko eragin txikia duten teknikak erabiltzea.
- Ibai ertzetako landaredia berreskuratu eta zaintzeko.

Urkiolako Parke Naturaleko kudeaketa organoak egindako inbertsioak aipagarri dira, honako alderdi hauetan: lursailen eta baso-masen mantentzea eta leheneratze ekologikoa, baso-bideen hobekuntza, erabileren konpentsazio-laguntzak eta basogintza eta abeltzaintzarako laguntzak. Hau dela eta, 2012an 163.250 euroko kopurua kudeatu da; 449.791 eurotara igo dena 2013an. Azken urteotan parke naturalaren kudeaketara zuzendutako aurrekontua, guztira 507.881,77 € eta 849.295,44 €-koa izan da hurrenez hurren.

3. SASTRAKADIAK ETA LARREAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- Txilardi lehor europarrak: 4030 EB KOD.
- Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskadunak: 4090 EB KOD.
- Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*): 6210 EB KOD.
- *Nardus*-dun formazio belarkarak, espezie ugarikoak, eremu menditarreko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditarretako) silize-substratuetan: 6230* EB KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Goimendiko eta landazabaleko hegaztiak: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) eta antzandobi arrunta (*Lanius collurio*).

Kontserbazio egoera

Urkiolan habitat hauek garatzen dira: 4030 (Txilardi lehor europarrak), 4090 (Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskadunak), 6210 (Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak *Festuco-Brometalia*) eta 6230*, lehenetsuneko habitata (*Nardus*-dun formazio belarkarak, espezie ugarikoak, eremu menditarreko eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditarretako silize-substratuetan).

Txilardi-larre mosaikoak Urkiolako azaleraren %15 inguru hartzen du (953 ha). Habitat mota hau erabilera tradizionalei erabat lotuta dago, beraz nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenen edozein aldeketek asko eragiten diote. Orekan azaltzen da mosaikoa osatuz eta sarritan gradientean agertzen da txilardi trinkoenetik larreetara landa irekiago edo itxiagoetati pasatuz. Benetan mosaiko formazioa da multzo honi balioa ematen diona, habitat mota baikoitzak estaltzen duen azalera garbia baino.

Txilardi lehor europarrak: 4030 EB KOD.

Txilar espezie ezberdinak nagusitzen diren tamaina ertaineko sastrakadiak osatzen dute. Otadi eta txilardiak bertako basoen ordezkapen fasea dira, jatorrizko basoaren mozketak sorturikoak; Urkiolaren kasuan jatorrizko basoak pagadiak dira. Lurzoru oso azidifikatu eta oligotrofoetan garatzen dira, prezipitazio ugariko lekuetan ohikoak.

Txilardi hauek Urkiolan 197 ha hartzen dituzte, naturagune babestuaren azaleraren %3,28. Urkiolako esparru osotik banatzen dira, gehienbat hegoalde eta ekialdean, Urkiolamendi, Izipitze eta Makatzetako baso-mozketen ondorioz libre geratutako lursailetan, hedapen oso zatikatuarekin.

Txilar espezie ezberdinak nagusitzen dira: *Erica cinerea* eta *Erica vagans*, *Calluna vulgaris*-ekin batera. Habitat mota hau jasaten duen abeltzaintza erabilerrari zuzenean lotuta dago: azienda-zama handia bada, bazka-larreetarantz egingo du eta alderantziz, abeltzaintza erabilera bertan behera utziz gero, otea (*Ulex* sp.) edo iratzea (*Pteridium aquilinum*) gailenduko lirakeke.

Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskadunak: 4090 EB KOD.

Kuxin-formako sastrakadiak eta larre eta tamaina ertaineko sastrakadiak osatutako mosaikoak sartzen dira muino, magal, gailur eta harkaiztietako erlaitzetan, lurzoru karetsu edo margatsuen gainean hazten den habitat mota honetan. Honi lotutako beste habitat batzuekin (larre menditarrak, *Brachypodium* nagusitzen den belardiak edo kareharrizko harkaiztietako landaredia) mosaikoan azaltzen da. Habitat mota honen espezie tipikoak *Genista hispanica subsp. occidentalis* eta *Erica vagans* dira, *Brachypodium pinnatum* eta *Helictotrichon cantabricum*-ekin batera.

Habitat hau, aurrekoa bezala, baso potentzialen ordezkapen fasean agertzen da, kasu honetan, substratu karedunen gainean eta bere kontserbazioa neurrizko abeltzaintza estentsibo bat mantentzearen mende dago. Urkiolan hedatuago daude txilardi azidofiloak baino (323,42 ha, hau da, naturagune babestuaren %5,37). Leungane y Aramotzeko iparraldean biltzen dira, baso (pagadiak, artadiak, koniferoen landaketak), elordi eta harkaitzen arteko mosaiko batean.

Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*): 6210 EB KOD.

Belardi hauek lore-konposizio anitzekoak dira. Zenbait kasutan alka edo albitza (*Brachypodium pinnatum*) da nagusi, baina besteetan graminea ezberdinak nagusitzen dira, hauen artean *Bromus erectus* eta *Festuca gr. rubra* nagusiki. Lurzoru karetsuaren eragina nabariago den tokietan, pre-txilardiak belardiari aurre hartzen dio, *Erica vagans* izanik trantsizio honetan beti agertzen den espeziea. Abeltzaintza uzten denean kontaktuan dauden sastrakadietako zuhaixka eta sastraka batzuk hazten dira, bereziki 4090 habitateko espezieak, izan ere, denborarekin habitat honetarantz bilakatzen baita.

Larre mesofiloek Urkiolan 131 ha hartzen dituzte, hau da, naturagune honen %2,18.

Eremu altuenetako magal eta muinoetan hazten dira batez ere, lurzoru karedunetan, Anboto eta Mugarran eta baita Untzillaitx eta Alluitzeko hegoaldeko magaletan. Belardiek honako habitat hauekin mosaikoa osatu dezakete: pre-txilardiak, larre harritarrak, iratzedi eta otadiak eta larre menditarrak.

Aipagarria da habitat honetan Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean sartutako bi lilipa hauek agertzen direla: *Narcissus asturiensis* eta *N. pseudonarcissus spp. nobilis*.

6210 habitata, lehentasunekotzak jotzen da baldin eta orkidea ugari badaude. Urkiolako larre hauetan hazten diren *Ophrys apifera* eta *O. scolopax* orkidea bitxien edo arruntagoa den *O. mascula* espezieen presentzia ez da nahikoa bikaintzat eman eta habitat honen lehentasuneko aldaeratzat hartzeko.

Nardus-dun formazio belarkarak, espezie ugarikoak, eremu menditarreko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditarretako) silize-substratuetan: 6230* EB KOD.

Habitat honi dagozkion larre menditarrak zelai fin eta trinkoak dira, altuera txikikoak eta artaldeak, zaldiak, behiak eta ahuntzek erabiltzen dituztenak. Udaberri eta udako, urte-sasoiko bazkatze-lekuak dira: Larrano, Asuntze edo Artolakoak esaterako.

Abeltzaintzak paisaiari antzina-antzinatik kendutako pagadiak dira ezartzen diren eremuetako landaredi-potentziala. Habitat honetan sartzen diren larre menditarrek fisionomia berezia daukate, uda amaiera arte berde eta fresko mantentzen diren belar meheko estalkiak osatzen dituelarik. Aziendak erabilera intentsoagoa darabilten tokietan *Festuca gr. rubra* eta *Agrostis capillaris* nagusitzen dira. Eremuka, txilarrez edo oteaz zipriztinduta edo guztiz hartuta agertzen dira: honek adierazten du abeltzaintza jarduera txikiagoa dagoela; larre harritarreien eta *Brachypodium pinnatum*-eko belardiekin ere mosaikoa osatzen du.

Urkiolan dexente zabalduta daude: 281 ha hartzen dute, naturagune babestuen azalera osoaren %5 eta txilardi-belardi mosaikoaren %30, hain zuzen.

Landare belarkarak dira nagusi, batez ere zenbait gramineo soropildu, abereen hortzek ebaki ondoren kimu berriak ematera egokitu direnak eta etengabe zapalduak izan arren, puskatu gabe irauten dutenak.

Urkiolako sastrakadi eta larreak nahiko hedatuak daude oro har. Bere kontserbaziorako, aziendaren eraginaren mende daude eta abere-kargaren presioaren eta sastrakadi eta belardi mota ezberdinen arteko oreka topatzea beharrezkoa da. Gehiegizko abere-karga batek txilardiak belardietara bilaka daitezten eragiten du; aldiz, presio honen beherakada gogorak sastrakadiaren nagusitasuna ekarriko luke. Neurrizko abere-karga batek, ardiak batez ere, habitat mosaiko honen egitura ezaugarriak mantentzea ahalbidetzen du, azienda honek tamaina handiagoko zuhaixka edo zuhaitzez betetako egoeretarantz bilakaera ekiditeko egiten duen presioa dela eta.

Abere-karga edo abere-taldeen benetazko banaketaren jarraibideak aztertze daturik ez dago; hala ere, irisgarritasun errazekoak diren edo edateko ur-puntuak dituzten eremuak (Asuntze, Zabalandi) askoz ere erabiliagoak direla antzematen da, txilardiak nagusi diren beste tokien aldean (Aramotz).

Ardiak latxa arrazakoak dira, esne-ekoizleak, eta Urkiolako larreak jeitzialdiaren ondoren, gutxi gorabehera ekainetik abendurainoko tartean, erabiltzen dituzte. Azienda larria, behi zein zaldizkoa, haragitarako bideratzen da. Hauek, ardien aldean, denbora gehiago igarotzen dute mendian eta ustiapenak txikiagoak izaten dira.

Informazio gabezia dela eta, ezinezkoa da sastrakadi-belardi mosaiko honen kontserbazio egoera zehaztu, beraz habitat hauen kontserbazio egoerari buruzko balorazioak adituen iritzietan eta erreferentziazko dokumentu teknikoek diotenen oinarritu dira.

4030, 4090, 6210, 6230* EB KOD.	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera	X			
Egitura eta funtzioak	X			
Etorkizunerako igurikapenak	X			
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Habitat hauen etorkizunerako igurikapenak onak direla uste da, abeltzaintza jarduera bizia egiten jarraitzen baita, bai titulartasun publikoko baita jabetza pribatuko lursailetan ere eta abere-kargaren joera esparruan egonkorra dela dirudi.

Abeltzaintzaren antolamendua eta bere eraginen jarraipena, kudeaketarako baliabide egokitzat jotzen dira. Ildo beretik, zaldi- eta ahuntz-aziendak kontrol gutxiago dutenak dira, azken honen kasuan bereziki, toki batetik bestera mugitzen direnez bere bazkatze-jarduera eremu zehatz batera mugatzea ezinezkoa baita.

Aziendaren kudeaketak sistema tradizionalen berreskurapena beharko luke, hauetan artzainek taldea zuzendu egiten zuen; gaur egun, ordea, abereak aske dabilta bazkatze tokiak aukeratzeko.

Habitat hauek berebiziko garrantzia dute hegazti nekrofagoen eta harraparien komunitate anitzaren sostengu bezala. Komunitate hauetako espezie asko mehatxupearan daude eta habitat horiek larretze-eremu bezala erabiltzen dituzte, elikadura bilatzeko orduan.

Habitat hauetaz gain, beste batzuk ere aurkitzen dira: putzu edo urmael txikiak, istingak edo heskaiak, bertako mikrohabitaten aniztasuna handitu eta espezie ezberdinak agertzea ahalbidetzen dute.

Ingurune hauei lotutako flora

Narcissus asturiensis, Habitat 43/92/CEE Zuzentarauaren II. eranskinean sartutako espeziea Leungane eta Aramotzen topatu da. Bizkaiko kareharrizko mendietan nahiko ugaria da eta ez dirudi kontserbazioa arazo garrantzitsurik duenik.

<i>Narcissus asturiensis</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak	x			
Kontserbazio egoera	Aldekoa			

Ingurune hauei lotutako fauna

Goimendiko eta landazabaleko hegaztiak: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*) eta belatxinga mokogorria (*Pyrrhonorax pyrrhonorax*).

Espezie hauentzako habitat aproposa, altitudetan kokatutako eta aziendak aldizka erabilitako larre eta mendibaxuko eremu irekiak, gailurretako belardiak eta trantsizio-faseak (otadiak, txilardiak, iratzediak, etab.) dira. Belatxinga mokogorriaren kasuan, bere umatze-eremua 800 m-tik gorako pareta harrokatsuetan kokatzen da.

Ota-txinboa (*Sylvia undata*), mirotz zuria (*Circus cyaneus*) eta zata arruntaren (*Caprimulgus europaeus*) ugaltze-eremuak aipagarriak dira, eta baita belatxinga mokogorria (*Pyrrhonorax pyrrhonorax*) eta mokohoriarenak (*Pyrrhonorax graculus*) ere, harkaitzietan habia egin eta larre menditarretan elikatzen direnak.

Goimendiko eta landazabal atlantiarreko espezieak	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzako habitata		x		
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

EAEn duten banaketa mugatua dela eta, nabarmentzekoa da mendi-soilguneetako paseriformeen komunitatea: mendi-tuntuna (*Prunella collaris*), ipurzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), mendi-txirta (*Anthus spinoletta*), pitxartxar nabarra (*Saxicola rubetra*) eta zozo paparzuriaren (*Turdus torquatus*) populazio finkatuak badaude. Elur-txonta (*Montifringilla nivalis*) eta elur-berdantza (*Plectrophenax nivalis*) neguko bisitariak dira.

Presio eta mehatxuak

Habitat hauek nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak, zehazki abeltzaintza estentsiboa, mantentzeari lotuta daude. Ereku bakoitzean azienda-karga egokia mantentzea elementu gako hau osatzen duten habitat multzoaren kontserbazioaren aldekoa da; elementu gakoa sastrakadi eta larre menditarren mosaikoaz osatuta baitago. Horrela, erabilera intentsitatean egindako aldaketek habitat hauen egungo korrelazioan aldaketak ekarriko ditu, batzuen alde eta besteen kalterako.

Altuerako abeltzaintza sistemak uztea (A04.03), sastrakadien (4030 edo 4090 EB KOD.) azalera handitzea eta larre-menditarren (6230 EB KOD.) azalera murriztea ekar lezake.

Larre menditarrei eragin diezaieketen beste presioak honako hauek izan daitezke: abeltzaintza intentsiboa (A04.01) karga-gaitasuna gaituz gero; eremu batzuetan gehiegizko zapalketa (G05.01), higadura prozesuak (K01.01) lurzoru txiroko zenbait sektoretan eragin eta espezie bereizgarrien birsortzea ekidin (G05.01) dezakeena, bidexken ugaritzea txangozaletasunaren ondorioz (G01.02).

Habitat honi lotutako intereseko flora espezieei dagokienez, gehiegizko abeltzaintzak (A04.01) eta kontrol-gabeko ahuntzen larratzeak (A04.02.04) eragin diezaiekete. Mendizaleak loreak biltzea (F04.01) ere presio esanguratsua izan daiteke.

Txilardien kasuan, arestian aipatutako presioez gain, honako hauek txilardiak andeatu ditzaketela esan daiteke: sasi-garbiketak (A03), herbizida eta ongarriak gehitzea (A07 eta A08) edo bidexkak eta medi-bideak irekitzea (D01.02).

Ereku menditarretako eta landa atlantikoko hegaztiei dagokienez, mehatxu nagusiak lurzoruaren erabileretatik datoz: su-erateak (J01.01), sastrakadien luberriketa-lanak egitea (A03), baso landaketak (B02.01), abeltzaintza estentsiboaren intentsitatea jeistea (A04.03) eta aisialdi- eta kirol-ekintzek eragindako eragozpenak (G01.02, F04.02.02).

Beste eragile eta baldintzatzaileak

Habitat hauek kudeatzeko desabantaila garrantzitsua larre gehien izaera pribatua da, izan ere honek, kontserbazioari begira antolatzea zailtzen baitu.

Sistema orekan mantentzeko karga-gaitasun egokia eta Urkiolan izan duen bilakaera ezezagunak dira, beraz ezin da sistemaren bilakaera aurreikusi. Gerta daiteke abeltzainen zenbakiak behera egitea, belaualdien arteko ordezkapenarik ez bada gertatzen, edo ardi eta behi-aziendak behera egitea, zaldizkoen alde, esaterako. Horrela gertatuz gero, egutegiak eta txandaketak ondo antolatu beharko lirarteke, kontserbazioa eta bazkatze-eskaintza bateragarriak izan daitezkeen azalera aukeratu daitezke.

Abere-kargak eragin guztiz ezberdina dauka landare-estalduran aziendaren kudeaketaren arabera: sistema tradizionalan, artzainak beti bertan, taldea zuzentzen zuten, aldiz, egungo sistemak kudeaketa ez dago hain bideratua, ondorioz, espezieen arteko lehiakortasun txikiagoa dela eta, bazkatzeko lekua aukeratzeko aziendak askatasun gehiago dauka.

Euskadiko 2015-2020ko Landa Garapenerako Programak (LGP) biodibertsitatea, batez ere Natura 2000 Sarearen barneko eremuetan, eta natur-balio handiko nekazal-sistemak leheneratu eta babesteko neurriak ezartzen ditu, nekazal-ekoizpen eta jardute-sistema jasangarriagoak sustatuz.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, Abeltzainen Elkarteei diru-laguntzak ematen dizkie mendiko herri-larreak Bizkaiko LHan kudeatzeko eta, alde batetik, sektorearen ekonomiaren aldekoak diren eta, bestetik, lurralde historikoko mendi publikoen mantentze eta kontserbazioaren aldekoak diren ekintzak egin ahal izateko.

Nekazaritza eta Ingurumeneko Neurrien barnean dagoen neurri honen xedea mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa egokia da, abeltzaintzaren garapenarekin eta kudeaketa konpromezu jakin batzuk betetzearekin bat datorrena, mendiko larreek ekoizpen, natura eta paisaia-funtzioak elkar ditzaten.

Diru-laguntzak emateko, beste baldintzen artean, abeltzainek bete beharreko erabilera, hobekuntza eta kontserbazio urteko programa bat ezartzen da eta baita honako alderdi hauek kontuan hartuko dituen urteko kudeaketa plan bat ere: basoko larreak erabili eta nekazaritza-ustiatzearen jabe diren abeltzainen zerranda, basoko larreak aprobetxatzen dituen ganaduaren zentsuak (abeltzain bakoitzarena), ganaduaren sarrera-irteeren egutegia eta hobekuntza-lanen proposamenak (sasiak garbitzeko lanak, harrizko horma eta artegiak, bordak eta bestelako eraikuntza edo instalazio tradizionalak mantentzekoak, eta lurrak ongarriztekoak).

Halaber, kalte-ordaina jaso ahal izango da, jabetza pribatua edo bidezko ondare-eskubide eta interesetan gabeziak edo mugaketak eragindako errentagarritasun galera gertatzen denean, Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideak Antolatze Planak eta Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileak ezarritako restriktzio eta mugaketak indarrean jartze aldera.

4. TRANTSIZIO ZOHIKAIZTEGIAK 7140 EB KOD.**Kontserbazio egoera**

Izen horrek KBEn dauden eta landaredi turbofiloa duten hezegune txikiak bateratzen ditu. Ez daude Batasunaren intereseko habitat gisa behar bezala erregistratuta Habitaten 43/92/CEE Zuzentarauaren I. eranskinean, ez eta «Europar batasuneko Habitatak Interpretatzeko Eskuliburuan» ere. EAEn kontserbazioarekin lotutako komenientzia arrazoiengatik, habitat horrek 7140 kodea du.

Hezegune txikiak osatzen dute habitat hau (guztira, Urkiolako naturagune babestuaren azaleraren % 0,08 osatzen dute). Hezegune horiek iturburu-eremuan eta jario-guneen inguruan agertu ohi dira. Inguruan kareharria egotearen edo ez egotearen arabera, esfagno gehiago ala gutxiago egongo da. Inguru honetako flora aberatsa eta askotarikoa da. Espezieak komunitate desberdinetan elkartzen dira uholde-mailak eta uraren mugimendu-graduak definitutako mikroinguruneen arabera.

Urkiolako KBE guztian zehar daude, baldintza hobereenak dauden puntuetan: ur-presentzia iraunkorra eta sakonune txikiak.

Zohikaztegi hasiberriak dira, gehienbat mendi-lepoetan, mazel hezeetan eta silize-substratuen gaineko iturburuetako enklabeetan daudenak. Duen ekologia bereziengatik, ez daude horrelako habitat asko eta haien azalera txikia izan ohi da. KBEn enklabe horiek Makatzeta, Saibi Txiki, Urkiolamendi, Pol-Pol eta Eskubaratzeko lekuetan kontzentratzen dira. Handienak, nahiz eta orokorrean txikiak izan, Pol-Pol eta Urkiolamendikoak dira. Pol-Poleko gunean askotariko landare-formazio higrofiloak daude (zohikaitz-txilardiak, kuxin itxurako esfagnoak, etab.). Gunean degradazio-sintomak ikusten dira ganaduarengatik eta bisitari ugariengatik.

Bi barietate desberdintzen dira: zingira eutrofoak, kareharrizko harkaitzetatik gertu garatu direnak, eta oligotrofoak. Lehenengoetan, *Campylium stellatum* var. *stellatum*, *Calliergonella cuspidata* eta *Philonotis calcarea* goroldioek osatzen dute goroldio-geruza. Esfagnoak ager daitezke, baina ez dira ohikoak, kokapen periferikoak hartzen dituzte edo espezie eutrofiloak izaten dira (*Sphagnum auriculatum*). Espezie intsektujaleen artean *Drosera rotundifolia* gehiago ala gutxiago ager daiteke, baina gehienbat *Pinguicula grandiflora* agertu ohi da.

Kareharrizko harkaitzetatik urrun dauden eremuetan garatutako zingira oligotrofoetan, ioi eta beste elikagai gutxiko uretan, goroldio-geruzan esfagnoak agertu ohi dira edo nagusi dira, eta askotarikoak dira. Landare oso azidofilo batzuk fazies oligotrofo horretan bakarrik agertzen dira, edo aurreko eremuan baino gehiago agertu ohi dira, hala nola *Erica tetralix*, *E. ciliaris*, *Pedicularis sylvatica* eta *Potentilla erecta*, edo *Drosera rotundifolia* intsektujalea.

Urkiolako KBeko zingira azidofiloetan eta esfagnaletan flora hidrofilo aberats eta askotarikoa bizi da; azpimarratzekoak dira esfagnoen populazio onak eta *Drosera rotundifolia* eta *Pinguicula grandiflora* landare intsektujaleak.

Urkiolako zingiren kontserbazio-egoera oso desberdina da ganaduek bertara duten sarbidearen arabera. Eremu batzuk degradatuak daude, eta beste batzuek kontserbazio-egoera onargarria dute. Esfagnal batzuk —ez denak— 1997an hesitu ziren ganaduaren eraginarengandik babesteko, eta esfagnalen eboluzioa jarraitzeko programa bat garatu zen. Gaur egun itxitura batzuk bertan jarraitzen dute, baina ganaduak beste batzuk bota ditu, adibidez Pol-Polen edo Urkiolamendin.

Orokorrean, esfagnalen egoera desegokia dela kontsideratzen da enklabea fragmentatu delako eta tamaina txikia duelako, baita ganaduaren eta beste presioengatik ere (ur-harguneak, drainatzeak, pistak, etab.).

7140 EB KOD.	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera		X		
Egitura eta funtzioak		X		
Etorkizunerako igurikapenak		X		
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Tradizionalki gune horiek ganaduaren eraginetik babesteko hesitu izan dira, baina azken urteetan praktika horren aurkako iritzia sortu da. Kasu batzuetan, enklabe horiek ganaduaren eraginarengandik babesteak intsektujaleekin lehiatzen duten espezieak haztea sor lezake. (Patxi Heras, komunikazio pertsonala).

Ondorioz, ingurune horiek kudeatzeko alderdi gakoa da kontserbaziorako ganadu-karga hobereena jakitea; zingira/esfagnalak kontserbatzeko neurri nagusia haien egitura eta funtzioa hobeto ezagutzea da, oraindik habitat ezezagunak baitira, nahiz eta azkenaldian lanak egin diren, batez ere haien eta ganaduaren arteko harremanaren inguruan. Esfagnalen aldi behingo jarraipenak esango du, kasuan kasu, ea beharrezkoa den baten bat hesitzea edo ganadu-karga murriztea, eta gaian adituak direnek esango dute zenbat denborarako egitea beharrezkoa den.

Presio eta mehatxuak

Gehiegizko ganadu-karga (A04) esfagnalen degradazioaren kausa ohikoena da, dituen hiru eraginengatik (landaredia larratzea, ezaugarri edafologikoak aldatzea eta eutrofizazio arriskua).

Ganaduak efektu desberdinak sortzen ditu (larratzea, simaurtzea eta eutrofizazioa, zabaltzea eta lurraren enkaitzea). Hala ere, ganaduak sortutako kaltearen larritasuna ganadu-kargaren arabera izango da. Ganadu-presio altuak landaredia sakonki aldatzen du eta habitataren egitura eta funtzioa suntsitzen ditu, baina ganadurik ez badago, habitateko landarediak etengabeko transformazioa eta zarpailtzea jasaten du, eta horrek espezie baliotsuak galtzea ere eragin lezake. Ganaduaren presentzia moderatuak enklabeen iraupenari mesede egiten dio, eta dibertsitate ekologikoa mantentzen lagun dezake.

Abeltzaintza-jarduerarekin lotutako beste afekzio bat baldintza hidraulikoetan sortutako aldaketak (J02) dira, gune horiek lehortu direlako (J02.01) edo ganaduentzat askak eraikitzeke kanalizazio eta ur-desbideratzeak (J02.03) egin direlako.

Ondorengo alderdiek, beste batzuez gain, Urkiolako zingiren kontserbazio-egoera baldintzatzen dute: zingiren aldameneko espezie aloktonoen baso-landaketak (B01.02) eta basogintza-lanak, hala nola arraseko mozketak (B02.02), makineriaren inbasioa edo hondakinen isurketak (H01.05).

Beste eragile eta baldintzatzaileak

Azken urteetan EAEn 7140 Habitataren kontserbazio-egoera eta ezagutza hobetzeko jarduketak sustatu dira. Ikerketak eta itxiturak egin dira honako parke naturaletako zenbait enklabe babesteko: Urkiola (1995 – 2004), Gorbeia (Larreder, Orozko eta Arkarai–Burbonako aldeak, 2001 – 2007) eta Izki (2003 – 2008), baita Jaizkibel (2002 – 2009), Arbarrain, Belabieta eta Usabelarta (2008 – 2009). Ekintza horiei esker EAEn habitat horren presentziaren ezagutza handiagoa dugu.

2009tik aurrera, zegoen informazio guztia bildu eta eguneratu da. Komenigarria litzateke habitat honetan parke eolikoaren inpaktua zein den jakiteko ikerketak egitea (Azkorra *et al.* 2008, Heras & Infante 2008), baita hezkuntza eta dibulgazioko ekimenak ere (Larreder, Arkarai), publiko orokorraren eta bertako populazioaren artean habitat horren baloreen ezjakintasunaren eta estimu faltaren aurka borrokatzeko.

Urkiolako KBEko zingira-esfagnalak EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean daude.

5. IBAI-SISTEMA: ERREKAK, ERREKASTOAK ETA HAUEI LOTITAKO HABITAT NATURALAK

Batasunaren Intereseko Habitatak:

- *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko ibar basoak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*): 91E0* EB KOD.

Ingurune horiei lotutako intereseko fauna:

- Anfibioak: baso-igel iberiarra (*Rana iberica*), uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris*).
- Ornogabeak: ibai-karramarroa (*Austropotamobius italicus*).

Kontserbazio egoera

Urkiolako eremu babestuaren azaleraren zati handi batean (gutxi gorabehera % 60) formazio karstikoak daude eta ur-zirkulazioa gehienbat lurrazpikoa da. Lurrazaleko zirkulazioa erreka txikietako goi-ibarretan eta Mañaria, Mendiola eta Urkiola ibaietako goi-tarteetan bakarrik dago.

Hala ere, ur-ibilbide horiek natura-balio handia dute, intereseko landaredia eta fauna dutelako eta lotura-ekologikoen funtzio garrantzitsua dutelako.

Ibaiertzetako baso/haltzadiarekin (EB 91E0* KOD) lotutako landaredia banda estu bat da, zati handi batean baso-landaketak hartua. Horregatik, habitat honek bere ondoko ekosistemekin duen konektibitatea txarra dela kontsideratzen da. Bestetik, ibaiertzeko baso honen egitura ez da egokia, zuhaitz urtetsu gutxi daudenez, basoa gazte samarra delako.

Haltzadiak parkeko ubide ia guztietan daude, Urkuleta Iturriotz, Txakurzulo, Mendiola, Urkiola eta Oletako sakanetan. Mazel eta soilguneak kolonizatzen dituzten unada edo zuhaitzi gisa, haltzadiak Aldebaraieta, Dantzaleku, Saibi eta Makatzetako sakanetan daude. Gaur egun KBEko hondakin-basoak dira. Gune interesgarrienak Aldebaraieta, Inunganeko eta Dantzalekuko sakanen goialdeak, eta Olaetako eta Urkiolako haraneko haltzadiak dira.

Haltzadia (91E0* EB KOD.)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Azalera			X	
Egitura eta funtzioak			X	
Etorkizunerako igurikapenak	X			
Kontserbazio egoera			Txarra	

No se dispone de datos de la calidad de las aguas de los cursos fluviales incluidos dentro de la delimitación de la ZEC Urkiola, aunque se presupone que ésta es buena, ya que no existen puntos de vertido de aguas industriales ni de núcleos urbanos de entidad. Tampoco la actividad agroganadera parece afectar a la calidad de las aguas, salvo posibles alteraciones puntuales y muy localizadas, relacionadas con la presencia de ganado en la parte alta de los arroyos, que en cualquier caso no revisten trascendencia.

Urkiolako KBEko mugaketaren barruko ibai-ibilbideetako uren kalitatearen inguruko daturik ez dago. Hala ere, kalitatea ona dela uste da, ez baitago ur-industrialen isurketa-punturik edo herrigune handirik. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduketak ere badirudi ez duela eraginik uretan. Badira aldaketa puntual eta oso lokalizatu batzuk, erreketako goi-tarteetan ganaduaren presentziarekin lotuak, baina, dena dela, ez dute garrantzirik.

Ur-korridore funtzioari dagokionez, KBE 3 arrain-espezie daude: amuarraina (*Salmo trutta fario*), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*) eta mazkarra (*Barbatula quignardi*). Noizean behin loina (*Parachondrostoma miegii*), 92/43/EEE Habitat Zuzentzaurren II. eranskinean dagoena, Urkiola ibaiaren ubidea igo eta babestutako eremuan sar daiteke, baina oso noizean behin egiten du.

Uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris*) baso-ingurune hezei loturiko espeziea da. Berarentzako habitat hoberena pagadiak eta mendiko larreak dira, eta bertan ur-landaredi apur bat duten putzuak erabiltzen ditu. Urkiolan ez da ingurune horietan aurkitu, baizik eta ibai-ibilbideekin lotuta; zehazki, soilik Dimako zentral hidroelektrikoko urtegia aurkitu da. Urkiolan, espezie horren populazioa intentsitate baxukoa da, eta hedapena murriztua. Baliteke horren kausa izatea espeziearen banaketaren ekialdeko muturrean duen banaketa-eredu kutsakorra, baina, Urkiolan duen banaketa ez da ezaguna, ez baita ikerketa zehatzik egin.

Uhandre alpetarra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				X
Populazioa				x
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera				Ezezaguna

Baso-igel iberiarra (*Rana iberica*)

EAEn³ baso-igel iberiarra hiru nukleo independenteetan fragmentaturiko guneeetan dago banaturik: Bizkaiko erdialdeko kostaldeko (Urdaibai), Gorbeia mendimultzoko inguruko mendietako eta Asongo (Karrantza) arroko goialdeko ibai-tarteetan. Lurraldeko gainerako lekuetan ez da ohikoa espezie hori ikustea. Hala ere, zaila da dentsitate baxuko populazioak aurkitzea. Laginketa sakonagorik ez dagoenez, baliteke populazio batzuk inor ohartu gabe bertan egotea.

Urkiolako KBen puntualki ikusi dira, bata bestetik 5 km-ra, zehazki Santutegiaren inguruko erreketan (1991) eta Argiñolako errekan (2008) (Dima). Lekukotasun-presentzia horrek frogatzen du badaudela populazio-nukleo oso murriztuak lurrazaleko enklabe txikietan (erreketako tarteak), nahiz eta denboran zehar aldenduta eta KBERen eremu desberdinetan ikusi ziren. Uhandre alpetarraren kasuan bezalaxe, espezie honen presentziaren oinarria ubideak kolonizatzen dituzten populazioak dira. Ubide horiek bata bestetik gertu daude eta batzuek beraien artean komunikatzeko aukera dute.

Baso-igel iberiarra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa		x		
Espeziearentzako habitata	x			
Etorkizunerako igurikapenak				x
Kontserbazio egoera		Desegokia		

Ibai-karramarro autoktonoa (*Austropotamobius italicus*)

EAEn, Iberiar Penintsulan bezala, espeziea afanomikosisa iritsi ez den lekuetan soilik bizi da, orokorrean oztopo fisikoengatik, tarte lehorrengatik... ibai-saretik isolaturik gelditu diren ibaietako goi-tarteetan edo ubideetan, alegia.

<i>Austropotamobius italicus</i> :	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa eremua			x	
Populazioa				x
Espeziearen habitata			x	
Etorkizunerako igurikapenak			x	
Kontserbazio egoera			Txarra	

Presio eta mehatxuak

Zallobentako harrobiko kareharriaren ustiapenak (C01.04.01) (duela gutxi arte), eta Atxarte eta Atxa Txikikoen ustiapenak (iraganean) Urkiola ibaiaren kutsadura-gune nagusiak ziren, emaria ateratzen zutelako, eta solido esekiak daramatzaten jariatze-urak eta, batzuetan, hidrokarburoak isurtzen zituztelako. Harrobietako jarduera amaitu ostean, ia ez da isuririk aurkitu uretan. Hala ere, harrobi horiek lehengoratzeko daude, eta jarduera industrialaren ondorioz aldatutako ibai-ertzetara zabaldu behar dira.

Ibai-jabarietako baso-landaketek (B01.02, J03.02) Urkiolako haltzadiak baldintzatzen dituzte, ibarbasoetako landaredia partzialki edo guztiz ordezkatzeko dutenak. Zenbait aldaketa morfologikok ere eragiten diote haltzadie, hala nola JPH okupatzeak sortutako bideratzeak eta egitura batzuk (D01.02), batez ere errepede eta pisten bidegurutzeetako tarteetan eta, lehen aipatu bezala, Atxarte eta Zallobentako harrobien inguruan.

³ Arrayago, M.J. *et al.* Situación actual de las poblaciones de *Rana iberica* en el País Vasco *Bol. Asoc. Herpetol. Esp.* (2010) 21: 111-115 or.

Minizentral hidroelektrikoek emaria ponpatzen eta hartzen (J02.06.02) dute, eta horrek ibai-sistemaren funtzionamendu ekologiko egokiari mehatxu egin diezaioke, baita ur-inguruneetara lotutako habitatei ere. Urkiolan duela oso gutxi arte 2 minizentral egon dira martxan. Horietako bat, Mendizabalekoa, naturagune babestuaren barruan dago (bai zentrala, baita ura hartzeko presa txikiak, ura adarkatzeko kanalak eta zamatze-kamera ere). Diman Bentatxuriko minizentrala dago, baina bere instalazioen zati handiena naturagune babestuaren mugetatik kanpo dago.

Dimako zentrala martxan jartzeko prozesuak Ingurumen Inpaktuari buruzko Adierazpen positiboa du. Hortaz, eta aipatutako adierazpeneko baldintzak betetzen badira, bateragarriak izango dira jarduera hori eta eragiten dien ubideen egoera ekologiko ona. Mañariako minizentralari dagokionez, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak 2012an esan zuen minizentrala zerbitzuan jartzeko proiektuak ez duela ingurumen-inpaktuko banakako ebaluazioko prozedurarik behar, ez baitu eragin nabarmenik ingurumenean. Minizentral honek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena dauka. Baimen honek urak fardelka askatzea debekatzen du eta energia ekoizpenera bideratutako lau erreketan ingurumen-emariak ezartzen ditu.

Ibai-karramarro autoktonoaren (*Austropotamobius italicus*) mehatxu nagusiak habitat baten ezaugarri bereizgarriak murriztea edo galtzea (J03.01) eta espezie aloktonoak egotea (I01) dira, hala nola karramarro seinaleduna (*Pascifastacus leniusculus*).

Beste eragile eta baldintzatzaileak

Ur-ibilbideak jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak dira. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiak (apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua, urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuak aldatua) definitzen ditu jabari publiko hidraulikoa (JPH) osatzen duten ondasunak eta haren babes-helburuak. Jabari publiko horretan daude, beste ondasunez gain, ur kontinentalak —lurrazaleko zein lurrazpiko berriztagarriak, berriztatzeko denborarekiko menpe ez direnak— eta korrante naturalen ibilguak, jarraiak ala ez jarraiak. Horretaz gain, ibilgu publikoen mugakide diren lursailen ertzek, beren luzera guztian, erabilera publikorako bost metroko zabalerako zortasun-gune bat izango dute, baita ehun metroko zabalerako polizia-gune bat ere, non lurraren eta bertan egingo diren jarduerak mugatuko diren.

Hauexek dira gune horiek erregulatzearen helburuak: jabari publiko hidraulikoaren egoera mantentzea, ur-ekosistemen andeatzeak ekiditea, horiek hobetuz, eta uraldietan korronteen erregimena babestea, hala ibilguen ondoko lursailek ibilguak eta garraiatutako karga solidoa laminatzeko duten funtzioa hobetuz.

Kantauri Ekialdeko zein Ebroko Mugaketaren Plan Hidrologikoek Babestutako Eremuen Erregistro bat dute. Erregistro horretan, Urkiolako eremuari dagokionez, hornidurarako ur-harguneko eremuak (gainazalekoak eta lurpekoak), eta Urkiola ibaiko natura- eta ingurumen-intereseko tartek daude.

Presa edo presa txikien bidezko ur-aprobetxamendurako emakidei dagokionez, Kantauriko Plangintza Hidrologikoaren 44. artikulua honakoa ezartzen du: minizentral hidroelektrikoentzako emakida berrien kasuan ez da baimenduko enbolada edo hidropunta izeneko ustiapen-eredurik. Dauden minizentraletan, emakidaren baldintzetan zehazki agertzen ez bada, ezingo da turbinatu aipatutako enbolada ustiapen-eredua erabiliz.

Minizentral elektrikoaren emakida berrientzat, oro har, dauden aldaketetan eta posible den lekuetan, ekipamendu-emariak erregimen naturalean igarotzen diren emarietara egokituko dira urte hidrologikoan zehar. Emari horiek sailkatutako emari-kurbako Q80 eta Q100 bitartean egongo dira, behin emari ekologikoak aurretik deskontatuta.

Uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua —Plangintza Hidrologikoko Araudia onartzen duena— 2000/60/CE Zuzentarauaren (Uraren Marko Zuzentaraua) eskakizun berriak bete ahal izateko araudiaren egokitzapen bat da. Arau hori garrantzitsua da plangintza hidrologikoa UMZtik ondorioztatzen diren eskakizun berrietara egokitzeko.

Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak dio Natura 2000 Sarean dauden eremuetan, ibaien eta erreken ertzak «lehentasunezko interes naturalistikoko eremuak» direla, eta babeserako irizpide nagusia «*Ubidea babesteko area bat*» ezartzean datza. *Area horretan debekatuta egongo da ingurunearen alterazioa dakarten eragiketarako egitea*». Gune horiek ez badute antolatze dokumentu zehatzik, landa eremuko ertzetan herri-ubidearen mugabanaketa-lerroan 50 metroko gutxieneko erretiroa errespetatuko da.

EAEko Landa Garapenerako Programak (LGP) (2015–2020) baso-eremuen garapenerako eta basoen bideragarritasunerako ingurumen-neurriak aurreikusten ditu, infiltrazioa handitu, nitratoak murriztu eta higadura kontrolatzearen bitartez, uren kalitatea hobetzeko helburuarekin, besteak beste. Lehentasunezko jarduketa da Natura 2000 Sareko eremuetan. Baso-lurrak modu iraunkorrean erabiltzeko neurrien artean, aipatzekoak dira kanpoko espezieetako landaketak bertako basoekin, ibar-basoak barne, ordezkatzekoak.

5.2.– PRESIOEN ETA MEHATXUEN SINTESIA

Atal honetan, Urkiolako KBEren eremuak jasaten dituen presio eta mehatxu nagusien sintesia jaso da. Presioen eta mehatxuen azterketa eta balorazio hau egiteko, honako hau guztia hartu da oinarritzat: diagnostiko honetan orain arte emandako informazioa eta baita bi foru-aldundiek egindako Urkiolako Parke Naturaleko III. EKPEren zirriborroan jasotako informazioa.

Atxiki den taula presioen balorazio osorako matrizea da; horretarako, eremuak egun jasan ditzakeen mehatxuak identifikatu dira, baita presio horietako bakoitzak eragiten dion inguruko aldagaia ere.

Kontuan hartu diren inguruko aldagaiek pairatzen dituzten presioak identifikatzeaz gain, presioaren balorazio osoa ere egin da, lantalde tekniko honen irizpideen arabera:

Presio handia (nabarmena)	Inguruak inpaktua jasateko probabilitate handia dago
Presio ertaina (nabarmena)	Inguruak inpaktua jasan ahal izateko halako probabilitatea dago
Presio txikia (ez da nabarmena)	Inguruak inpaktua ez jasateko probabilitate handia dago

2016ko apirilaren 21a, osteguna

		LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
		LOTUTAKO ELEMENTUAK				
Urkiolan antzemandako PRESIOAK		Txilardiak, belar-formazioak, zohikaiztegiak, habitat arrakatsuak eta kobak, hostozabalen basoak, mehatxupeko flora, hegaztiak, ugaztunak, kiropteroak, artropodoak...	Ibai-sistemako habitat urtarrek, arrainak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa.	Hegaztiak eta kiropteroak		
		ERAGINDAKO ALDAGAIAK				
PRESIO MOTA	PRESIOA	Estaldura	Konektagarritasuna	Uren kalitatea	Iragazkortasuna	Jarraitutasuna
Iturri lausoko kutsadura	Nitrogeno iturri puntualak			Txikia		
	Nekazaritza nitrogenoa			Presiorik gabe		
	Nekazaritza fosforoa			Presiorik gabe		
	Abeltzaintza nitrogenoa			Txikia		
	Abeltzaintza fosforoa			Txikia		
Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak	Laborantzak		Presiorik gabe			
	Sega-larreak		Ertaina			
	Ukuiluko abeltzaintza		Txikia		Txikia	
	Ukuilu kanpoko abeltzaintza		Ertaina			
Basogintza jarduerak	Egur ustiaketa	Handia		Ertaina	Handia	
Eraldaketa hidromorfologikoak	Kontsumo-emia murriztea			Txikia	Ertaina	
Eraldaketa morfologikoak	Presak			Txikia	Txikia	
	Babesak eta ubideratzeak		Txikia		Txikia	Txikia

2016ko apirilaren 21a, osteguna

		LUR-KORRIDOREA	UR-KORRIDOREA	AIRE-KORRIDOREA		
LOTUTAKO ELEMENTUAK						
Urkiolan antzemandako PRESIOAK		Txilaridiak, belar-formazioak, zohikaiztegiak, habitat arrokatsuak eta kobak, hostozabalen basoak, mehatxupeko flora, hegaztiak, ugaztunak, kiropteroak, artropodoak...	Ibai-sistemako habitat urtarrak, arrainak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa.	Hegaztiak eta kiropteroak		
ERAGINDAKO ALDAGAIAK						
PRESIO MOTA	PRESIOA	Estaldura	Konektagarritasuna	Uren kalitatea	Iragazkortasuna	Jarraitutasuna
	Zubiak	Txikia	Txikia			
	HJHren bestelako okupazioak	Handia	Handia	Ertaina	Ertaina	
	Komunikazio azpiegiturak	Txikia	Txikia			
	Argindar lineak					Ertaina
Turismoa eta aisialdi jarduerak	Zarata eta eragozpenak hegaztien ugalketa eremuetan					Ertaina
	Flora andeatzea eta zapaltzea	Ertaina				
	Perretxikoen bilketa	Ertaina				
Ehiza	Ehiza	Txikia				

6.– KONTSERBATZEKO XEDEAK ETA ARAUAK

Jarraian, Urkiola ES2130009 kontserbazio bereziko eremua izendatzean giltzarritzat jotzen diren Batasunaren intereseko habitat eta espezieak kontserbatzeko xedeak eta erregulazioak adierazi dira, arauzkoak direnak.

URKIOLAKO NATURAGUNE BABESTURAKO PREBENTZIO ERREGIMEN OROKORRA

6.1 Erabilera bateragarriak.

6.1.1. Erabilera bateragarritzat hartuko dira, era egokian egin ezkerro KBEn kontserbazio helburuengan eragin neutro edo positiboa dutenak.

ERREGULAZIO OROKORRAK

Erregulazioak

E.1.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuko* 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Natura 2000 Sareko tokiak naturagune babestuak dira. Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-plangintzak egoera hori islatuko dute, eta ziurtatuko dute toki horietan natura-habitaten motak eta eremu horietako espezieak kontserbatuko direla; horretarako, agiri honetan finkatzen diren kontserbazioko xedeak eta neurriak txertatuko dira.

E.2.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuko* 19.2 artikuluan ezartzen denaren ondoretarako, Urkiolako KBeko babes eremu periferikoa zehaztu da; 100 metroko zabalera duen babes-banda bat da, guneko kanpoko mugatik neurtu dena. Eremu honetatik kanpo geratzen dira landa-guneak eta industria-lurzoruak. Zehazki, Dimako Artaun landa-gunea, Mañariako Urkuleta landa-gunea eta San Lorenzo baselizaren inguruko industria-lurzoru finkatua, Mañarian ere bai, kanpo geratzen dira.

Zehaztu den babes eremu periferikoan, Habitaten Zuzentzarauko 6.2 eta 6.3 artikuluetako prebentzio-araubideak jardungo du.

E.3.- Irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatutako *Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko* 46. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, izan banaka izan beste plan edo proiektu batzuekin batera, nahiz eta Urkiolaren kudeaketarekin harremana ez izan edo horretarako beharrezkoa ez izan, behar bezala ebaluatuko dira modu aipagarrian eragin diezaiokkeen edozein plan, programa edo proiektuk bertan izan ditzakeen ondorioak, bertako kontserbazio-xedeak aintzat hartuta.

Ebaluazio horren ondorioak ikusita, planak, programak edo proiektuak onetsi edo baimentzeko organo eskudunek horiekin bat datozela adierazi ahal izango dute kasuan kasuko tokiaren osotasunari kalte egingo ez diola ziurtatu ondoren soilik, eta hala badagokio, jendaurrean ikusgai jarri ostean.

E.4.- Parke naturalean egun aurkitzen ez diren espeziak sartzeara edo birsartzeara, dagokion plan teknikoari jarraituz egingo da. Honek gutxienez, xedearen adierazpena, sartzeararen eraginaren ingurumen ebaluazio egokia eta espeziearen jarraipen eta kontrolerako programa landuko ditu eta naturagune babestuaren Kudeaketa Organoak onartu beharko du.

E.5.- Debekatuta dago ehiza- edo arrain-faunako espezieak eta/edo bariatateak askatzea edo horiekin birpopulatzea, ekimena pribatua zein publikoa izanik, baldin eta mehatxua izan badaiteke naturagune babestuan dauden Batasuneko eta/edo eskualdeko intereseko espezieetarako.

Naturagune babestuan nahi gabe edo legez kanpo fauna sartuz geroez da ehiza- edo arrain-aprobetxamendua baimenduko, eta hala badagokio, espezieak kontrolatzeko neurri egokiak sustatuko dira, horiek desagerrarazteko asmoz.

E.6.- Kontserbazio-lurraren jabeak eta erabiltzaileak tartean sartzen dituzten kudeaketa-formulak bultzatuko dira naturagune babestuko balioak eta natura-baliabideak egoki erabiltzeko. Ildo horretatik, formulak bultzatuko dira sektore pribatuak eta udal-arloak KBE kontserbatzeko finantza- eta/edo kudeaketa-jarduketetan parte hartzea errazteko, baita herritarrek laguntzea ere, jarduketak gauzatzean boluntario gisa parte hartuta. Azken finean, lurra zaintzeko borondatezko akordioak sustatuko dira, jabeen, zaintza-erakundeen eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko lankidetzaren alde egiten dutenak.

E.7.- Europako Batzordeak definitutako Batasuneko kofinantzatze-bideak aplikatuko dira, Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (BBE) izendatzeko xedeak erdiesteko behar diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez gauzatzeko asmoz.

E.8.- KBEri eragiten dioten eragile eta sektoreen (nekazaritza, abeltzaintza, basoa, ehiza, turismoa, etab.) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, naturagune babestu horretarako planteatu diren kontserbazio-xedeak lortzeko, baita KBE izendatzean hartzen diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko helburua erdiesteko ere.

E.9.- Informazio- eta sustapen-jarduketak biltzen dituen Komunikazio Plan bat definituko da, eta Batasuneko laguntzen eta beste laguntza publiko batzuen onuradun izan daitezkeenei zuzenduko zaie, KBErako ezarri diren kontserbazio-xedeak erdiesten lagun dezaketen neurriak aplikatze aldera.

E.10.- Era berean, eta aurreko epigrafeetan adierazitakoari eragin gabe, beharrezkotzat jotzen da neurriak bultzatzea Administrazioak balio ekologiko handiko lursailak eskuratzeko, errentan hartzeko, horien gaineko gozamina izateko, zortasuna lortzeko edo antzeko beste figura batzuk sortzeko, batik bat oso mehatxatuta dauden KBEko elementu gakoetarako puntu kritikoak dauden edo puntu kritikoak diren lursailak badira, edota aukera-irizpideak direla-eta gomendagarria bada.

E.11.- Irailaren 21eko 33/2015 Legeak aldatutako *Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko* 47. artikularekin bat etorriz, dagozkion ahaleginak egin behar dira Natura 2000 Sarearen kanpoko eta barneko koherentzia ekologikoa kontserbazioaren bidez hobetzeko, eta hala badagokio, migrazioarako, distribuzio geografikorako eta basa-fauna zein -florako espezieen populazioen arteko truke genetikorako funtsezkoak edo garrantzi handi-handikoak diren paisaiako elementuak eta lurralde-eremuak garatuz; hortaz, helburu hori lortzera bideratuta dauden neurriei erreparatu behar zaie.

Hartara, hala Urkiolako KBEren arloan nola naturagune babestu horren eta Natura 2000 Sareko gainerako guneen arteko lotura ekologikoko eremuetan, neurri zehatzak hartuko dira konektibitate ekologikoaren alde egiten duten lurraldeko elementuak babesteko edo berreskuratzeko (ibaiertzetako landaredia, baso-espezie autoktonoetako zuhaitziak, hesi naturalak lursailletako mugetan eta landa-bideetako ertzetan, etab.).

Urkiolako KBErekin lotzeko korridore ekologikoak diren eremuetan, Habitaten Zuzentarauko 6.3 artikuluko prebentzio-araubideak jardungo du. Xede horretarako egoki suertatzen diren finantzatze-bideak ezarriko dira.

E.12.- KBEko ikerketa-jarduerak babestutako gunean kudeaketa-jarraibideak ezartzeko eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera zehazteko eta jarraipena egiteko lehenetazko dira. Ziurtatuko da ikerketa-, plangintza- eta kudeaketa-azterlanen prozesuak, faseak eta emaitzak dibulгатuko direla.

E.13.- Herri-administrazioek garatzen dituzten ingurumen-heziketako programek edukiak gehituko dituzte Natura 2000 Sarea eta KBEen dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitaten eta espezieen balioa ezagutzea biodibertsitatea kontserbatzeari buruz, eta gizarteak babesteko beharraren inguruan kontzientzia hartzea izango dute xede.

Programa horien hartzaileak herritarrak izango dira, oro har, eta KBEren eremuan garatzen diren erabilerekin eta jarduerekin zerikusia duten sektoreetako langile teknikoak ere bai.

Orobat, naturagune babestuen kudeaketarekin lotuta dauden herri-administrazioetako langile teknikoei ere helaraziko zaizkie Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduketak, bai eta orientatzeko irizpideak, erregulazioak eta kudeaketa neurriak erdiesteari buruzko informazioa ere.

E.14.- KBEko zaintza-lanak intentsifikatuko dira baimenduta ez dauden erabilerak eta praktikak saihesteko, baldin eta tokia izendatzeko arrazoi diren habitaten eta espezieen kontserbazio-xedeak arriskuan jar baditzakete.

E.15.- Espezie inbaditzaile aloktonoek dakarten biodibertsitate-galera ekiditeko xedez, espezie horiek desagerrarazi eta/edo kontrolatzeko jarduketak sustatuko dira, bereziki bertako kontserbazio-xedeak hein handiagoan arriskuan jar ditzaketen espezieen kasuan

ERREGULAZIO PARTIKULARRAK

KBEko ELEMENTU GAKOAK DIRELA ETA

1. LEIZEAK, HARKAITZAK ETA LOTUTAKO HABITATAK

1. Azken xedea

Leizeekin, barrunbe karstikoekin eta harkaitzekin lotutako Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea.

Mehatxatutako espezie errupikola guztien populazio bizigaiak mantentzea eta naturagune babestuko baldintzak hobetzea espezie horientzako harrera-ahalmenari laguntzeko.

1.1. xede operatiboa

Urkiolako harkaitz-habitatak eta leizeak kontserbatzea, mehatxu-faktoreak txikiagotzea eta kontrolatzea, eta habitat horien inguruko ezagutza areagotzea.

Erregulazioak

1.E.1. Urkiolako Parke Naturaleko erauzketa-jarduerak ekainaren 3ko 91/2014 Dekretuak arautzen ditu, Urkiolako Parke Naturaleko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzen duena.

1.E.2. «Eskaladaren erregulazioa Urkiolako Parke Naturalean eta eremu mugakideetan» Kudeaketarako Plan Eraentzailean dauden murriztapenen arabera kontrolatuko da kirol-eskalada.

1.E.3. Barrunbeetarako sarbideak, beren karga-gaitasunaren arabera, erregulatu edo, hala badagokio, debekatu egingo dira. Ez da inola ere baimenduko barrunbea mantentzen duten prozesu hidrogeologiko eta geomorfikoak, barrunbearen barnefisionomia edota inguru horietako fauna eta floren komunitateak aldatzen duen jarduerarik. Barrunbeetarako sarrera dokumentu honen III. eranskineko erabilera publikoko atalean ezarritakoaren arabera arautuko da.

1.E.4. Debekatuta dago ingurune horietan material biologikoak eta geologikoak biltzea, baita helburu zientifikoetarako edo apaingarrietarako direnak ere, Administrazio kudeatzaile eskudunak aldeztatik baimena ematen ez badu.

1.E.5. Naturagune babestuaren organo kudeatzailearen baimena beharko da inguru horietan pista edo bidezidor berrien trazadura egiteko, ahal den heinean ekidin behar den jarduketa.

1.E.6.- Naturagune babestuan, habitat horien kudeaketa ingurumen-balioen babesa bermatu beharko du, eta hala badagokio, lehengoratzeta. Banaketa eta kontserbazio-egoera ezagutzera zuzendutako jarduketak bultzatuko dira, eta habitat horiek zein lotutako flora- eta fauna-populazioak kontserbatu eta berreskuratzeko jarduketak sustatuko dira.

1.E.7. Dibertsitate biologiko eta geologikoaren kontserbaziorako leize garrantzitsuenak ezin izango dira bideratu erabilera turistikora, eta bisitariak koba seguruagoetara eta harrera-ahalmen handiagoa dutenetara zuzenduko dira. Kasu horietan, olgeta-erabilera leuneko formulak bilatuko dira, azpiegiturak behar ez dituztenak.

1.2 xede operatiboa

Hegazti-espezie harkaiztarrak kontserbatzea habiagintzako puntuak zorrotz babestuz, beharrezkoa den elikatze- eta ehiza-eremuen gutxieneko azalera kontserbatzea, eta heriotza-arrazoi ez naturalak ezabatzea. Espezie nekrofagoentzako eskaintza trofiko egokia bermatzea.

Erregulazioak

1.E.8.- Hegazti nekrofagoentzako interes bereziko eremuetan landare-estalduran edo luraren eta partzela-kontzentrazioaren erabileran aldaketak sortzen dituzten baso-proiektuak egin nahi badira, naturagune babestuaren organo kudeatzaileak arauzko txosten loteslea egin beharko du. Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoentzako interes bereziko eremuak (IBE) hauexek dira: bere Kudeaketa Planan kartografikoki mugatutako eremuak eta non horietako hegazti asko eta ugari egotea oinarrizkoa den hegazti horien populazioak epe luzean mantentzeko.

1.E.9.- Sai zuriaren eremu kritikoetatik 1000 m eta sai arrearen ugalketa kolonietatik 500 m-tako erradioan egin beharreko obra, lan eta ekintzak, aipatu espezieetako aleren bat egonez gero, espezie bakoitzarentzako epe kritikotik at egingo dira, egoki zuritutako ezinbestean salbu, eskumena duen Foru Organoaren baimenarekin.

1.E.10.- Debekatuta dago behaketak eta grabazio grafiko edo soinu-grabazioak egitea postu finakoak jarriz, sai zuriaren aleengandik 250 m baino gutxiagora eta ohiko pausalekueetatik, hezurak apurtzeko tokietatik, janlekuetatik eta habia egin dezaketan tokietatik 500 m baino gutxiagora badaude. Salbuespena egingo da naturagune babestuaren organo kudeatzailearen berariazko baimena duten pertsona eta jarduerentzat.

1.E.11.- Naturagune babestuaren organo kudeatzaileak egokitzen dituen erabilera-baldintzak ezarriko ditu sai zuriaren eremu kritikoetatik 1.000 m baino gutxiagora igarotzen diren ibilgailuetarako pistetan eta bideetan, lurretan lasaitasuna ziurtatze aldera. Bere Kudeaketa Planan jasotzen den bezala, honakoak dira sai zuriaren eremu kritikoak: espezieak bizirauteko eta berau berreskuratzeko funtsezko eremuak eta habiagintzako eremuak, baita ugalketa-saiakerak egiaztatu diren enklabeak eta etzalekuak ere.

1.E.12.- Debekatuta dago lehergailuak erabiltzea eta makineria astuna igarotzea sai zuriaren eremu kritikoen inguruko 1.000 m-ko erradioan, gutxienez, baita elikadura osagarriko programak egiten diren eremuetan ere.

1.E.13.- Debekatuta dago abionetek, ultra-arinek, helikopteroek, dronak eta antzekoek bertan hegan egitea 1.000 m baino gutxiagoko garaieran, sai zuriaren eremu kritikoetatik 250 m-ko erradioan, larrialdietan edo erreskateetan izan ezik.

1.E.14.- Debekatuta dago eskalada sai zuriaren eremu kritikoetatik 500 m eta sai arrearen kolonien 100 m baino gutxiagora dauden paretetan.

1.E.15.- Organo kudeatzaileak muga dezake kontuan hartu ez den beste edozein eragozpen, baldin eta kokapen-ezaugarriak, iraupena edo maila akustikoa direla- eta espeziearen hazkuntzari, elikatzeari edo atsedinari kalte egin badiezaieke sai zuriaren eremu kritikoetan, ezarritako garai kritikoetan.

1.E.16. Kontserbazioaren xede diren basoetako espezie errupikolen biologiari, arazoei, egungo egoerari eta agiri honen edukiari buruzko ezagutzak hobetzeko prestakuntza- eta informazio-jarduerak sustatuko dira, administrazio- eta naturagune babestuko bertako zein inguruko ehiza-barrutietako zaintza-zerbitzuei zuzenduak.

1.E.17.- Naturagune babestuari eragiten dioten sektoreen (nekazaritza, abeltzaintza, basoa, ehiza, natura-turismoa, etab.) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, espezie horietarako planteatu diren kontserbazio-xedeak lortzeko, baita proposatutako kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko helburua erdiesteko ere.

1.E.18.- Ehizaren erregulazioak bateragarria izan beharko du faunaren eta floraren populazioen kontserbazio-xedeekin, baita Batasunaren interesekoak diren naturagune babestuko habitatenekin ere. Ildo horretatik, ehizaren aprobetxamendua urtero arautzen duten dekretuek eta foru-aginduek unean-unean beharrezkoak suertatzen diren aldaketak jasoko dituzte, adierazitako kontserbazio-xedearekin bat etortzeko asmoz.

1.E.19.- Naturagune babestuaren eremuan, eta bereziki, sai zuriarentzako eremu kritikoetan, instalazio elektrikoetarako arau teknikoak ezartzen dituen nazio- eta autonomia-mailako araudi elektroteknikoa betetzen dela zainduko da, edo hala badagokio, araudi-proiektuak, hegazti-fauna babesteko xedez.

1.E.20.- Ekidingo da kable biluzien linea elektriko berriak instalatzea sai zuriaren ohiko pausalekueetatik eta ezartze- edo habia-enklabe izan daitezkeenetatik 1.000 m baino gutxiagora; hala, ibilbide alternatiboak erabiliko dira edo kable isolatuko edota lurperatuko lineak instalatuko dira. Bestela, talka-arriskua arintzeko asmoz, gailuak hariak edo eroaleak seinaleztatuko dira.

Eragindako argindar-enpresekin bat etorrira, sai zuriaren talka egiteko edo elektrokutatzearen arriskua dagoen linea elektriko guztiak zuzenduko dira gutxika.

1.E.21.- Aerosorgailuen eta energia ateratzeko lineen aurka talka egiteko arriskua ekiditeko, naturagune babestuan parke eolikoak instalatzea saihestuko da, bereziki, sai zuriaren eremu kritikoen inguruko 10 km-ko erradioan.

1.E.22.- Dagokionean, naturagune babestuko barrutiei, eta bereziki, sai zuriaren eremu kritikoei eragiten dieten ehiza-antolamendurako plan teknikoek aintzat hartu beharko dute espezie hori jarduketaren eremu horretan dagoela, eta gidalerro hauek, gutxienez, ehiza-jarduerarako baldintza izango dira:

a) Sai zuriarentzako eremu kritikoei eta elikadura osagarriko programak egiten diren eremuei erreserbetan edo ehiza-babeslekuetan sartuta egon beharko dute, bertan lasaitasuna ziurtatzerik badago ehiza-garai osoan.

b) Sai zurien pausaleku, ohiko janleku edo habia-puntu izan daitezkeen batzuk identifikatu ondoren, ehiza larriko uxaldien egutegia egokituko da; hala, 1000 m baino gutxiagoko erradioan egiten diren uxaldiak beti espeziearen balizko ugalketa-aldi kritikotik kanpo gauzatuko dira. Balizko ugalketa-aldia martxoaren 1etik irailaren 1a arte da.

c) Ekidingo da usoak eta birigarroak ehizatzekeo postu finkoak instalatzea, baita askatutako animaliak ehizatzekeo eremuak sortzea ere, sai zuriarentzako eremu kritikoen inguruko 1000 m-ko erradioan, gutxienez, elikadura osagarriko programak egiten diren eremuetan, eta 500m-ko erradioan, gutxienez, sai arrearen kolonien inguruan.

d) Sai zurien bikote ugaltzailea ezartzen bada, ehiza-jarduera mugatu egingo da aldi kritikoa, gutxienez, habia-puntutik 2.000 m-ko erradioan.

1.E.23.- Ehiza garaian, areagotu beharko dira ehiza-jardueraren zaintza, kontrola eta jarraipena Naturgune Babestuan sai zuriarentzat ezarri diren lurretatik gertu dauden eremuetan.

1.E.24.- Espezie nekrofagoen elikadurarako babes eremuetan dauden lursailei balio ekonomikoa ematea sustatuko da.

1.3 xede operatiboa

Naturagune babestuan dauden leize-kiroptero mehatxatueneen banaketa eta populazio-bilakaera ezagutzea, kiropteroen babesleku nagusien ezaugarri fisikoak, biologikoak eta girokoak babestea, eta heziketa-jarduerak sustatzea gizakiek espezie horiekiko duten jarrera hobetzeko.

Erregulazioak

Orientatzeko irizpideak

1.E.25.- Kiropteroen babesleku diren naturagune babestuko leizeen olgeta- edo turismo-erabilerak sustatzeko jarduerak baimenduko dira, soil-soilik, egiaztatzen bada ez dutela kalterik eragingo.

1.E.26.- Sarbide erraza duten lekuetan koloniak edo babeslekuak aurkitzen badira, bandalismoa ekidingo da, kasu bakoitzerako neurri prebentiboak ezarriz (saguzarrentzako itxitura egokiak, zaintza, etab.).

1.E.27.- Baltzolako leizera sartzea murrizten da. Enklabe horietan jarduerak egin nahi izanez gero, III. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

1.E.28.- Barrunbe bat ixtea edo itxitura desegoki bat ordeztea erabakitzen bada, saguzarrak zein aire-korronteen erregimena igarotzen direla ziurtatzeko moduan egingo da.

1.E.29.- Naturagune babestuko kiropteroak kontserbatzearen garrantzia dibulgatu eta horren inguruan sentsibilizatzeko jarduketak sustatuko dira. Hartzailea gizartea izango da oro har, eta bereziki, Naturaguneko erabiltzaileak eta bisitariak, ikastetxeak, eta batez ere, euren jarduerak espezie horien eta habitaten kontserbazio-egoerari hein handiagoan eragin diezaioketen pertsonak eta kolektiboak: foru-zaintzaileak, espeleologoak, etab.

1.4 xede operatiboa

Mehatxatutako flora-populazioak babestea eta jarduketek naturagune babestuan duten eraginkortasuna ebaluatzea eta jarraitzea.

Erregulazioak

1.E.30.- Debekatuta dago ahuntz-ganadua harkaitzetan, hartxingadietan, lapiazetan eta megaforbioen eremuetan egotea.

1.E.31.- Naturagune babestuko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, 10 m-ko babes-perimetroa ezarriko da populazioen kokaleku ezagunen inguruan. Mugatutako gunen hori espeziea kontserbatzeko eremutat joko da.

Zehaztutako kontserbazio-eremuan egin den edozein erabilera edo jarduera bakarrik baimenduko da populazio horien berreskuratzeari negatiboki eragiten ez badio; naturagune babestuaren organo kudeatzaileak erabakiko du hori, eta hala badagokio, dagokion ebaluazioaren ostean egingo du.

1.E.32.- Naturagune babestuko flora-populazio mehatxatuaren ezagutza hobetzera bideratutako jarduerak bultzatuko dira mehatxatutako espezieen inbentarioa aldi berean behin eguneratuz; horretarako, nagusiki, distribuzioari, populazioen kontserbazio-egoerari, eta jasaten dituzten presioei zein mehatxuei erreparatuko zaie.

2. BASO NATURALAK ETA ERDI-NATURALAK

2. Azken xedea

Baso naturalen kontserbazio-egoera hobetzea eta mehatxatuta dauden flora- eta fauna-espezieen kontserbazioa, populazio-bilakaera eta bideragarritasuna ziurtatzea.

2.1. xede operatiboa

Baso naturalek hartutako azalera osoa handitzearen alde egitea eta baso-masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Onenen kontserbatutako guneen egungo egoerari eustea.

Erregulazioak

2.E.1.- Debekatuta dago arraseko mozketak egitea eta erabilera aldatzea zuhaitzia dagoen Batasunaren intereseko habitatetan, eta naturagune babestuan dauden baso autoktono guztietara hedatzen da debekua.

2.E.2.- Ez da baimenduko landaketa berriak egitea baso-espezie aloktonoekin, KBE izendatzean beste erabilera bat zuten OPMko lursailetan; bereziki, ezingo da egin bertakotzeko eta ugaltzeko gaitasuna duten espezie inbaditzaileekin. Hala, eremu horietako birpopulazioek espezie autoktonoak eta eskualde bakoitzeko komunitateetako landaredi-serieetan oinarritutako landaketa-moduluak erabiliko dituzte.

2.E.3. Europar Batasunean eta eskualdean interesekoak diren baso-habitaten kudeaketak bermatu beharko ditu baso naturalen egungo azalera areagotzea eta egitura zein funtzioen hobezpena; hala, bertako masa basotsu autoktonoen kontserbazioaren zein bilakaera naturalaren alde egingo da.

2.E.4.- Birpopulazioko konifero-masak zuhaitz hostozabal naturalekin etengabeko ordezkapena bultzatuko da, zuhaitz hostozabalak landatzea sustatuz eta hariztien zein baso mistoaren zuhaitziak eta zuhaixka-formako hesiak kontserbatuz.

2.E.5.- Balio ekologiko handiko lursailetak lurrak eskuratzeko politikarekin jarraituko da, bereziki kontserbazio-egoera onean dauden Batasunaren intereseko habitatak badaude, edo oso mehatxatuta dauden elementu gakoetarako puntu kritikoak dauden edo puntu kritikoak diren lursailak badira, edota aukera-irizpideak direla-eta gomendagarria bada.

2.2. xede operatiboa

Bertako baso-masen naturaltasuna, heldutasuna eta egitura-konplexutasuna hobetzea. Hobekien kontserbatutako tokiak egungo egoeran mantentzea.

Erregulazioak

2.E.6.- Baso-baliabideen antolamendu-planek eta mendien antolamendurako proiektuek edo plan dasokratikoez errespetu-irizpidea eta, hala bada, gaitasuna, baso autoktonoak berreskuratzeko irizpidea hartuko dituzte kontuan. Plan eta proiektu horiek onetsiko dira lekuaren osotasunari kalterik eragingo ez diotela egiaztatzen bada soilik.

2.E.7.- Baso-ziurtagiri iraunkorren zigiluak ezartzea bultzatuko da, adibidez, FSC edo PEFC. Horien bidez, ekoizpena erregulatu liteke eta agiri honetan proposatutako neurrietako batzuk bete litezke, Natura 2000 Sareko helburuak betetzera bideratuta daudenak; izan ere, horiek dira iraunkortasun-zigiluak eskuratzeko finkatu diren eskakizunetako batzuk.

2.E.8.- KBEen dauden OPMren kudeaketari dagokionez, antolamendu-planek jarraian azaldutako baldintzak kontuan hartu beharko dituzte. Irizpide berberak sustatu behar dira eremuan dauden titulartasun pribatuko mendien ustiapen-sistemetan:

- a. Baso-kudeaketa indartzea iraunkortasun-irizpideei eta ingurune naturala kontserbatzeko irizpideei jarraikiz, eta eremuan dauden masa basotsu autoktonoen kontserbazioaren zein bilakaera naturalaren alde jardutea.
- b. Eremuan dauden baso-masak berreskuratzea sustatuko da, bertako landaredi-seriea izan daitekeenari dagozkion espezie autoktonoekin.
- c. Batasunaren intereseko habitatak osatzen dituzten masa naturalen egiturazko konplexutasuna eta dibertsitatea handitzera joko da, bereziki, pagadi eta artadietan, honakoak bermatuz: adinak masan zehar askotariko eran banatzea, zutik zein lurrean dagoen zur hilaren kantitatea handitzea, eta espezie laguntzaileak eustea eta landatzea, masen dibertsitate espezifikoiari eusteko xedez.
- d. Baso-jarduerarik gabeko azalera jakin bati eustera joko da, basoaren bilakaera naturalari bide emateko.
- e. Ale urtetsuak, adartsuak, barrunbeak dituztenak eta erortze-egoera aurreratuan daudenak ere errespetatzea eta kontserbatzea, azken mozketaren ondoren, egokiak baitira baso-hegaztientzat, eta bereziki kiropteroentzat.
- f. Zur hila lurrean eta zutik egotearen alde egitea. Horretarako, abandonatu egingo da baso-lanak egin ostean, eta pilatzea saihestuko da. Aurretik zeuden zur hilaren hondakinak errespetatuko dira.
- g. Gauzatzen diren lanetan, laguntzaile diren espezie autoktonoak, zuhaixka-formako espezieak eta zuhaitz-espezieak errespetatzea.
- h. Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuen populazioak dituzten enklabeak identifikatzea eta babestea.
- i. Baso-lanen egutegia egokitzea babestutako basa-hegaztien espezieen habiatzean eta hazkuntzan (martxoa-ekaina) eta kiroptero zuhaiztarretan (uda) afekzioak ekiditeko.
- j. Solido esekien, fitosanitarioen eta pestiziden ekarpena minimizatzea ibai-sarean, eta beharrezko suertatzen diren neurriak hartzea solido esekiak daramatzaten jariatze-urak lurrazaleko uretara iristea ekiditeko. Irizpide hau aplikatu beharko da arro isurtzailean dauden baso-aprobetxamendu guztietan.
- k. Zura ateratzeko metodo alternatiboak sustatuko dira, baso-pistak eraikitzea minimizatzen dutenak, Batasunaren intereseko habitatak eta/edo espezieak dauden eremuetara sartzeko eta zatikatzea mugatze aldera.

2.E.9.- Pagadietan urte-klaseen, birsorkuntzaren, zur hilaren eta oihanpearen egitura-dibertsitate handia lortzeko esku-hartzeak mugatuko dira. Oin urtetsuak eta hiltzorian daudenak mantenduko dira eta ez dira hildako oinak eta motzondoak aterako.

Lepatutako zuhaitzak dauden lekuetan, basoaren egitura-dibertsitatea mantentzea eta balioa ematea sustatuko da. Ereku horiek kontserbatzeko lepatze-lanak egitea beharrezkoa den baloratuko da.

<p>2.3. xede operatiboa</p>	<p>2.E.10.- Artadien kudeaketak bi alderdi nagusi izan behar ditu: sute-arriskuak ekiditea eta basoaren egituraren heldutasuna handitzea (basogarai bihurtzea, zur hilaren dentsitatea handitzea...).</p> <p>2.E.11.- Inguru hauei lotutako espezie gakoak kontserbatzeko zur hilaren ateratzea ahalik eta gehien murriztea, batez ere enbor handiak eta zuhaitz gaixoen mozketak, bereziki basoko soilguneetan. Gainera, zur hil gutxi dagoen basoetan neurri hori bultzatu behar da, zura kendu gabe mozketak eginez.</p> <p>2.E.12.- Debekatuta dago ganaduaren aprobetxamendua berreskuratze egoeran dauden baso eremuetan, zuhaitzen birsorkuntza egokia dela ziurtatzeko. Ez da honartuko larratzea basoa birsortuko dela aurreikusten den eremuetan.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>Basoetako hegazti-faunako espezieak kontserbatzea eta berreskuratzea. Espezieen inguruko ezagutza hobetzea eta heriotza-arrazoi ez naturalak ezabatzea.</p> <p>2.E.13.- Ez da baimenduko antolatutako jarduerarik ezta makineria eta ibilgailuen joan-etorria suposatuko duten baso-lanik egitea antzeman diren baso-harraparien habiagintzako puntuetatik 1.000 m-ko perimetroan, ugalketa-aldiaren hasieratik harik eta piroek eremutik alde egiten duten arte.</p> <p>2.E.14.- Bereziki aplikatzekoak dira 2.E.8.h eta 2.E.8.i erregulazioak, baso-aprobetxamenduak egin bitartean basoetako hegazti-faunaren enklabeak eta ugalketa-datak errespetatzeari dagokionez.</p> <p>2.E.15.- Kontrol-jarduketak areagotuko egingo dira, babestutako espezieak pozoitzea ekiditeko. Orobat, pozoia babestutako gunearen barruan erabiltzearen ondorioei buruzko prestakuntza- eta informazio-jarduerak sustatuko dira, administrazioko eta naturagune babestuaren inguruko ehiza-barrutietako zaintza-zerbitzuei, abeltzainei eta ehiztariei zuzendutakoak.</p> <p>2.E.16.- Kontserbazioaren xede diren basoetako hegazti-faunako espezieen biologiari, arazoei, egungo egoerari eta agiri honen edukiari buruzko ezagutzak hobetzeko prestakuntza- eta informazio-jarduerak sustatuko dira, administrazioko eta naturagune babestuko bertako zein inguruko ehiza-barrutietako zaintza-zerbitzuei, abeltzainei eta ehiztariei zuzendutakoak.</p> <p>2.E.17.- Naturagune babestuari eragiten dioten eragile eta sektoreen (nekazaritza, abeltzaintza, basoa, ehiza, natura-turismoa, etab.) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, espezie horietarako planteatu diren kontserbazio-xedeak lortzeko, baita proposatutako kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko helburua erdiesteko ere.</p> <p>2.E.18.- Ehizaren erregulazioak bateragarria izan beharko du faunaren eta floraren populazioen kontserbazio-xedeekin, baita Batasunaren interesekoak diren naturagune babestuko habitatenekin ere. Ildo horretatik, ehizaren aprobetxamendua urtero arautzen duten dekretuek eta foru-aginduek unean-unean beharrezkoak suertatzen diren aldaketak jasoko dituzte, adierazitako kontserbazio-xedearekin bat etortzeko asmoz.</p>
<p>2.4. xede operatiboa</p>	<p>Urkiolan dauden baso-kiroptero mehatxatuenen banaketa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta zuhaitz-masen ezaugarri jakinak babestea baso-espezieen eta espezie zuhaiztarren eskakizunei erantzuteko.</p> <p>2.E.19.- Naturagune babestuaren organo kudeatzaileak ebaluatuko du nekazaritza eta basozaintzako intsektizidak kopuru handitan erabiltzeak kiropteroen komunitateetan izan dezakeen afekzioa, eta dosia edota aplikatzeko eremuak muga ditzake.</p> <p>2.E.20.- Kiropteroak detektatzen diren lekuetan antolatutako jarduerak eta makineria eta ibilgailuen joan-etorria suposatuko duten basogintza lanak murriztuko dira maitatza eta abuztua bitartean, organo kudeatzaileak berariaz</p>
<p>Erregulazioak</p>	

	<p>baimentzen duenean izan ezik, hala sentikortasun handieneko aldietan talde horretako espezieei eta naturagune babestuko beste baso-espezie sentiberei ez eragozteko.</p> <p>2.E.21.- Bereziki aplikatzekoak dira 2.E.8.h eta 2.E.8.i erregulazioak, baso-aprobetxamenduak egin bitartean kiroptero zuhaiztarren enklabeak eta ugalketa-datak errespetatzeari dagokionez.</p> <p>2.E.22.- Kiropteroak kontserbatzearen garrantzia dibulgatu eta horren inguruan sentsibilizatzeko jarduketak sustatuko dira. Hartzaillea gizartea izango da oro har, eta bereziki, Urkiolako erabiltzaileak eta bisitariak, ikastetxeak, eta, batez ere, euren jarduerak espezie horien eta habitaten kontserbazio-egoerari hein handiagoan eragin diezaioketen pertsonak eta kolektiboak: foru-zaintzaileak, baso-sektorea, baserrien jabeak, etab.</p> <p>2.E.23.- Naturagune babestuko saguzar-espezie desberdinentzako kalitatezko habitatak bermatuko dira. Horretarako landaredi autoktonoko larreen eta zuhaixken presentzia sustatuko da, baita baso-sistemen heldutasuna handitu ere, erabilgarri dauden txokoak handitzeko.</p>
2.5. xede operatiboa	<p><i>Rosalia alpina</i>, <i>Lucanus cervus</i> eta <i>Euphydryas aurinia</i> espezieen banaketa ezagutzea eta populazioak jarraitzeko sistema ezartzea.</p>
Erregulazioak	<p>2.E.24.- Bereziki aplikatzekoak dira 2.E.8. c, e, eta f orientatzeko irizpideak, ale urtetsuen zein motzen kontserbazioari eta baso naturaletan zur hila lurrian edo zutik egoteari dagokionez, <i>Rosalia alpina</i>, <i>Lucanus cervus</i> eta beste espezie aproxiliko batzuk kontserbatzeko.</p> <p>2.E.25.- Naturagune babestuaren organo kudeatzaileak jarduketak sustatuko ditu naturagune babestuan dauden Batasunaren intereseko ornogabe-espezieen habitat, distribuzio, ugaritasun eta kontserbazio-egoeraren ezagutza hobetzeko. Era berean, karramarro autoktonoa naturagune babestuko erreketan egotea bultzatzeko jarduketak sustatuko dira; izan ere, hasiera batean, habitataren ezaugarriak mesedegarriak dira mehatxatutako espezie horrentzako eta EAEn duen egoera prekariorako.</p> <p>2.E.26.- Saihestuko da enborrak iraupen txikirako pilatzea edo gutxienez denboraldi bat bazterrean egon den zur lehorra kentzea, baita osorik edo zati batean lurperatuta dagoen zura eta inguruko lurra mugitzea, <i>Rosalia alpinak</i> eta <i>Lucanus cervusek</i> egin ditzaketan errunaldiak babesteko.</p>

3. SASTRAKADIAK ETA LARREAK

3. Azken xedea	<p>Ziurtatzea txilardien eta mendiko larreen egungo azaleraren kontserbazioa, baita mosaikoan antolatzen dela ere; eta habitaten nahiz lotutako espezie mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoerarekin bateragarriak diren abeltzaintzako kudeaketa-jarraitzaileak ezartzea.</p>
3.1. xede operatiboa	<p>Batasunaren intereseko larreen eta sasiaren aldeko kontserbazio-egoera eustea ziurtatzen duen abeltzaintza-kudeaketa bultzatzea, mosaiko-gisako antolaketa mantenduz.</p>
Erregulazioak	<p>3.E.1.- Debekatuta dago sutearen erabilera estentsiboa egitea naturagune babestuan, Urkiolako Parke Naturalaren NBAPko 5.2.1. atalean ezarritako baldintzetan.</p>

3.E.2.- Abeltzaintza-antolamendurako plan integrala egingo da naturagune babesturako, eta larreen eta txilardien kontserbazio-egoera onarekin bateragarriak diren ganadu-kargak zehaztuko ditu Urkiolan identifikatutako larre-eremu bakoitzerako. Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko behar diren inbertsioak jasoko ditu, egungo ganaduari eusteko beharrezkoak baitira. Hala badagokio, ganadua kanpoan uzteko itxiturak ezartzeko egokitasuna jorratuko da aipatutako planean, nola kontserbatu beharreko floraren enklabe zehatzak babesteko hala gutxiegi erabilitako eremu jakin batzuen erabilera bideratzeko, gainlarratzea dagoen beste eremu batzuen kaltetan.

Nolanahi den ere, Planeko zehaztapenak bateragarriak izan beharko dira naturagune babestuko beste elementu gako batzuetarako ezarritako kontserbazio-xedeekin, bereziki, ibaien eta ubideen, hezeguneen, basoen, eta mehatxatutako flora eta faunaren xedeekin.

3.E.3.- Larre berriak egitea ekidingo da. Hala ere, justifikatuta badago, larreen ekoizpen-gaitasuna handitzeko hobekuntzak egin daitezke, baldin eta ez badute Batasunaren intereseko habitaten kontserbazio-egoera arriskuan jartzen. Kasu horretan naturagune babestuko organo kudeatzailearen baimena beharko da.

3.E.4.- Larre berriak ezingo dira %30etik gorako malda duten lurren gainean landu, ezta eremu higo-zohikatzak hartutako guneean, eta mehatxatutako flora eta fauna dauden eremuetan zein babes-perimetroetan ere. Sasi-kentze mekanikoak %20tik beherako malda duten lurretan baino ezingo dira egin, eta malda handiagoko eremuetan eskuz egin beharko da.

3.E.5.- Malda handiak eta/edo higadura-prozesuak izateko arriskua duten lur bakanetan aipatutako arriskua aurkitzen bada, zuhaitz-estalkia lehengoratuko da.

3.E.6.- Debekatuta dago berrereitea inguru honetako habitat gakoen ohiko kontsideratzen ez diren belardiko espezieekin.

3.E.7.- Debekatuta dago herbizida eta intsektizidak erabiltzea zuhaitz-hesietan. Soilik salbuezpenetan erabili ahal izango dira, eta naturagune babestuko organo kudeatzaileak aurrez baimendu beharko du.

3.E.8.- Debekatuta dago ongarriak bereizi gabe erabiltzea eta medeatzea. Praktika horiek unean-unean baimendu daitezke, aurretik lurraren azterketa eta inguru honetako ohiko espezieetan, lurraren dinamikan eta baliabide hidrologikoetan afekziorik ez dutela bermatzen duen analisisa egiten bada.

Urkiolako naturagune babestuan kokatutako nekazaritza-ustiatzekiek, ustiatzekien koadernoak bete beharko dute, Ekonomia Garapen eta Leihakortasuneko sailburuaren 2014ko azaroaren 18ko Aginduak edo hau eguneratuko duen araudiak diotenaren arabera.

3.E.9.- Naturagune babestuko larreen eta sastrakadien kudeaketa baliabide horien aprobetxamendu antolatu batera bideratuko da, eta ingurumen-balioak babestearekin bateragarri izango da. Horren harira, eutsi egingo zaio larreen, txilardien eta inguru horretan dauden beste hezegune batzuen mosaiko-gisako egitura irregularrari, eta ingurumen-ikuspuntutik sentiberarenak diren enklabeak babestuko dira (hezeguneak, mehatxatutako flora- eta fauna-espezieentzat interesekoak diren enklabeak, etab.).

3.E.10.- Paisaian edo dibertsitate biologikoan inpaktuak ekiditeko, sasia kentzeko lanak egitean ondorengo baldintzak beteko dira:

- Forma geometrikoak ekidingo dira, lerroen jarraikortasun ezari lagunduko zaio eta lursailaren konfigurazioa oinarritzat hartuko da.
- Sestra-kurbekiko muga perpendikularrak egitea saihestuko da; sestra-kurbak 15° eta 60°-ko angeluen tartean moztuko dira eta, ahal bada, zati desberdinetan aldatzen joango dira.

- Sasien eta larreen eremuen mosaiko bat mantenduko da, eta azalera homogeen handiak uztea ekidingo da.
- Babeserako edo bazkarako zuhaitzak landatuko dira.

3.E.11.- Landazabaleko eremuetan heskai biziak erabiltzea sustatuko da, horretarako zuhaixka formako espezie eta zuhaitz-espezie autoktonoak landatuz. Dauden heskaiak mantendu ahal izateko ez dira udaberrian kimatuko, hala habia egiteko garaian hegaztiei ahalik eta gutxien eragotziko zaie.

3.2 xede operatiboa

Txilardiekin eta belardi naturalekin nahiz erdi-naturelekin lotutako flora mehatxatuaren populazioen jarraipena.

Erregulazioak

3.E.12.- Mehatxu-maila handiena duten espezieentzat naturagune babestuko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idatziko dira.

3.E.13.- Naturagune babestuko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, babes-perimetro jakin bat ezarriko da mehatxatutako flora-populazio bakoitzeko, eta gutxienez, 10 m-koa izango da, populazioen kokaleku ezagunen inguruan eta etorkizunean identifikatu eta ezarri litekeenetan. Mugatutako gune hori espeziea kontserbatzeko eremutzat joko da. Zehaztutako kontserbazio-eremuan egin nahi den erabilera edo jarduera oro baimenduko da populazio horiek berreskuratzeari negatiboki eragiten ez badio soilik.

3.E.14.- Naturagune babestuko flora-populazio mehatxatuaren ezagutza hobetzera bideratutako jarduerak egingo dira mehatxatutako espezieen inbentarioa aldi berean behin eguneratuz; horretarako, nagusiki, banaketari, populazioen kontserbazio-egoerari, eta jasaten dituzten presioei zein mehatxuei erreparatuko zaie.

4. TRANTSIZIOKO ZOHIAZTEGIAK

4. Azken xedea

Naturagune babestuko hezeguneekin lotutako Batasunaren intereseko habitaten zein bertako flora- eta fauna-populazio mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea.

Erregulazioak

4.E.1.- Naturagune babestuko hezeguneetan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko eta EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planeko I. taldean dauden (Urkiolako zingirak, B1B7_01tik B1B7_16ra arteko kodeak dituztenak) habitatak eta espezieak behar bezala babesten direla ziurtatze aldera, Urkiolako Parke Naturalaren NBAPko kontserbazio bereziko eremuentzako 6.1 Ataleko Gidalerroak eta araudiak aplikatuko dira.

4.E.2.- Debekatuta dago habitat higro-zohikaitzen azalera murriztu, kendu edo aldatzen duen edota kontserbazio-egoera andeatzen duen jarduketa edo jarduera oro. Urkiolako naturagune babestuan inbentariatutako hezeguneak aldatzea edo desagertzea ekar dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduerak afekzio nabarmena eragin dezake.

4.E.3.- Erakunde Eskudunaren (Konfederazio Hidrografikoa) emakidaren xede diren giza hornidurarako edo animaliei edaten emateko hargune berriak egitea, Urkiolako Organo Kudeatzaileak baloratu beharko du aurretiaz. Horretarako, Ur Agentzia erakunde honi zuzenduko zaio Konfederazio Hidrografikoak Autonomi Erkidegoari kontsultatzeko izapidearen bitartez. Ur-hargune berrien edo aurretik zeudenen aldaketei, bakarrik edo beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta hezeguneei eta horien babes-eremuei eragin diezaieketen heinean, ezin izango dute afekzio nabarmenik eragin kontserbazioaren xede diren elementuetan.

4.E.4.- Debekatuta dago drainatzeak eraikitzea parke naturaleko hezeguneen inbentarioan dauden habitatetan.

4.E.5.- Ingurune honetan ganadua onartuko da Organo Kudeatzaileak baimendutako baldintzetan soilik, ganadu-kargak doituko direlarik habitat hauen inguruetan gehiegizko abeltzaintza saihesteko. 7140 habitata duten guneetan ganadua mantendu behar da, bere fisonomia mantentzen eta landaretza kontrolpean izaten laguntzen duelako, berezkoa duen ingurune-irekiko itxura sortuz. Dena dela, ganadu-karga doitu beharko da, lurzoruan eraldaketa larriak eta landare aniztasunaren galera ekiditeko.

4.E.6.- Naturagune babestuko hezeguneen banaketa, kontserbazio-egoera eta eboluzioa ezagutzera zuzendutako jarduketak bultzatuko dira, eta habitat horiek zein lotutako flora- eta fauna-populazioak kontserbatu eta berreskuratzeko jarduketak sustatuko dira.

4.E.7.- Hezeguneen inguruan soilik erabiliko dira, eta beharrezkoa dela frogatu ondoren, basa-fauna eta -florarako toxikotasun txikia duten edo toxikoak ez diren pestizidak. Gomendatutako gutxieneko dosiak aplikatuko dira, eta ez dira erabiliko modu prebentiboan ezta ureztatzean ere.

4.E.8. Inguru honetako ur-elikatzearen baldintzak mantentzeko zaintza-lanak egin beharko dira.

5. URKIOLAKO IBAI SISTEMA

5. Azken xedea	KBeko ibai-sistemaren erabateko funtzionaltasunari eustea, kontserbatzea eta berreskuratzea, intereseko espezie ugari dauden habitatak garatzen diren esparru gisa eta dibertsitateari zein prozesu ekologikoei eusten laguntzen duen korridore ekologiko gisa.
5.1. xede operatiboa	Urkiolako ibai eta erreketako uren egoera ekologiko ona ziurtatzea, ezinbestekoa baita sistemaren barruan dauden intereseko habitat eta espezieen populazioek kontserbazio-egoera ona izateko.
Erregulazioak	<p>5.E.1.- Debekatuta dago ibilguak morfologikoki aldatzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta izan ezik.</p> <p>5.E.2.- Kokatzeko eta ibilbiderako beste aukerarik ez dagoelako naturagune babestuan egin behar diren planak, programak eta azpiegitura-proiektuak (saneamendua, hornidura, pistak, bideak, etab.) baimenduko dira tokiko osotasunari eragingo ez diotela egiaztatzen bada. Horrela jardungo da kanalizazioak, defentsak, eraikuntza-dragatuak, sedimentuen mantentze-lanak eta birkokatzeak, eta edozein motatako betelanak egin behar direnean.</p> <p>5.E.3.- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzearen Lurraldearen Arloko Plana aplikatzearen ondoretarako, naturagune babestuko eremu osoa natura intereseko lehentasunezko eremutzat hartuko da; orobat, eremu hori aipatu planeko D.2 atalean ibilgua babesteko zehaztu den gunea izango da eta LAPK eremu horietarako ezarritako erabilereen erregulazioa aplikagarri izango da.</p> <p>5.E.4.- Uren kalitaterako arriskugarri izan daitezkeen hondakin urak isurtzen dituzten eta parkearen barruan dauden eraikuntza eta instalazioek, arazteko sistema egokiak izan beharko dituzte, administrazio hidraulikoak luzatutako baimenarekin batera.</p>

	<p>5.E.5.- Baso-lanetan, pista eta bideak irekitzean edo konpontzean edo makineria astunak erabiltzea eskatzen duen edozein jardueretan, makineria ez da ibai-ibilguetan zehar eramango, bertan aldaketak eta uhertzeak ekiditeko. Ibaia halabeharrez gurutzatu behar bada, bertako inguruan eta lotutako espezieetan ahalik eta kalte gutxien sortzeko aurretiko neurriak hartuko dira.</p> <p>5.E.6.- Ibilguak ezingo dira zerbitzu-galeriatzat jo kanalizatutako luzetarako ibilbiderako. Ereku horietan, ibilgua bera eta ingurua errespetatu beharreko gunetzat hartu behar dira, funtsezkoa baita ibai-korridorea garatzeko, ibai-ekosistemaren higadura, kutsadura eta degradazioa kontrolatzeko xedez.</p>
5.2 xede operatiboa	<p>Ibaiertzeko habitaten kalitatea eta kontserbazio-egoera hobetzea, ertzen konektibitatea ziurtatzen duen korridore ekologiko jarraitua berreskuratze aldera, fauna lekuz aldatzeko eta ibai- nahiz lur-sistemak ekologikoki egoki funtzionatzeko xedez.</p>
Erregulazioak	<p>5.E.7.- Naturagune babestuko eremuan debekatuta dago interes ekologikoko aleak edo landaredi erriparioko masak osorik edo zati batean desagerraraztea dakarten baso-jarduketak gauzatzea. Inguru horretatik gertu egiten diren baso-aprobetxamenduetan, ziurtatu beharko da lotuta dauden Batasunaren intereseko habitatek eta espezieek aurrera egiten dutela eta kontserbatzen direla; gainera, ekidin beharko da uren kalitateari eragitea.</p> <p>Lanetatik babestuko da, gutxienez, jabari hidrauliko publikoari eta horren babes-zortasunari dagokion lur-zerrenda. Ereku horretan, ez da zuhaitz-espezie aloktonorik landatuko, eta belardi naturalak kontserbatu eta hobetzeko jarduketak sustatuko dira.</p> <p>5.E.8.- Naturagune babestuaren eremuan, eta edozein kasutan ere, ibilgutik gertuenean dagoen 15 m-ko zerrendan, eta hala badagokio, 10 urteko itzulera-denboran urpean gera daitezkeen Urkiolako eremuetan, jarduketak sustatuko dira habitat naturalak eta landaredi autoktonoa kontserbatu, hobetu eta indartzeko. Baso-espezie aloktonoen landaketen tokiko landaredia izan daitekeenaren espezie autoktonoen birpopulatzeekin etengabeko ordezkapena bultzatuko da.</p> <p>Irizpide hori lehentasunez aplikatuko zaie naturagune babestuko titulartasun publikoko lursailei. Birpopulatu berriek eskualde bakoitzeko komunitateetako landaredi-serieetan oinarritutako landaketa-modulu heterogeneoak erabiliko dituzte.</p>
5.3 xede operatiboa	<p>Ibai-sistemarekin lotutako fauna-populazio mehatxatuen jarraipena egitea eta kontserbatzea.</p>
Erregulazioak	<p>5.E.9.- Debekatuta dago baso-igel iberiarraren eta mehatxatutako gainerako anfibioren aleak harrapatzea; ildo beretik, debekatuta dago aipatutako aleak hiltzeko, jazartzeko edo enbarazu egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea, larbei, kumeei eta arrautzei zuzendutakoak barne, eta debekatuta dago euren habitatak suntsitzea, bereziki, habiak, gordelekuak, eta ugalketa-, negu-, atsedene- edo elikatze-eremuak. Debekatuta dago «galzorian» edo «kaltebera» zerrendatuta dauden espezieak naturalizatu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea, bizirik edo hilda eduki.</p> <p>5.E.10.- Karramarro autoktonoa naturagune babestuko erreketan egotea bultzatzeko jarduketak sustatuko dira; izan ere, habitataren ezaugarriak mesedegarriak dira mehatxatutako espezie horrentzat eta EAEn duen egoera prekariorako.</p>

2016ko apirilaren 21a, osteguna

5.E.11.- KBEko organo kudeatzaileak naturagune babestuko anfibioen komunitatearen habitata hobetzeko jarduketak sustatuko ditu, eta horiek mehatxu-maila handiena duten espezieekin arituko dira bereziki.

5.E.12.- karramarro seinaleduna desagerrarazi eta kontrolatzeko jarduketak sustatuko dira.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

7.1. taula: KONTSERBAZIO ARAUEN ETA KONTSERBATU BEHARREKO HABITEN ARTEKO LOTURA					
HZ/EUNIS kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak	
4030	Txilardi lehor europarrak	B	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 3.E.1, 3.E.2, 3.E.3, 3.E.4, 3.E.5, 3.E.6, 3.E.7, 3.E.8, 3.E.9, 3.E.10, 3.E.11	
4090	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskadunak	A	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 3.E.1, 3.E.2, 3.E.3, 3.E.4, 3.E.5, 3.E.6, 3.E.7, 3.E.8, 3.E.9, 3.E.10, 3.E.11	
6170	Larre alpetar eta azpi-alpetar karedunak	A	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.1, 1.E.5, 1.E.6, 1.E.18, 3.E.1, 3.E.2, 3.E.3, 3.E.4, 3.E.5, 3.E.6, 3.E.7, 3.E.8, 3.E.9	
6210	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	B	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 3.E.1, 3.E.2, 3.E.3, 3.E.4, 3.E.5, 3.E.6, 3.E.7, 3.E.8, 3.E.9, 3.E.10, 3.E.11	
6230*	<i>Nardus</i> -dun formazio belarkarak, espezie ugariak, eremu menditarreko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditarretako) silize-substratuetan	A	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 3.E.1, 3.E.2, 3.E.3, 3.E.4, 3.E.5, 3.E.6, 3.E.7, 3.E.8, 3.E.9, 3.E.10, 3.E.11	
6430	Lautadako orletako eta pisu menditar eta alpetarretako megaforbio eutrofo hidrofiloak	C	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.1, 1.E.4, 1.E.6, 1.E.30	
6510	Altitude baxuetako sega-larre txiroak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	D		E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15	
7140	Zohikaiztegi azidofiloak/esfagnodiak	B	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 4.E.1, 4.E.2, 4.E.3, 4.E.4, 4.E.5, 4.E.6, 4.E.7, 4.E.8	
8130	Mediterraneo mendealdeko lur-jausi termofiloak	B	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.1, 1.E.6, 1.E.30	
8210	Landaredia kasmofitikodun malda arrokatu kaltzikolak	A	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.1, 1.E.2, 1.E.5, 1.E.6, 1.E.30	

2016ko apirilaren 21a, osteguna

7.1. taula: KONTSERBAZIO ARAUEN ETA KONTSERBATU BEHARREKO HABITEN ARTEKO LOTURA					
HZ/EUNIS kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak	
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	A	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.1, 1.E.3, 1.E.6, 1.E.7	
9120	Pagadi azidofilo atlantiarrak, <i>Ilex</i> oilhanpedunak, eta batzuetan <i>Taxus</i> -dunak (<i>Quercion robori-petraeae</i> o <i>Ilici-Fagenion</i>)	A	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.9, 2.E.11, 2.E.12	
9180*	Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (<i>Tilio-Acerion</i>)	C	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.11, 2.E.12	
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> -eko ibar basoak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	B	Txarra	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.12, 5.E.1, 5.E.2, 5.E.3, 5.E.5, 5.E.6, 5.E.7, 5.E.8	
9230	Harizti galaikoportugesak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -rekin	D		E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.11, 2.E.12,	
9340	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> -ko basoak	C	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.10, 2.E.11, 2.E.12,	
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa			E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.9, 2.E.11, 2.E.12,	
G1.86	<i>Quercus robur</i> nagusitzen deneko baso azidofiloa			E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.11, 2.E.12	
G1.91	Urkidia			E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 2.E.1, 2.E.2, 2.E.3, 2.E.4, 2.E.5, 2.E.6, 2.E.7, 2.E.8, 2.E.11, 2.E.12	

2016ko apirilaren 21a, osteguna

7.2. taula: KONTSERBATIO ARAUEN ETA KONTSERBATU BEHARREKO ESPEZIEEN ARTEKO LOTURA							
Kodea	Espezia	HZ erasnk.	HeZ erasnk.	LESPRE / CEEA	EMEK	Kontserbazio egoera KBEn	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
1865	<i>Narcissus asturiensis</i>	II		*	DIE	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.4, 1.E.31, 1.E.32, 3.E.12, 3.E.13, 3.E.14,
1857	<i>Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis</i>	II		*	R	Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 1.E.4, 1.E.31, 1.E.32, 3.E.12, 3.E.13, 3.E.14
1303	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.3, 1.E.6, 1.E.7, 1.E.21, 1.E.25, 1.E.26, 1.E.27, 1.E.28, 1.E.29, 2.E.19, 2.E.23, 2.E.25
1321	<i>Myotis emarginatus</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.3, 1.E.6, 1.E.7, 1.E.21, 1.E.25, 1.E.26, 1.E.27, 1.E.28, 1.E.29, 2.E.8.h, 2.E.19, 2.E.20, 2.E.8.i, 2.E.23, 2.E.25
5817	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.3, 1.E.6, 1.E.7, 1.E.21, 1.E.25, 1.E.26, 1.E.27, 1.E.28, 1.E.29, 2.E.19, 2.E.23, 2.E.25
6098	<i>Eptesicus serotinus</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.21, 2.E.19, 2.E.20, 2.E.8.h, 2.E.8.i, 2.E.23, 2.E.25
1310	<i>Miniopterus schreibersii</i>	II-IV		VU	VU	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.3, 1.E.6, 1.E.7, 1.E.21, 1.E.25, 1.E.26, 1.E.27, 1.E.28, 1.E.29, 2.E.19, 2.E.23, 2.E.25
A072	<i>Pernis apivorus</i>		I	*	R	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.21, 2.E.8.h, 2.E.8.i, 2.E.16, 2.E.17, 2.E.18, 2.E.22

2016ko apirilaren 21a, osteguna

7.2. taula: KONTSERBAZIO ARAUEN ETA KONTSERBATU BEHARREKO ESPEZIEEN ARTEKO LOTURA							
Kodea	Espezia	HZ erasnk.	HeZ erasnk.	LESPRE / CEEA	EMEK	Kontserbazio egoera KBEn	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
A077	<i>Neophron percnopterus</i>		I	VU	VU	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.2, 1.E.5, 1.E.8, 1.E.9, 1.E.10, 1.E.11, 1.E.12, 1.E.13, 1.E.14, 1.E.15, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.20, 1.E.21, 1.E.22, 1.E.23, 1.E.24,
A078	<i>Gyps fulvus</i>		I	*	IE	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.2, 1.E.5, 1.E.8, 1.E.13, 1.E.14, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.21, 1.E.22, 1.E.24,
A082	<i>Circus cyaneus</i>		I	*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.21, 2.E.16, 3.E.9, 3.E.11
A092	<i>Hieraaetus pennatus</i>		I	*	R	Desegokia	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 2.E.6, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.20, 1.E.21, 2.E.8.h, 2.E.8.i, 2.E.16, 2.E.17, 2.E.18
A103	<i>Falco peregrinus</i>		I	*	R	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.1, 1.E.2, 1.E.5, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.21, 2.E.16
A338	<i>Lanius collurio</i>		I	*		Txarra	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.16, 1.E.21, 3.E.9, 3.E.11
A346	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>		I	*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.16, 1.E.17, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.21, 3.E.9, 3.E.11
A302	<i>Sylvia undata</i>		I	*	R	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.18, 1.E.19, 1.E.21, 3.E.9, 3.E.11
2353	<i>Ichthyosaura alpestris</i>			VU	VU	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 4.E.4, 4.E.6, 4.E.7, 4.E.8, .E.1, 5.E.2, 5.E.3, 5.E.4, 5.E.5, 5.E.6, 5.E.7, 5.E.8, 5.E.9, 5.E.11

2016ko apirilaren 21a, osteguna

7.2. taula: KONTSERBAZIO ARAUEN ETA KONTSERBATU BEHARREKO ESPEZIEEN ARTEKO LOTURA							
Kodea	Espezia	HZ erasnk.	HeZ erasnk.	LESPRE / CEEA	EMEK	Kontserbazio egoera KBEn	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
1016	<i>Rana iberica</i>	IV		*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 4.E.4, 4.E.6, 4.E.7, 4.E.8, 5.E.1, 5.E.2, 5.E.3, 5.E.4, 5.E.5, 5.E.6, 5.E.7, 5.E.8, 5.E.9, 5.E.11
1007	<i>Elona quimperiana</i>	II-IV		*		Aldekoa	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 1.E.4, 1.E.5
1065	<i>Euphydrys aurinia</i>	II		*		Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 2.E.26
1083	<i>Lucanus cervus</i>	II		*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 2.E.8.c, e eta f 2.E.11, 2.E.24, 2.E.26
1087	<i>Rosalia alpina</i>	II-IV		*	IE	Ezezaguna	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, 2.E.8.c, e eta f, 2.E.11, 2.E.24, 2.E.26
1092	<i>Austropotamobius italicus</i>	II,V		VU	EP	Txarra	E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11, E.12, E.13, E.14, E.15, 5.E.1, 5.E.2, 5.E.3, 5.E.4, 5.E.5, 5.E.6, 5.E.8, 5.E.8, 5.E.10, 5.E.12

7.- JARRAIPEN PROGRAMA

Beheko taulan, agiri honetan ezarri diren azken xedeen eta xede operatiboan jarraipena egiteko behar diren adierazleak jaso dira, elementu gako bakoitzerako. Kasu bakoitzean, hasierako balioa, eta orientazio gisa, erreferentziako balio objektibo bat eta denbora-horizontea ezarri dira.

Elementu gakoa	Azken xedea	Xede operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Erreferentziako xedearen balioa
1. LEIZEAK, HARKAITZAK ETA LOTUTAKO HABITATAK	Leizeekin, barrunbe karstikoekin eta harkaitzekin lotutako Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea.	Urkiolako harkaitz-habitatak eta leizeak kontserbatzea, mehatxu-faktoreak txikiagotzea eta kontrolatzea, eta habitat horien inguruko ezagutza areagotzea.	Hesitura perimetralen kopurua	Ezezaguna	Hesitura perimetralen kopurua progresiboki handitzea
	Mehatxatutako espezie errupikola guztien populazio bizigaiak mantentzea eta naturagune babestuko baldintzak hobetzea espezie horientzako harrera-ahalmenari laguntzeko.		Habitat hauen kontserbazio egoeraren ebaluaketa	Egina	Egina
			KBEko natur-elementu bereizgarriak kontserbatzearen garrantziari buruzko tailer, jardunaldi edota ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako jarduera kopurua	Ezezaguna	KBEko natur-elementu bereizgarriak kontserbatzearen garrantziari buruzko tailer, jardunaldi edota ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako jarduera kopurua handitzea
		Hegazti-espezie harkaiztarrak kontserbatzea.	Espezieen (urteroko) ugalketa arrakasta ezagutzea	Egin gabe	Egina
			Kontrol eta zaintza plana	Egin gabe	Egina

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Elementu gakoa	Azken xedea	Xede operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Erreferentziako xedearen balioa
		Harrapari harkaiztarren heriotza-arrazoi ez naturalak ezabatzea.	Argindar línea eta parke eolikoan eragina ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna
			Pozoiak hildako kasuen jarraipenerako protokoloa	Egin gabe	Egina
			Birgaitze zentruetan hildako banakoen kopurua	Ezezaguna	Ezaguna
		Espezie nekrofagoentzako eskaintza trofiko egokia bermatzea.	Behar trofikoa ezagutzea	Egin gabe	Egina
		KBEn dauden leizekiroptero mehatxatuenen banaketa eta populazio-bilakaera ezagutzea.	Kiroptero espezieen kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
		KBEko kiropteroen babesleku nagusien kontserbazio egoera ezagutzea (Turismoak ustiatu gabeko kobak, 8310 EB KOD.)	Kiroptero espezieen lehentasunezko habitaten kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
		Heziketa-jarduerak sustatzea gizakiek kiropteroekiko duten jarrera hobetzeko.	KBEko natur-elementu bereizgarriak kontserbatzearen garrantziari buruzko tailer, jardunaldi edota ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizatorako jarduerak kopurua	Ezezaguna	KBEko natur-elementu bereizgarriak kontserbatzearen garrantziari buruzko tailer, jardunaldi edota ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizatorako jarduerak kopurua progresiboki handitzea
		Mehatxatutako flora-populazioak babestea eta jarduketek naturagune babestuan duten eraginkortasuna ebaluatzea eta jarraitzea.	KBEko espezie mehatxatuen kontserbazio egoera ebaluatzea (3 urteko maiztasunarekin)	Kontserbazio egoera desegokia	Kontserbazio egoera aldekoa

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Elementu gakoa	Azken xedea	Xede operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Erreferentziako xedeen balioa
2. BASOAK	<p>Basoen kontserbazio egoera hobetzea.</p> <p>Habitat naturalek estalitako azalera handitzea.</p> <p>Habitat naturalen mosaikoaren aniztasuna handitzea.</p> <p>Hobekien kontserbatutako tokiak egungo egoeran mantentzea.</p>	<p>Dauden baso-masak mantentzea eta euren azalera handitzea.</p>	Habitat talde honen azalera (ha) KBEn	Ezaguna	Habitat talde honen KBEko azalera (ha) progresiboki handitzea
	<p>Bertako basoak berreskuratzeko borondatezko akordioen bitartez leheneratutako pinudien azalera (ha)</p>		Ezezaguna	Borondatezko akordioak dauzkaten azalera progresiboki handitzea	
		<p>Basoen egitura heldutasuna handitzea.</p>	Erreserba integraleko basoen azalera (ha)	Ezaguna	Erreserba integraleko basoen azalera progresiboki handitzea
			Pago motzen basoen azalera (ha)	Ezaguna	Mantentzen da
			Zur hila, lurreen zein zutik, tonelada hektareako	Ezezaguna	Zur hilaren kopurua (Tm) progresiboki handitzea, lurreen zein zutik
			<p>Basoko hegazti-espezieak kontserbatzea eta berreskuratzea.</p>	Espezieen kontserbazio egoera	Ezaguna
		Kontrol eta zaintza plana	Egin gabe	Egina	
		<p>Urkiolan dauden baso-kiroptero mehatxatuenen banaketa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta zuhaitz-masen ezaugarri jakinak</p>	Kiroptero espezieen kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
		Kiroptero espezieen lehentasunezko habitaten kontserbazio egoera	Ezaguna	Ezaguna. Babeslekuaren kontserbazio egoera progresiboki hobetzea	

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Elementu gakoa	Azken xedea	Xede operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Erreferentziako xedearen balioa
		babestea baso-espezieen eta espezie zuhaitzarren eskakizunei erantzuteko.	Kiropteroentzako babesleku izan daitezkeen zuhaitzen kopurua	Ezezaguna	Ezaguna eta eremuan babeslekuak progresiboki ugariagotzea
		<i>Rosalia alpina</i>, <i>Lucanus cervus</i> eta <i>Euphydryas aurinia</i> espezieen banaketa ezagutzea eta populazioak jarraitzeko sistema ezartzea.	Batasunaren intereseko espezieen jarraipena eta kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
			Eremu eguzkitsuetan zur hilaren pilatze kopurua	Ezezaguna	Ezaguna. Progresiboki handitzea.
3. SASTRAKADIAK ETA LARREAK	Ziurtatzea txilardien eta mendiko larreen egungo azaleraren kontserbazioa, baita mosaikoan antolatzen dela ere; eta habitaten nahiz lotutako espezie mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoerarekin bateragarriak diren abeltzaintzako kudeaketa-jarraibideak ezartzea.	Batasunaren intereseko larreen eta sasien aldeko kontserbazio-egoera eustea ziurtatzen duen abeltzaintza-kudeaketa bultzatzea, mosaiko-gisako antolaketa mantenduz.	Larreetan egindako presioa eta azienda mota bakoitzaren erabilera denboraldiak ezagutzea	Ezezaguna	Conocida
			Eremu baikoitzerako onargarria den abere-karga ezagutzea	Egin gabe	Egina
			Larretzea antolatzeko plana	Egin gabe	Egina
			Andeatutako eremuen leheneratze kopurua	Ezezaguna	Ezaguna. Andeatutako larretze-eremuen leheneratze kopurua handitzea
			Toki jakinak kontserbatzeko aziendak kanporatzeko itxiturak	Ezezaguna	Beharrak, eraginak, etab. ezagunak. Kontserbatzeko tokien babesa handitzea
			Berreskuratutako heskaien metro linealak	Ezezaguna	Ezaguna. Berreskuratutako heskaien metro linealak handitzea

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Elementu gakoa	Azken xedea	Xede operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Erreferentziako xedearen balioa
		Txilardiekin eta belardi naturalekin nahiz erdi-naturelekin lotutako flora mehatxatuaren populazioen jarraipena.	Habitataren azalera (ha)	Ezaguna	Habitataren azalera eta mosaikoan antolamendua finkatzea. Handitzea, andeatutako eremuak berreskuratuta
			Batasunaren intereseko espezieen jarraipena eta kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
			Txilardi eta belarkaren formazioetako orkidea komunitatearen inbentarioa	Egin gabe	Egina
			Larre menditarren lore-inbentarioa	Egin gabe	Egina
4. TRANTSIZIO-KO ZOHKAIZ-TEGIAK	Trantsiziozko zohikaiztegien kontserbazio egoera hobetzea.	Habitat naturalek estalitako azalera osoa handitzean laguntzea.	Aziendak zapaltzeagatik andeatutako azalera (ha)	Ezezaguna	Aziendak zapaltzeagatik andeatutako azalera txikitzea
		Habitat hauen bilakaeraren jarraipena egitea.	Habitat hauen kontserbazio ebaluaketa bi urtetik behin	Egin gabe	Egina
5. URKIOLAKO IBAI SISTEMA	Urkiolako KBEren ibai-sistema kontserbatzea eta berreskuratzea.	Faunaren lekualdatzeetarako ibarren konektagarritasuna bermatuko duen korridore ekologiko etengabea kontserbatzea eta berreskuratzea.	Erabilera edo eten ezberdinek okupatutako ibarren landaretza naturalarekin leheneratzearen azalera (ha)	0	Zuzentarauak Batasunaren Intereseko edota Lehentasunezko zat sailkatutako ibarretako habitaten azalera progresiboki handitzea
		Intereseko habitaten kalitate ekologikoa hobetzea.	Harrobien ustiaketak eragindako leheneratutako ibai zatien kopurua	0	Mañaria eta Mendiolako ibaien leheneratzea progresiboki handitzea
			KBEen eragin dezaketan espezie inbaditzaileen kopurua	Ezezaguna	KBEen eragin dezaketan espezie inbaditzaileen kopurua progresiboki txikitzea
		Urkiolako KBEko ibai eta erreken uren kalitateari buruzko ezagutza hobetzea.	Ibaien kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna. Ingurumen helburuak betetzearen alde lan egitea

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Elementu gakoa	Azken xedea	Xede operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa	Erreferentziako xedearen balioa
			Berreskuratutako heskaien metro linealak	0	Berreskuratutako heskaien metro linealak handitzea
		KBEko anfibioen banaketa eta populazioaren bilakaera ezagutzea.	Espezieen kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna. Espezieen kontserbazio egoera progresiboki hobetzea
		Urkiolako KBEn ibai karramarro autoktonoaren presentzia sustatzea eta bermatzea.	Ibai-karramarro autoktonoaren aldizkako jarraipena KBEn	Egina	Jarraipenarekin jarraitu
			Espezie inbaditzaileek eragindako mehatxu maila	Ezezaguna	Espezie inbaditzaileek eragindako mehatxu maila txikitzea
			Urkiolako ur-ibilguzi lotutako Batasunaren intereseko habitaten aldizkako (sei urteko maiztasuna) jarraipena eta kontserbazio egoeraren ebaluaketa	Egin gabe	Egina